

ttipi-ttapa




ZIGAKO ESKOLAN AZKEN IKASTURTEA IZANEN DUTE

Sei ikaslerekin hasi dute ikasturtea Zigako eskolan, baina aurtengoa azkena izanen dute, ekainean hetsiko baitute eskola. Irakasleekin, gurasoekin eta ikasleekin bildu da TTIPI-TTAPA. / 12

Nafarroako bertsolarien hitzordua

Larunbatean Iruritan hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Urriaren 21ean Leitzan eta azaroaren 19an Lesakan ariko dira.

SINADURAK



Maite Goizueta laben aitatxiren arrasto bila Baztandik Ameriketara / 8



Elizondoko Maialen Braña Agerrebere Donostiako Orfeoiko abeslaria da / 58



Urdazubiko Pablo Olaizola Espelosin Ameriketara artzain ibilitako kontuez / 66



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023

Final-laurdena

IRURITA

Urriak 7, larunbata
17:30ean, Gizarte Bilgunean

Saioa Añkaiza Guallar, Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Uribarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eneerrea



Antolatzailea:  Leguntzailea: 

www.bertsozale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai




BERA LESAKA

Agenda 2023

URRIA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

URRIA 7 LARUNBATA	"HARRIBITXI" FOLK MUSIKA EMANALDIA HAMAR URTE, HAMAIKA DINAMIKA LESAKA	14 LARUNBATA	BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA BERA	24 ASTEARTEA	IPUIN KONTAKETA "LETREKIN DANTZAN" HAIZEA LOIRA LESAKA
	19:00 "Harribiti" emanaldia Berrindoa Kultur Etxea		10:30-12:00 Berrindoa		17:30 Lesakako Liburutegia
7 LARUNBATA	DANTZA YERMA (ZUK PERFORMING ARTS) SENDAHERRI PROGRAMA BERA	19 ORTZEGUNA	LIBURU-AURKEZPENA INTZOLA, PASOKO BIDEA BERA	26 ORTZEGUNA	SOLASALDIA MARGARITA LEUZ LESAKA
	19:00 Kultur Etxean Sarrera: 1€ Antolatzailea: Nafarroako Antsoki Sarea		18:00 Berrindoa Antolatzaileak: Magerri elkarte, Jakieta elkarte eta Beroko Udala		18:00 Lesakako Liburutegia
8 IGANDEA	LAZKAOKO KANTAKA ABESENTZA LESAKA	21 LARUNBATA	TANTIBUMAIKU IKASTOLAREN 50. URTEURRENA LESAKA	27 ORTZIRALEA	ELKARTEAREN EGUNA FERMIN DONEA JUBILATUAK LESAKA
	12:00 Berrindoa - Kontantza		ETA BERTSOAREN EGUNA BERRINDEEN INOUGURAZIO KUTXALAN 11:00 Tantarreko Udala		ORGANO MUSIKA ZIKLOA NAFARROAN 18:30 Tantarreko San Martin Eliza
11 ASTEAZKENA	KONTZERTUA BIDAI (MIKEL ARTIEDA & ZAZPIKETERS) BERA	21 LARUNBATA	LIZUNIAGAKO IGOERA BERA	28 LARUNBATA	ANTZERKIA FUSCOLABIS BERA
	19:00 Kultur Etxean Sarrera: 7€		17:00tan Luzera: 4,3 km Antolatzailea: Gern Txakoa elkarte		19:00 Kultur Etxean
14 LARUNBATA	DANTZA ETA ZINEMA BASOTIK ITSASORA 2.0 LESAKA	22 IGANDEA	LURRAREN EGUNA Ehizlangileak, Sagardo eta Gasa lehiaketak, Bertsoleak... BERA	28 LARUNBATA	MERKATU TTIKIA BORTZIBERTAKO HERRI ESKOLA PUBLIKOEN BESTA LESAKA
	19:00 Berrindoa Kultur Etxean Sarrera: www.lesaka.eus		Antolatzailea: Gern Txakoa elkarte		
		23 ASTELEHENA	HITZALDIA KOMUNIKAZIO G3 BORTZITZA LESAKA	29 IGANDEA	BIRA NAFARROAN BARRA ANE MARTIJA LESAKA
			17:30 Kalkotako Bidea		19:00 Berrindoa Kultur Etxean



NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Minari lekua egiteko

Behin lagun bati erran nion min nuela, eta hark erantzun «egiozu lekua». Sutan jarrita erotzat hartu nuen, nola utzi lekua minari? Nola onartu zauria, gaizki egotea onartezina bada? Ahuldadea ohikotasunean sentitu nahi ez dena bada, nola egin lekua ahul sentiarazten duen minari? Medikamentu pila baten helburu nagusia mina ez sentiaraztea izanda, lagunaren errana atzerakoia iduritzen hasi zitzaidan. Baina, ezin gogotik atera leku egite hori... Azken finean, mina ezin da hautatu: bere agerpenaren aitzinean, jarrerarik helduena onarpena litzateke orduan. Minaren onartzea, bere ondorioak asumitzea gorputzaren eta ingurumenaren baitan ez da, kontu horretan, ahuldade marka, indar marka baizik. Azken finean, zaurian behatza sartzen egon gabe bere horretan uztea, zauriarekin egin daitekeen hoberena da. Gisa horretan uzten baita gorputza elkarlanean, minari erantzuteko sendabidean. Indarra mina kanporatzeko edota isilarazteko erabiltzea nekagarria eta inutila da, eta ez du sendatzen. Indarra mina entzuteko eta entzunarazteko erabiltzen bada, sendatzearen lehen pausoak ematen dira.

«MINAREN ONARTZEA EZ DA AHULDADE MARKA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ameriketara joan nintzen...

Xentimorik gabe. 1902an trasatlantikoan joandako aitatziren eta bertze bederatzi baztandarren testigantza topatu du Maite Goizueta arizkundarrak Ellis Islanden. XX. mendearen bigarren erdian hegazkinez joandako Paulo Olaizolak ere bere pasadizo hunkigarriak kontatu ditu aldizkari honetan. Orain, gurera datozenak igerian sartzen ere ez ditugu uzten.

NABARMENTZEKOAK



KARLOS AGIRRE
OMENDUA



FLORENTINA LOIARTE
GOIZUETARRA

Leitzako Aurrera Elkartearen Eguna egingen dute urriaren 7an, eta bertan omenduko dute urte luzez elkarteko presidente izan de Karlos Agirre. Merezitako omenaldia jasoko du.

Goizuetako Mitxelko baserriko Florentina Loiarde Arotzenak 101 urte beteko ditu urriaren 15ean. Bera da egun goizuetako biztanlerik zaharrena. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2013-10-03 · TTIPI-TTAPA · 599 zk.

N-121-A errepideko arriskuaz kezkatuta

Duela hamar urte N-121-A errepideak zuen arriskuaz kezkatuta zegoen eskualdeko herritar talde bat. 2013ko irailaren 17an Igantziko gazte bat hil zen bere autoak kamioi baten kontra jo ondotik, eta heriotza hori salatzeke eta errepidea hobetzeko neurri zehatzak eskatzeko agerraldia egin zuten eskualdeko hainbat ordezkari eta herritarrek. Errepideko puntu beltzetan «urgentzia osoz» neurriak hartzen hasteko eskatu zuten, eta arriskua ekiditeko garraio publikoa indartzeko. «Geroz eta handiagoa den ibilgailu astunen garraioak sortzen dituen arazoaren aitzinean, produkzio eta kontsumo ereduaren aldaketaren alde egitea, honek beronek ekarriko baitu garraio sistema jasangarriago bat».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 45€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

GORKA LAURNAGA PEÑA

Ur zikinetan, faxismoa

Frantzian, Entziklopediaren sorterrian, Ilustrazioaren nazioan, sei milioi terraplanista daude. AEBetan populazioaren % 40k uste du Bidenek ez zituela hauteskundeak irabazi eta Capitolioarena Trump kaltetzeko muntaia izan zela. Estatuatuaren ia % 60k behintzat konspirazio teoria batean sinesten du.

Konspirazio teorien zerrenda amaigabea da. Geopolitika gustatzen zaizu? Dorre bikiak! Osasunak kezkatzen zaitu? HIESaren negazionismoa! Klasiko zalea? Holokaustoa ez zen existitu! Emozio fuertek maite dituzu? Lurra laua da! *Fuck you* Eratostenes! EZ DUT DEUS SINESTEN ETA BERAZ NAHI DUDANA SINESTEN DUT!

Ikerketen paper pila erraldoia mahaigaineratzeak gutirako balio du. Konspiranoikoa ez da zientziaren fio: «Nork finantzatzen du? Nor dago zientziaren atzean?» dio youtuber enpiristak. Baina, interesgarria litzateke kontrakoa galdetzea ere: «Nor dago negazionismoen gibelean?».

XX. mendean zehar Philip Morris tabakoaren multinazionalak erretzearen eta minbiziaren arteko harremana zalantzan jartzen zituen hainbat txosten faltsu plazaratu zituen minbizi horren «negazionismoa» zabalduz (zientziak errefusatu zuen). Mende horren azken hamarkadetan ere petrolio multinazional handiek aldaketa klimatikoa zalantzan jartzen zuten ikerketa faltsuak

«ZIENTZIAREN SINESGARRITASUNA PIKUTARA BIDALI NAHI DUTE...»

argitaratu zituzten negazionismo klimatikoa zabalduz (zientziak errefusatu zuen). Orain, gugandik hurbilago, ze alderdi agertu ziren COVID-19aren aurka, txinatarren asmakuntza bat zela erranez? Trump, Bolsonaro, Meloni,

Vox. Nork erraten dute aldaketa klimatikoa ez dela existitzen? Nor dago sare sozialetan milaka bulo zabaltzen? Ultraeskuina. Nor da QAnon konspirazio talde estatuatuarraren lider eta «salbatzaile»? Donald Trump heroi pobrea! Nork jaitsi du sistematikoki zientziaren aurrekontua? Eskuineko gobernuek.

Kontuz, beraz, hemen, ultraeskuina dago zientziaren sinesgarritasuna pikutara bidaltzeko desiotan, egia ez baita errentagarria: bai, munduan tratu txarrak jasotzen dituztenen % 71 emakumeak dira; bai, COVIDa deforestazioak (eta beraz, agroindustria kapitalistak) bultzaturiko zoonositik datorrela diote ikerketek. Negazionismoari ateak irekitzean eskuineko populismoari ere bide egiten zaio. Zientzia konplot ustel bat bada, zergatik sinetsi genero indarkeriaren datuak? Espainian bortz mutil gaztetatik batek uste du genero indarkeria «asmakeria ideologiko» bat dela. Zergatik sinetsi aldaketa klimatikoan? Estatuatuaren % 40k ez du egiten.

Urak nahasi, ur zikinetan gustura baitabil kapitala eta faxismoa («hil dadila inteligentzia» oihukatu zion Unamunori batek). Ur nahasi horietan diskurtso sentsazionalistak (migrantek, feminaziak, klima eta marikonadak...) bihurtzen dira garaile, eta datuak, harri pisutsuak bezala, errekaren hondora erortzen dira. Zientziaren irizpidea galtzen dugunean, orduan bai, orduan botere ekonomikoa bihurtzen baita jaun eta jabe.



JOANES ILLARREGI MARZOL

Alferrik

Alferrik. Zenbat eta zenbat gauza egiten ditugu alferrik? kontatzen hasiko bagina, iruditzen zait uste duguna baina gehiagotan gaudela edo aritzen garela alferrik. Etxean, esaterako, zenbat denbora galtzen dugun alferrik, zer egin ez dakigula. Mugikorra hartu, telebista ikusi, zerbait jan... Ez norbaitek idatzi digulako, albistegiak ikusi nahi ditugulako edo gosea daukagulako; zer egin ez dakigulako.

Askok egoista edo neurekoia naizela pentsatuko duzue agian, baina etxebizitzaren *portal* garbiketetan ere, ez al gara gehienetan alferrik aritzen kristalak garbitzen, erratza pasatzen eta *fregonarekin* lurra igurutzen? Guri garbitzea tokatzen zaigun aldiro, egindako lanaren %75a alferrik egiten dugu. Lau solairu dituen bloke bateko lehenengoan bizi gara, eta hala ezarrita dagoenez, eskailerak eta kristalak goitik hasi eta behearaino garbitu behar dira (behetik hasi eta goraino egitea zail samarra delako erratzarekin). Noiz erabiltzen ditugu guk 2, 3 eta 4. solairuko eskailera eta kristalak? Inoiz ez, garbitzerakoan soilik. Beraz, *portala* garbitzea tokatzen denean ere alferrik aritzen gara aldiro, zikintzen ez duguna garbitzen.

Bidesariak ere, jakin nahi nuke zenbat eta zenbat euro ordaintzen ditugun alferrik, aspaldi ordainduta eta ederki amortizatuta dauden errepideak erabiltzeagatik. Gaur egun

«EZ NUELA EZER ESATEKO SENTITZEN NUEN, ALFERRIK ARI NINTZELA...»

bidesaridun errepideen funtzioak bi direla sinetsita nago: hiru kilometroz behin izaten diren Bypass-engatik abiadura motelean joatea eta bidesariaren langak dauden guneak aprobetxatuz kontrolak jartzea. Hau da,

hainbat eta hainbat euro alfer-alferrik ordainduak.

AHTarekin ere antzeko. Tamalgarria da ikustea nola 500 urteko baserriak eraisten dituzten eraikuntzen kamioiak igaro daitezten, lurra zulatu eta hormigoiz eginiko 100 metroko habeak nola sartzen dituzten ikustea bezala. Hau ere zertarako? Alferrik. Iruñetik Gasteiza bost minutu lehenago iristeko? Hobe litzateke tren sozialaren ibilbidea indartu eta eskaintza zabalagoa egitea eraikita dagoen azpiegituraren gainean, eta ez lurak txikitu eta milioiak eta milioiak alferrik xahutzea.

Horiek bezalako beste hainbat adibide daude gizakiok alferrik egiten ditugun gauzenak, alferrik galtzen dugun denborarenak. Baina zentratu nadin, esan nahi dudana esateko. Horixe da nik sentitzen nuena aldizkari honetarako kolaborazio bat egiten nuen aldiro. Alferrik ari nintzela sentitzen nuen, ez nuela ezer esateko. Ordenagailuko pantailaren aurrean jarri eta zeri buruz idatzi pentsatzerako, alferrik galtzen nuen ordu bat. Gero, askotan, esan nahi nuena ere zer zen oso ongi ez jakiteko.

Badituzten dudana esateko eta nire iritzia emateko beste aukera eta leku batzuk, erosoago sentitzen naizenak eta alferrik ari ez naizela uste dudanak. Horietan segiko dut, eta aldizkari honetako tartekako toki hau beste norbaiti utziko diot, egiaz zerbait esateko nahia eta gogoia duen norbaiti.

Batek daki, etorkizun batean agian itzuliko naiz hona, alferkeria gutxiagorekin.

11 GALDERA LABUR

ARITZ ELIZEGI SAHARREA GARTZAINGO GAZTEA

«Adin guzietako herritarrak biltzen gara bestetan»

Gartzaingo bestak ospatuko dituzte urriaren 11tik 14ra, eta antolaketa lanetan ari den Aritz Elizegi Saharrea herritarrarekin solastatu gara. Egitarau osoa 60. orrian dago irakurgai.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Gartzainen sortu eta bizi den 24 urteko mutiko alai.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola egitea bereziki, azken aldiaren frontenisean eta palan jokatzea gustatzen zait. Horretaz gain, lagunekin mendira joatea ere maite dut.

Zein ikasketak egin dituzu?

DBHko ikasketak Lekarozko institutuan egin nituen, eta ondotik Mantenimenduko Erdi eta Goi maila Berako Toki Ona institutuan.

Herriko bestak hurbil dituzue. Gogotsu? Bestazalea zara?

Bai, gogotsu hartzen ditut herriko bestak. Herriko lagunekin gustura egoten naiz eta antolatzen ditugun ekintzekin sortzen den giroa aunitz gustatzen zait. Besta egitea gustuko dut, baina ez naiz aste-bururo ateratzen den horietakoa. Batzuetan, denbora hori bertze gauzak egiteko aprobetxatzen dut.

Zein da ttikitatik duzun lehen oroitzapena bestetan?

Egia erran ez dakit zein den lehen oroitzapena, baina bat aipatzekotan, lagunekin haurren egunean antolatzen ziren jokoetako arras oroitzapen politak ditut.

Eta gaur egun zein da gehien gustatzen zaizun eguna?



Lehendabiziko eguna, besten hasiera gogotsu hartzen baita beti. Gainera, egun horretan mus txapelketa jokatzen da eta aspalditik bertan parte hartzeko ohitura dut.

Bestaren aitzinetik prestaketak datoz. Lan handia izaten da?

Bai, lan handia izaten da, baina gazte guztien artean antolatzen ditugu, herritar guziak kontuan hartuz: haurrak, gazteak eta helduak.

Zerk egiten ditu berezi Gartzaingoko bestak?

Besta herrikoiak direla, adin guzietako herritarrak biltzen gara egun horietan, giro ederra sortuz.

Eta zer falta dute?

Kanpoko jende gehiago etortzea.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Familia eta lagunekin zoriontsu izatea.

Eta epe luzera?

Bizitzan paratutako helburuak betetzen saiatzea, betiere zoriontsu izanik.



1951tik
Casa Cambra
 Ientzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
 Mantelak
 Kuxinak
 Edredoi nordikoak
 Ohe estalkiak
 Maindireak
 Toailak
 Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Azkura ibilaldiaren ondotik, esker onez

IURGI BERRUETA IRIBAR,
MIREN OLAETXEA INDABURU
ETA JASONE MITXELTORENA OZKARITZ
AZKUA BIZIRIK TALDEKO KIDEAK

Joan den irailaren 10ean Azkua kaskoan egindako ekitaldian tinko eta argi adierazi genuen gure mendiak bizirik nahi ditugula eta ez dugula inolaz ere onartuko interes arrotzek gure ingurua hondatzerik; mezua ailegatu dadila behar duen tokira!

Esker aunitz Azkura joandako guziei, aranztar, igantziar, etxalartar, eta nola ez, urrunagotik etorri eta gurekin Etxalartik ibilbidea oinez egitera animatu zineten mallerrekarrei!

Eskerrak eskualdeko hedabideei ere: Ttipi-Ttapa eta Xorroxin, gure mezua zabaltzen hain ongi laguntzen diguzelako!

Goraipamena igantziarrei, eta bereziki Ismaeli, talde guziak elkartzeko proposamena egin eta droneak antolatzeagatik; horien grabatzaileei ere bai!

Eta nola ez, orain irudi horiek eurek hartutakoekin batean editatzen ari diren herritarrei (Jon Mitxelorena eta Aimar Iparragirre)!

Aunitz estimatzen dugu ingurumen ezagutza gurekin banatu zenutenean ekarpena ere, gure inguruari eta dabilzan hegaztiei buruz gehiago jakin ahal izan dugu.

Etxalartik oinez heldu ginenongatik Azkuko kaskoan esperoan egon izana sentitzen dugu; taldea harat ailegatzea uste baino gehiago luzatu zitzaigun (gure artean artzain trebeak bagenituen ere!).

Gurekin bazkaltzera etorritakoak ere bereziki oroitzen zaituztegu, aranztarrak horietako aunitz: zuekin egindako irriak, emandako une goxoak, eta zuen esker onezko hitzek bihotza ukitu ziguten!

Bazkari ederra egin genuen bertan prestatutako bildots errearekin, eskerrak horretarako egun osoan lanean aritu ziren Usazale-lagunei, ohitura onak biziaraziz!

Zuentzat eta artzaintzat eskerrik beroena, gure ingurua eta ohiturak zaintzeko egiten duzuen lanarengatik!

Eskerrik asko egun eder hau egin ahal izateko bildutako boluntario guzioi, zuek gabe ez litzateke posible izanen. Agur bero bat!

Eta jaiak segitzen du

IÑAKI SÁNCHEZ
ZUBIETA

Udagoiena, uda sasoiaren azken ufadak iristen zaizkigun egunak eta oraindik herriren bateko jaien berri iragartzen duten afitzak ikusgai baina... Ai ama! Etsipena eta tristura berri ere euskaraz idatzitakoak ikustean: *larunta, launta, Zubita, taluk, xinger jatia*... eta antzeko perlak nire begien aurrean. Egia esan, ez da gauza berria. «*Kamixtak salgai, kasu man txakurrekin, okindegiye, gozoteiye, bestak, pestak, fiestak*»... Hau jaiak! Honelakoak eta larriagokoak ere oso ohikoak bihurtu zaizkigu bazter guztietan.

Herrietako kartelak, kaleko agiri publikoak, taberna-jatetxeetako menu-agiriak, eskola eta institutueta zentzuzkoak ohar ere! Ez behin, ez bitan, maiz ikusi ditut euskara idatziari emandako ostikadak nire begi propioekin. Ez naiz ari Watsappeko mezu pertsonalez edota lagunen arteko txatez; eremu publikoetan eta denon ikusgai diren komunikazioetan irakur daitezkeenez ari naiz. Ematen du herri analfabetoa izateaz harro daudela batzuk eta lotsagabeki «hemen honelaxe esaten baita!» delako batekin ihardesten dute. Zertan aberasten dugu euskara horrela jokaturik? Nire irudiz euskararen hilobia gero eta sakonago

ari gara egiten. Ez nago euskalki eta tokian tokiko formen kontra, inolaz ez: idazkera ahalik txukun eta arautuen alde nago bakarrik. *Bariku* edo *ortzirale* erabil dezagun, baina behin ere *barikuen* edo *ortzilin* ez idatzi, arren!

Ematen du plazaratzen diren zenbait erregistrotan belarrira iritsi bezala idazteko ohitura naturalizatu dugula eta milaka urtez ahoz aho iraun duen hizkuntza horrela mantendu nahi dugula, erreserba komantxeen antzera.

Euskara bere galbidetik ateratzeko antolatzen ditugun jai eta ekinbideak folklorismo hutsean eror ez daitezen erne ibili behar dugu. Ezaguna dugun *Aho bizi, belarri prest* leloari *begi itsu* gehitu beharko genioke agian?

Ordua da, XXI. mendeko euskaldunok (mendebaldeko zein ekialdeko, iparraldeko zein hegoaldeko) elkar hartuta, euskara atera dezagun dantzara munduko plazetara (eta gure herrietako plazetara, noski). Ez al da nahiko Nafarroan pairatzen ari garen zonifikazio madarikatuarekin? Gu geu gure arteko paretak eta mugak indartzen ari al gara? Berriki bi mila urteko esku xume batek zorioneko bilakatu gaitu ustekabea euskaldun guztiok, ez dezagun gure zabarkeriaz poztasun hori hondatzen utzi.

Garbizalekeria eta akademizismo antzuan erori gabe bultzatzen dezagun euskararen trainerua portu berberera, bakoitza bere arraunarekin alegia, baina ez diezaiozun zulo gehiago eragin oraindik flotatzen duen txalupari.

Nik ere maite zaituztet.

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Egiterako orduan' edo 'Egiteko orduan'?

Euskaltzaindiak dioen bezala, kalko desegokia da <-t(z)erako X-an> erabiltzea (es) 'a la hora de' / (fr) 'au moment où', 'à l'heure de' erdal egituraren ordain gisa.

-*Haserre handiak izaten dira notak hartzerako garaian > Haserre handiak izaten dira notak hartzean, hartzeko garaian.

-*Norbaiti errieta egiterako orduan > Norbaiti errieta egitean, errieta egiteko orduan.

Osatu bikoteak

LAPITZ	BERATZ
ARRASTAKA	HETSI
BERANDU	HERRESTAKA
BIGUN	ARKATZ
BIHARAMUN	GOITIKA
XENDA	BESTONDO
BOTAKA	MANTSO
ITXI	BIDEXKA

Zein da zuzena

*'Benpin' edo 'Behinik behin'?

Maite Lakarren *Malerreka aldeko mintzoak* liburutik ekarri dugu adibide hau. Lakarrek dioen bezala, anitzetan ahoz ***benpin** erraten dugun hori ez dugu jakiten batuan nola eman eta behintzat erabiltzen dugu, jakin gabe ***benpin** horren forma osoa *behinik behin* dela.

*Oharra:

Asmatu al zenuen 838. aldizkariko hieroglifikoa? Hitza hatsanka zen.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Aitatxiren bila joan eta hamar baztandarren berri izan dut Ellis Islanden»

MAITE GOIZUETA IABEN BAZTANETIK AMERIKETARA AITATXIREN ARRASTOEN BILA

Miguel Yaben aitatxiren arrastoaren bila New Yorkeko Ellis Islandera ailegatu eta han ezagutu duenarekin emozionaturik bueltatu da Arizkunen sortutako emakumea, 121 urte beranduago

AITOR AROTZENA BAZTAN

Arizkunen sortutako Maite Goizueta Iabenek apirilean egin zuen Euskal Herritik Ameriketako Estatu Batuetara bidaiara, Azpilkuetan sortutako bere aitatxi Miguel Yaben Elizondoren gibeletik. Deus gutti zekien bere aitatxiari buruz, gazte zela hil baitzen, 1940an.

AEBn bizi den Begoña Pecharroman Ferrer lagunak eman zion New York hirian, Askatasunaren Estatua famatuaren ondoan dagoen Ellis Island uhartearen berri. Eta han dagoen museoan topatutakoarekin hunkiturik eta emozionaturik bueltatu da Maite Goizueta. Horregatik, «normalean eskertzak bukaerarako uzten badira ere, hasiera-hasieratik eskerrak eman nahi dizkiot Begoña Pecharroman antropologa eta lagun handiari, bera izan baita honetara bultzatu nauena».

Izan ere, Ellis Islandeko museoan jakin du Miguel Yaben 1902an ailegatu zela Ameriketara Frantziako Le Havre portuan Compagnie General Transatlantique konpainiako 'La Champagne' itsasontzia hartu eta urriaren 25ean iritsi zen Ellis Islandera, San Frantzisko helmuga zuela, bertan artzain aritzeko. Maite Goizueta bilobak dioenez, «121 urte geroago gure aitatxi zena bila joan naiz eta etxeratu eta familian da berriro. Guk bagenekien aitatxi Ame-

riketan izan zela artzain, baina ez genekien noiz joan zen, nola joan zen, nora... eta harriarria bada ere, horren guz-

tiaren berri ikasi dut orain, 121 urte beranduago, non eta Ellis Islanden. Oraindik emozionaturik nago».



Maite Goizueta bere aitatxi 121 urte lehenago egon zen Ellis Islandeko aretoan.

«NOLABAIT AITATXI BERRIZ ETXERATU DUGU, FAMILIAN DA BERRIRO»

«PASAPORTEAN 'SPANISH' BAINA TALDEAN 'BASK' ZIRELA AGERI DA»

Hamar baztandar transatlantiko berean

Baina Miguel Yaben ez zen bakarrik joan. Europatik Ameriketarako ametsa bete nahi zuten Europako ehunka etorkinen artean, Baztandik bertze bederatzi lagun ere joan ziren trasatlantiko berean, *List or manifest of alien immigrants for the Commissioner of immigration* zerrendan ageri denez: Gartzaingo Angel Iri-goyen, Azpilkuetako Martin Gortari, Arizkungo Martin Sanzberro, Jose Arriada eta Alejandro Iparrea, Erratzuko Jose Elorga eta Miguel Yaben bera bezala, Amaiurretik (*Villa de Maya* ageri da Ellis Islandeko agirian) joandako Pedro Goyeneche, Manuel Irungaray eta Domingo Yaben. Guztiak 18 eta 21 urte arteko gazte ezkongabeak ziren, Guztiek San Frantzisko zuten helmuga, batek izan ezik. Alejandro Iparrea arizkundarrak Fresnora (Kalifornia) joan behar baitzuen. Denek, batek izan ezik, irakurtzen eta idazten bazekiten. Denei 'Nacionality' atalean *Spanish* agertzen zaie baina bertze atal batean, 'Group' delakoan, *Bask*. Dena bildua da aipatutako agiri horretan. Maite Goizuetak dioenez bezala, «baten bila joan eta hamarrekin etorri naiz!».

Ideia bat egiteko, baztandar hauek ailegatu zirenean Geronimo, apatheen buruzagi handia bizi zen oraindik, eta gerora, mafiarengatik ezagun egin zen Vito Corleone, urtebete lehenago ailegatu zen Italiatik leku berera.

Informazio hau guztia Ellis Islanden dagoen museoan topatu du Maite Goizuetak, «gizateriaren historian migrazio handienaren berri jasotzen duen museoan. Egunero 3.000-5.000 lagun iristen ziren Ellis Islandera, guztira 12 milioi iritsi ziren, baina 65 milioi lagun datuak dituzte jasota, denak digitalizatuta. Gehienak Europatik joan ziren, baina mundu osoko milioika jende, uharte horretatik pa-

satu dira. Hura ikusten duzunean horrek zer dimentsio duen ohartzen zara. Kontuan hartu behar da itsasontzieta-ko hirugarren klaseko bidaiariak bakarrik jaisten zirela Ellis Islanden. Lehen klasekoak ere baziren, noski, baina horiek zuzenean New Yorken jaisten ziren, arazorik gabe. Jende aberatsa zen, diruduna... ez zuten hortik pasatzeko beharrik. Hori azpimarratu egiten dute, hirugarren mailako bidaiariei zuzendutako museoa da. Klaseak beti esistitu dira».

Gaur egun, AEBn bizi diren ehunen bat milioi biztanle Ellis Island uhartetik igaro ziren etorkinen ondorengoak direla kalkulatu dute. «Bertatik pasa ziren Albert Einstein, Walt Disney, Charles Chaplin, Johny Weissmuller, Bob Hope, Vito Corleone, Frida Kahlo, gerora AEBko presidente izan ziren Theodore Roosevelt eta Herbert Hoover, Sigmund Freud, Isaac Asimov, Houdini magoa... edo Bruce Springsteen abeslariaren arbasoak eta bertze hainbat».

Itxaropenaren uhartea eta, aldi berean, malkoen uhartea
Historia honetako hamar baztandarek bezala, Ellis Islanden lurra hartzen zuten etorkin guztiek lehen-lehenik osasun azterketa gainditu behar izan zuten. Gainditzen ez zutenen dako ospitalea bazen bertan. Eta gero, azterketa administratiboa gainditu behar zuten, 34 galderei erantzunez: izen-abizenak, adina, nazionalitatea, lanbidea, ezkondua ala ezkongabea zen, dirua bazeraman edo ez (guttieneko diru-kopuru bat, 25 dolar eramatea nahitaezkoa zen), irakurtzen-idazten ba ote zekien, norat zihoan, poligamoa, komunista, anarkista edo espetxean inoiz egona ote zen, bidaiari norberak ordaindua edo norbaitek ordaindua zen, edo lan-kontraturik ba ote zuen... Maite Goizuetak dioenez, «harrigarria badirudi ere, 1885ean AEBko kongresuak



Maite Goizueta bere aitatzik Ameriketara ateratako erretratoarekin. AITOR AROTZENA

onartutako lege baten arabera, lan-kontraturik gabe joan behar zen. Bazenuela erranez gero, deportatu egiten zuten. Arrazoa: ez zuten onartzen bertakoeilanpostuak kentzea». Galdera guztiei «ongi» erantzunez gero AEBn sartzeko baimenajasoak zuten etorkinak, liburuxka batekin batera, *Es-kubideak eta Betebeharrak* zeintzun ziren jakin zezen. Kontrakoa gertatzen bazen, hau da, galdetegi gainditzen ez bazuen, etorkina atxilotu egiten zuten eta ikerketa abiatzen zuten. % 2ak (250.000 lagun inguru) ez zuen lortu sartzeko eta deportatu egin zuten. 3.000 etorkin inguruk bere burua hil zuten, deportatuak izanzen zirela jakin zu-

tenean. «Itsasontzi Konpainiek eta AEBko gobernuak hitzarmena bazuten, deportatuak, "balio ez zutenak", bere abiapuntura itzultzeko adostua zuten. Horregatik, itsasontzieta-ko arduradunak ziren AEBra joateko lehenengo filtroa egiten zutenak». Honengatik guztiagatik, *Island of hope, island of tears* (Itxaropenaren uhartea, malkoen uhartea) izenarekin ere bataiatu zuten Ellis Island. Bada Ellis Islandi buruzko kanta irlandar bat ere, arras tristea: negarra, malkoak, herrimina...

Ellis Islanden bildutako datuak 1887ko udaz geroztikoak dira. Lehengo eraikina dena zurezkoa zen eta sute batek erre zuen, bere baitan zituen

dokumentuekin batera. Berri bat eraiki zuten, gaur egun dagoena, «baina New Yorkeko metroa eraikitzeke kentzen zuten lurarekin bertze irla artifizial bat ere eraiki behar izan zuten, ailegatzen zen etorkin kopuru handia artatu ahal izateko. 1954ko azaroaren 12an utzi zion irlak etorkinen harrera-zentro izateari, ordu-rako etorkin gehienek hegazkina erabiltzen baitzuten.

Ellis Islanden topa daitekeena egiazko altxorra dela uste du Maite Goizuetak, «ez bakarrik niretzat edo nire familiarentzat, Euskal Herri osoarentzat eta mundu osoarentzat baizik».

Euskal artzainen lehen belaunaldiaren lekukotza


Izan ere, Goizuetaren erranean, oraindik ezezagun diren euskal artzain amerikanoen lehen belaunaldiaren lekukotza da. «Zorionez-dio-, hemen lan handia egiten ari da Euskal Artzainak Ameriketara →

«OSASUN AZTERKETA ETA GALDEKETA BETE BEHAR ZUTEN»

«FILTROA GAINDITU EZ ZUTEN 3.000 ETORKINEK BERE BURUA HIL ZUTEN»

→ elkartea, artzainen bilkura egiten dute, besta, liburuak, datu-basea... Hori zoragarria eta beharrezko da, aitortza bat zor diegulako. Euskal Herritik joan, lan egin zuten, euskaldunon izena han utzi zuten, familiak... Baina, noski, gehien gehienak 1950. hamarkadatik honuntzako artzainak dira, hurbilagoak ditugu, senideak gertuago. Baina lehenagokoak ere baditugu, XIX. mendean jaiotakoak, pentsa! Nire aita-xi ere artzain joan zen, baina beraien historia ez da ezaguna, denbora aunitz joan delako. Horiei buruz ia deus ez dakigu. Horregatik, hunkituta nago, aitaxiren bila joan eta aitaxirekin batera hamar artzain baztandarren historia zati bat ekarri dudalako. Ez zen aitaxi bakarrik joan, hamarrek talde bat joan zen elkarrekin. Guk ez genekien nondik abiatu zen, nola, noiz ailegatu zen. Orain badakigu: Frantziako Le Havreko portutik atera ziren hamarrak 'La Champagne' transatlantikoan... 1902ko urriaren 25ean ailegatu ziren Ellis Islandera...». Eta hortik abiatuta, familiari buruzko datu gehiago ere lortu ditu Maite Goizuetak, Baztango Bake Epaitegira egindako harat-honaten ondotik. «Hainbat urte lanean ibili eta gero bueltatu zen, etxea erosi zuen Arizkunen, 1922ko urtarrilaren 4an ezkondu zen Maria Petra Juanikotena leka-roztarrarekin, lau alaba izan zituen, Eleuteria, Emiliana, Juanita (gure ama zena) eta Crispina, eta 1940ko uztailearen 26an hil zen Arizkunen. Bake Epaitegiko bi langileak ere eskertu nahi nituzke, beti laguntzeko prest izan baitira eta zoragarri portatu dira».

Informazio guztiarekin pozik dago, «ez bakarrik gure familiarena, baita bertze bederatzi baztandarrena ere. Baina ez da aberasgarria guretzat bakarrik, euskaldun guztiontzat baizik, gure historiaren zati bat baita eta seguru nago Ellis Islandeko



Hamar baztandarren eta itsasontzi berean ailegatutako bertze hainbaten datuak biltzen dituen agiria.



Miguel Yaben eta Maria Petra Juanikotena senar-emazteak.

**«DOKUMENTAZIO
GUZTIA GORDE
DUTE ETA HORI
MIRESTEKOA DA»**

**«1950TIK HONAT
HEGAZKINEZ
JOATEN HASI ZIREN
AMERIKETARA»**

museoan eta datu-basean, denborarekin, bertze hainbat datu eskura daitezkeela. Jakin dute dokumentu guztiak gordetzen, ez dituzte bota edo erre. Hori mirestekoa da».

1954an itxi zuten Ellis Island

Munduko lehenengo guda edo gerra handiaren garaian eta ondotik europar guttiago joan zen Ameriketara. Europako populazioa ere oraingoa baino tikiagoa zen garai hartan. Bigarren Mundu Gerra ere iritsi zen. Horrek ekarri zuen transatlantikoaren gainbehera eta jendea hegazkinez mugitzen hasi zen. Honela, 1892. urtetik zabalik zen Ellis Islandeko 'Aduana' 1954ko azaroaren 12an itxi zuten.

«Euskal artzainen bigarren belaunaldia ailegatu zen orduan –dio Maite Goizuetak–, 1950. hamarkadatik honat, horiek hegazkinez joan ziren Ameriketara, kontrol gehiagorekin eta horien artean zegoen gure aita zena ere, Goizuetan sortutako Jaime Goizueta Perurena. 1961. urtean joan zen artzain, Ana Mari Marinen bidez... Bertze senide batzuk Argentinara ere joan ziren. Baina hori bertze historia bat da. Horri buruz gehiago badakigu».

«Euskaldunak beti diskretuak izan gara, baina ezin dugu historia galtzen utzi»

MAITE GOIZUETA IABEN ARIZKUNDARRA

XX. mendeko itsas-bidaia hura ez zen xamurra izan...

Ikusi behar da zein baldintzetan joaten ziren hirugarren mailako bidaiari horiek itsasontzietan: masifikazioa, osasun baldintza txarrak, garbitasun eskasa... Gehiengoa horrela joaten zen. Osasun eta administrazio kontrolen ondotik, Estatu Batuetan sartzeko beharrezkoa zuten gutxieneko diru kopuru bat eramatea gainean, 25-30 dolar, bertzela ez ziren sartzen. Lan-kontratu batekin joaten ziren edo ez ere galdetzen zieten. Kontrakoa badirudi ere, arras garrantzitsua zen ezetz erantzutea, ez zutela lan kontratutik. Zergatik? AEBko kongresuak 1885ean onartutako lege baten arabera, non erraten zuen etorkinek lan kontraturik gabe etorri behar zutela, lan kontratuarekin bertakoei lana kentzen zirela (baldintza hau denborarekin aldatzen). Nonbait despistatu eta lan kontratua zenuela erantzuten bazuten, automatikoki deportatzen zuten, ez zen sartzen.

Behin Ellis Islandera ailegatuta, zer egin behar da nahi duzun informazioa kontsultatzeko?

Ordenagailuz betetako gela handi bat dute. Zer gertatzen da? Ni bezala, mundu osoetik joaten dela jendea bere arbasoen datuen berri izatera eta begiratzerara. Orduan, hogeita minutuko tarte baterako hamar dolar ordaindu behar duzu. Denbora horretan kontsultatu dezakezu datu-basea, eta gero agiriaren kopia eskatu, egiazkotasun ziurtagiri bat ere egiten dizute... Bere logika badu, jende aunitz etortzen bada, eta deus ordaindu gabe orduak eta orduak pasatzen badu... Zoritzarrez



AITOR AROTZENA

horrelakoak gara eta horrelako neurriak hartu behar dira. Berte zalantza izaten da, nola izanen dituzte gordeak gure aitaxiren datuak? Zeren guk bi abizenak erabiltzen ditugu, baina han bakarra. Hor denbora pasatzen da. Pasaportean *Spanish* jarri arren, berte atal bakean *Bask* jartzen dute. Beraz, nonbait beraiek euskaldunen taldean jarri zituzten, denborarekin konturatzen zara handik ekarri duzun altxorraz. Zerbait topa nezakeela banekien, Begoña Pecharroman lagun handi honi esker, baina uste nuena baino anitz gehiago topatu dut. **Aitaxirena ez ezik, hainbat baztandarren eta bertze euskaldunen berri topa daiteke...**

Gure historia da, euskaldun guztion historia. Datu gehiago biltzen baditugu, euskal artzain edo etorkin gehiagoren izen-abizenak, Euskal Herriaren historia osatzen ari gara. Ameriketara artzain joandakoak, Alpetara mendilantetara joandakoak... hori da gure historiaren zati bat. Euskaldunak ere emigranteak izan gara, baina beti diskretuak izan gara, zintzoak, isilik, eskandalurik ez sortu, lan egin eta kitto. Baina leku aunitzetan egon

gara, parte hartu dugu, eta diskrezio horrengatik haien lekukotzaren zati handi bat galdu dugu. Hori ez badugu berreskuratzen, Euskal Herriaren eta euskaldunen historiaren zati bat ere galduko dugu eta gu hori ere bagara. Hau oinarri bat da. 1950etik honateko artzainekin eta lan handia egiten ari da, baina hauek beraien aitzindariak izan ziren, mende erdi bat lehenago Ameriketara joan ziren XIX. mendeko euskaldunak ziren.

Hauetaz baina, deus gutti dakigu...

Denbora behar da, baina hauen historia gehiago ezagutzeko gero, ikuspegi orokorragoa izanen genukeela. Hauei buruz ez dut deus ikusi eta irakurri. Hain aberatsa eta ederra da. Hau dena ulertzeko garai hartan kokatu behar dugu gure burua: Bidaia hau migrante haien bizitzako ametsa betetzea zen, aunitzek dena saldu zuten harat

«BEHARRAREN BIDAIA ZEN, BIZI BERRI BAT HASTEKO BIDAIA»

joateko txartela erosteko, ez zen plazerrezko bidaia, beharrezko bidaia zen, bizi berri bat hasteko bidaia. Harat iritsi eta ezin zutela sartu aditzeko arriskua ere bazuten. Ameriketara sartu ahal izateko irla hartara ailegatu, osasun kontrola, galdetuta, gehien gehienek ez zekien ingelesez, ez zuen deus ulertzen, itzultzaileak beharko zituzten, pentsa gaztelaniaz nekez jakinen zuten euskaldunak... Hamar baztandar hauek bederen, denak sartu ziren.

Zuk topatu duzun agiri horretako baztandarren ondokoekin harremanik izan duzu?

Gustatuko litzaidake zerrenda horretan ageri diren baztandarren ondorengoek ere historia hau ezagutzeko, seguru nago ez dutela horren berririk, eta zergatik ez, elkar ezagutzeko, hori mundiala izanen litzateke. Jakin-min hori piztea nahiko nuke. Imajinatu horietako bakoitzaren argazki bat lortzen dugula, datuak... Zeinen polita izanen litzatekeen! Euskal artzainen ziklo hori osatzea izanen litzateke, hasierako artzain aitzindari horiek zein izan ziren, noiz joan ziren, norat... jakitea. Hau ez da nire historia, nire aitaxiren edo nire familiaren historia bakarrik, hau guztion historia da. Hau dena ezagutzeko eta aitzinera eramateko denbora behar da, denbora eta gogoia. Baina oinarri bat bada. 65 milioi pertsonen datuak dituzte Ellis Islanden eta euskaldunak ere hor gaude. Euskaldunen historia sakabanatuta dago: artzainak, baleazaleak, mendigizonak, espartinak egiten ibili ziren ainarak, neskatoak, Irulegiko eskua, arkeologiako lanak, antropologia, Itsasgizonak, mehatzariak... Hau guztia eta gehiago jasoko duen Artxibo/Zentru/Gune edo dena delakoa, bateratu eta bakarra sortu beharko genuke, euskaldunen historia orokorra leku bakar batean batzeko. Ezina, ekin ez gina.

Zigako eskola ekainean hetsiko dute

Sei ikaslerekin hasi dute ikasturtea Zigako eskolan. Aurtengoa azkena izanen dute, ekainean hetsiko baitituzte ateak. Eskola maparen arabera, ikasleek Elizondoko eskolara joan beharko lukete, baina guraso gehienek beraien seme-alabek Baztango eskola ttikiren batean segitzea nahi dute

G. PIKABEA ZIGA

Euskal musika doinuak aditu bidenabar, bakoitza bere aulkian jarrita lanean harrapatu ditugu Aroa Azkarate Elizegi (Aniz, 9 urte), Inar Alzuguren Barbarena (Zigaurre, 8 urte), Ainara Barberena Gamio (Zigaurre, 8 urte), June Mendiburu Petirena (Ziga, 8 urte), Maren Ibarra Gaskue (Ziga, 7 urte) eta Udane Barberena Gamio (Zigaurre, 3 urte betetzear). Lasai-lasai daude, goxo-goxo. Leire Onsalo Danboriena irakaslea dute ondoan, zerbait galdegiten dioten aldiro erantzuteko prest, laguntzeko prest. Horixe izan da Zigako eskolara hurbildutakoan ikusitako lehenbiziko irudia. Herri erdi-erdian dute eskola, frontoi ttiki bat ondoan, eta parkea aitzinean. Ikasturte hasmeta izanda oraino diferentia den deus sumatzen ez bada ere, aurtengo ikasturtea berezia izanen da, hondarrekoa izanen baitute.

Duela 17 urte berritua

Hiru solairuko eraikina da. Beheitiko gelan Onsalo irakaslea eta sei ikasleak dauden bitartean, goitikoan Maite Oteitza Apezetxea eskolako zuzendariarekin bildu da ТТИПИ-ТТАПА. Hirugarren solairuan, berriz, salto gela dute, eta aldi berean, herriko batzartokia.

Oteitzak ezaguna du eskolako martxa, aurtengoa hamazazpigarren ikasturtea baitu Zigan, hamazpigarrena eta azkena. Zigara ailegatu zen urtean inauguratu zuten eskola berritua: «Garai batean nesken eta mutikoen eskola izan zen. Eskolak beheitian ematen zi-

tuzten eta goian maisu-maisuraren etxebizitza izaten zen. Ez zituzten mantentze lanak egiten eta 2005eko otsailean eskolako sabaiaren zati bat erori zen». Zorionez, ez zegoen inor barnean.

«Osorik berritu zuten, eta obrakiraun zuen bitartean hasmentan Elizondoko eskolan eta ondotik Zigako apezaren etxean ibili ziren ikasleak». 2006-2007 ikasturtea hasterako inauguratu zuten eraikin berritua, «ni honat etorri nintzen urtean», dio Oteitzak. Aitzinetik «Berako


Ricardo Baroja eskolan, Leitzaiko Erleta eskolan, Iruñeko Sanduzelai eta Iturengo Pulunpa eskoletan egin nituen ordezkapenak». Etxe ingurura hurbildu zelarik, «lehenbizi Amaiurren bi ikasturte egin nituen, Zugarramurdin bertze bi eta Azpilkuetan lau. Geroztik Zigan aritu naiz».

Urtetik urtera beheiti

Urteak joan eta urteak etorri, «poliki-poliki» ikasle kopuruak izan duen beheititzearen lekuko izan da Oteitza. Bera hasi



Eskola berritu ondotik, 2007ko otsailean inauguratu zuten. Ordukoa da argazkia.



zen ikasturtean, erraterako, 20 ikasle zituzten, zazpi Haur Hezkuntzan eta hamahiru Lehen Hezkuntzan. Esplikatu duenez, «22-24 ikasle ere izan ditugu, baina urtetik urtera beheititzen joan da. Lehen bi gela izaten genituen; beheitiko gelan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehendabiziko zikloko ikasleak egoten ziren eta goitiko gelan bigarren eta hirugarren ziklokoak». Gaur egun, ordea, sei ikasle baino ez dituzte: «hiru urteko bat, bigarren mailan bertze bat, hirugarren mailan hiru eta laugarren mailan bat, eta denak gela berean biltzen dira».

Adin tarte zabalean dituzte ikasleak, «hiru urtetik zazpi urtetara ez dugu inor», eta aitortu duenez, «hori genuen ikasturte honetako erronka. Hasmentan klaseak modu batera pentsatu genituen, baina ikasleekin hasi ginenean, dena aldatu behar izan genuen». Gainerakoan, «irakasle espezialistak ahalik eta gutien etortzen» saiatu direla kontatu du: «Baztango eta Urdazubi-Zugarramurdiko herri ttiketako eskoletako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleak asteazkenetan Iruritako Erreboto eskolan biltzen dira, eta han, kurtsoka sailkatuta gorputz hezkuntza, musika, ingelesa, erlijioa eta balio sozialak ematen dituzte. Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak gainerakoak asteazkenetan Almanozko eskolakoekin elkartzen dira, han gorputz hezkuntza, ingelesa, musika, balio sozialak eta erlijioa emateko. Hartara gorputz hezkuntzako eta musikako espezialistak ez dira etortzen, eta gure eskolan irakasleak bere modura antolatzen ahal du lana, mozketarik gabe».

Hurbiltasuna

Urte batzuk pasatu dituzte Haur Hezkuntzarik gabe, eta batez ere, hainbertzeko adin tartea duten ikaslerik gabe, eta hortaz, «ikasten» ari direla aipatu du zuzendariak. Baina aski garbi du eskola ttikia eta handia ba-



Aroa, Ainara, June, Inar, Maren eta Udane ikasleak Leire Onsalo eta Maite Oteitza irakasleekin Zigako eskola aitzineko parkean. TTIPI-TTAPA

lantza batean paratuta zeinen alde eginen lukeen apustua: «dudarik gabe, landa eremuko eskola tükien aldekoa naiz». Eta horren arrazoiak aipatzen hasita, «hurbiltasuna eta familia giroa» nabarmendu ditu: «Aunitzetan hurrek 'ama' erran izan digute, eta nik 'zer semetxo edo alabatxo?' kontestatu. Familia giro hori sortu dugu eskolan, eta familiekin dugun tratua ere haundia da, hurbila. Bere garaian, errekreio denboran gurasoekin kafea hartzera ere joaten ginen». Iruritarra da Oteitza, baina Zigan «herriko bat gehiagoko bezala» sentitu izan da.

Patio orduan ere agerian gelditu da haurren eta irakasleen arteko konplizitatea, karta jokoa, parkean... denak elkarre-

kin baitabilta. Are gehiago, ikasleek beraiek onartu dute «Maite eta Leirerekin ongi» daudela, eta «pena» sentitzen dutela eskola hetsiko dutela eta. Heldu den ikasturtean batzuk Elizondoko eskolara eta bertzeak Iruritarra joanen direla erran dute, baina oraingoz, ez dute presarik: «Ez dugu bertze eskolara joateko gogorik, hemen ongi gaude».

Eskola mapa aldatzeko eskaera

Eskola maparen arabera, «herrietan ez badago eskolarik, oinarrizko eskualdeko zentroa Elizondoko eskola da. Familiek harat joateko garraio eta jangela zerbitzuetarako dirulaguntza izanen lukete». Zigako eskolako familia gehienek, ordea,

bertzelako bidea hartu nahi dute: «Elizondora joan beharrean, seme-alabak herri tiki bateko eskolara joatea nahi dute. Hori aldatzeko eskaera udalak egin behar du eta udalaren bitartez, eskola mapa aldatzeko eskatu dute. Beraien eskola Iruritakoa izatea nahi dute. Orain, beraz, eskola mapa horren aldaketaren esperoan gaude». Alde horretatik, Oteitzak Baztango Udalaren jarrera txalotu du: «udalaren aldetik bada

interesa, bai udal honen aldetik, gai honi buruz mintzatzeko Hezkuntza Departamentuarekin bildu baita, baita aitzineko udalaren aldetik ere. Aitzineko agintaldian, udala Berroetatik Zigako eskolara ikasleak garraiatzeko taxi zerbitzua paratzeko prest zegoen. Proposamenak ez zuen aitzinera egin, baina udalak 7.500 euroko aurrekontua aurreikusia zuen ikasturte guztiko taxia ordaintzeko. Oraingo udala ere lanean ari da, familiek eskatu bezala, haurrak Iruritako eskolara joan daitezen eta hori ere aipatu behar da».

13 eskola gutiago eskualdean

Ekainean hetsiko ditu atek Zigako eskolak, baina →

«JENDEA KANPORA DOA ETA HERRIAK HILTZEN ARI DIRA»

MAITE OTEITZA, ZIGAKO ESKOLA

«Zigako eskola hestea despopulazioaren ondorio garbia da»

MIRIAN BARBERENA IBARRA, IÑIGO ALZUGUREN ARNIS ETA INAR ALZUGUREN BARBERENA ZIGAKO FAMILIA

«Eskolako egoera aldatu ezean, noizbait hetsiko zutela denok buruan genuen, baina ez genuen espero horren fite izanen zenik». Halaxe aitortu du Mirian Barberena Ibarra gurasoak. Inar seme gazteena Zigako eskolan du, eta zaharrena aurtan institutura joana. Ez ditu atzenduak haurra zela Zigako eskolan izandako «oroitzapen goxoak» eta eskola ttikiak dituzten «alderdi positiboak aunitz» direla dio. «Herri ttikiak zaintzearen beharraz» ere aritu da.

Zein alde on ikusten dizkiozu eskola ttikiak?

Eskola ttikiak alderdi positibo aunitz dituzte. Adin tarte zabalakoak elkarrekin egotea haurraren garapenean arraz inportantea da. Haurrek imitazio bidez ikasten dute eta zaharragoak eredutzat hartzen dituzte hauen-gandik hainbat jokabide ikasteko: ardurak hartzea, errespetua, enpatia... Kontrako noranzkoan ere bada ikaskuntza. Maisu-maistrek eskaintzen duten arreta pertsonalizatua eta indibiduala ikasleendako onuragarria da. Herriko eskolak herriarekiko lotura sortzen du eta hori herriaren etorkizunerako arraz inportantea da. Eskola eta familien arteko harremana arraz hurbila da eta hori esker ikaslearen beharrik hobe-ki asetzen dira, bai eskolan, bai etxean. Eskola ttikiak izateak ez du erran nahi bakarrik lan egiten duenik. Baztango eta Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolek elkarrekin lan egiten dute eta gure seme-alabek bertze herrietako haurrak ezagutzen dituzte, beraien ikuspegia zabalduz.

Eskola herrian izatearen alde onak zein dira?

Eskola batek herriari bizia ematen dio eta herriarekiko lotura



Ezkerretik hasita, Iñigo Alzuguren, Mirian Barberena eta Inar Alzuguren.

handitzen du. Herriarekiko kontzientzia gehiago hartzen da eta horrek herritar aktiboak izatera eramaten du. Gure kasuan, eskolan, Anizko bi familia izan ditugu. Honi esker, gure seme-alabek harremanak zabaldu dituzte eta Anizko herriarekin lotura polita egin dute. Beraz, eskola ez da edukializazioarako bide paregabea da.

Nola hartu duzue berria?

Egoera aldatu ezean, eskola noizbait hetsiko zutela denok buruan genuen. Halere, ez genuen espero horren fite izanen zenik. Hortaz, hetsi behar zutela jakin genuenean informazio bila eta bilerak egiten hasi ginen. Eskolako zuzendariarekin, ikuskariarekin, hezkuntza zinegotziarekin eta bertze eskola bateko zuzendaritza taldearekin bildu gara. Ikasturte hau berezia eta gogorra izanen da, egoera onartu behar dugulako eta ondotik dolu prozesua bizi beharko dugulako. Ez da xamurra izanen, egunero, gure eskolako pertsonak hetsiak ikustea!

Zein ondorio ekarriko ditu herrian eskola hestea?

Zigako eskola hestea despopulazioaren ondorio garbia da.

Azken urteotan herrian bizitzen gazte guti gelditu dira. Orain arte eskola mantentzea lortu badugu, bertan gelditu garen eta Anizko bi familiari esker izan da. Zigako etorkizuna ez dut beltza ikusi nahi, pentsatu nahi dudalako egoera hobetuko dela. Aunitzetan, herri ttiki hauetan bizitzen gelditzeko erraztasunak baino gehiago izaten dira ozto-poak: lana dela eta; administrazioaren aldetik etxe zaharrak berritzeko egin behar den alderdi burokratiko guztia... Horrek aldatu behar du, bertze eskualdeko herri ttikiak desagertzen joateko arrisku handia dago.

Heldu den urtean nora emanen duzue semea?

Gure semearen hezkuntza prozesua D ereduan eta Baztango eskola ttiki batean izatea nahi dugu. Hortaz, orain aukerarik hoberena zein den baloratuko dugu, beti ere gure semearen iritzia kontuan hartuz.

Aldaketa izanen da zuen semearendako?

Bai, dudarik gabe: ez da bere herrian eta bere herriko eskolan egonen, lagun berriak eginen ditu... Halere, semeak hasmentatik badaki zein izan den eskolaren egoera. Aunitz solastatu gara gaiaz eta ideia batzuk

garbi adierazi dizkigu. Elkarren ondoan egonen gara elkarri babesa emateko.

Zigako eskolan ibilia zara?

Bai, ni ere Zigako eskolan ibilitakoa naiz, baita nire anaiak eta ahizpa ere, edozein zigatar bezala. Oroitzapen politak ditut: maisu-maistrenak; Iruritako, Berroetako eta Almandozko eskolatan egiten genituen tailerrenak; irteera eta kanpaldietakoak; orakunde egunekoa; Etxezurin maisu-maistrek bazkaltzen genuenekoa; bazkal ondoko tartetxoa eskolan egoten ginenekoa; errekreoetako jostetena; eskolako estufarena; eskolaren berritzearena... Arraz gustura egon nintzen eskolan.

Nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?

Ez dut etorkizuna beltza ikusi nahi. Zigako herriak potentzial handia dauka eta bizitzeko herri zoragarria da. Herria bertan bizi garenok egiten dugu eta Zigan jende inplikatu, parte hartzailea, langilea eta zoragarria dago. Denon artean Zigako herriari bizia ematea lortzen dugu. Herri ttikiak izateak ez du erran nahi herria hilik dagoenik.

Zerbaiz gaineratuko zenuke?

Herri ttikiak zaindu behar ditugu eta zaintzeko herritarrek ezinbertzekoak gara. Hala ere, laguntza administratiboa (udalarena, gobernuarena...) ezinbertzekoa da eta horretarako eskualde bakoitzaren errealitatea kontuan hartu behar da eta tokian tokiko legeak ezarri. Alderdi honetan lan handia dago egiteko, baina esperantza ez dugu galduko. Momentuz, Baztango Basaburuan Almandozko eskola bakarrik geldituko zaigu. Urriaren 7an Eskola Ttikien besta bertan ospatuko dugu. Lanean segituko dugu gure haurrei arbasoek utzi digutena emateko eta herria maitatu eta pertsona aktiboak izateko. Akitzeko, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen kanta batekin agurtuko zaituztet: «Eskola txikiak herri eta auzo, geroaren bila, pausorikan pauso!».

→ arriskua aspalditik begiz joa zuen iruritarrek. «Ezaguna» izaten omen zen gelako paretan paratua izaten zuen papera: «Herrian haurdunaldi bat bazela enteratzen nintzenez, marratxo bat paratzen nuen paper horretan, halako ikasturtean ikasleak izanen genituela zehaztuz. Zerrenda hori, ordea, aspaldi akitu zen. Hezkuntza ikuskariak ere bazekien, etortzen zenezan ondoko hiru urtetarako aurreikuspenaren berri galdeztzen baitzigen. Herria beheiti eta beheiti zihola ikusten zen, eta haurrak ez direla sortzen ikusten duzenez, eskola hesteko arriskua ikusten duzu, eta orain hemen gertatu da».

70eko hamarkadaz geroztik, gutienez hamahiru eskola hetsi dituzte eskualdean: Arano (1971), Elbete, Elgorriaga (1973), Gaztelu (1974), Urroz (1974), Oiz (1974), Aniz (1974), Donamaria (1976), Berroeta (1989), Zubieta (1995), Ezkurra (1999), Eratsun (2011) eta Beintza-Labaien (2019). Lekarozkoa, berriz, 1983an hetsi eta 2016an ireki zuten. Ikasle eskasia izan zen horietako batzuk hesteko arrazoia, eta eskualde mailako eskola kontzentrazioak eraiki izana bertze batzuetan.

Hain zuzen, Beintza-Labaiengo kasuaren harira mintzatu da Zigako eskolako zuzendaria. «Orduko ikuskariak Beintza-Labaiengo eskola hesteko erabakia hartu zutenak familiak izan zirela erraten zuen, eta banuen Zigagan halako zerbaite pasatuko zen beldurra». Herrian eskola bat zabalik mantentzeko Nafarroako Gobernuak ezarritako gutieneko haur kopurua bortz ikaslekoa da eta iruritarren hitzetan, «gibeletik ez da haurrik heldu, baina gaur egun daudenek segitu izan balute, bertze urte batzuek segitu izanen luke Zigako eskolak; laugarren mailan dagoenak seigarren mailara arte eginen luke, baita hirugarren mailan daudenek ere».

Herri kontzientzia

Hainbertze urteren ondotik, «pena» sentitzen du eskolak

«Herri ttikietan ere zerbitzuak nahi ditugu»

ARANTXA GAMIO IGOA ZIGAKO ESKOLAKO GURASOA

Bi alaba ditu Arantxa Gamio Igoak Zigako eskolan eta eskola hestearen ondorioak «gurasoek, haurrek eta herriak» sumatuko dituztelakoan dago. Herriaren etorkizuna, eskola ttikien alde onak eta bertze hainbat kontu izan ditu hizpide.

Eskola ttikiek zein alde on dituzte?

Arreta pertsonalizatua, herrian dinamizazioa, hainbat adinetako haurren lagun giroa, hurbiltasuna, bertze herri eskolekin izaten den harremana, hezkuntza komunitateko kideen arteko komunikazioak sortzen duen harremana eta koordinazioa...

Eta eskola herrian izateak?

Herriari ematen dion bizitasuna, zerbitzu publikoak herrietan ere presentzia izatea, herriarekiko atxikimendua...

Zer sentitu duzue eskola hetsiko dela jakinda?

Baso bat ur hotz baten moduan, izoztuak gelditu ginen. Ikuskariarekin izandako bileran aukerak argi eta garbi adierazi zizkigun.

Zein izanen dira ondorioak?

Gurasoek semeen edo alaben eskolatzeari buruz erabakiak hartu behar izan ditugu: ikastetxe aldaketa, ordutegi berriak,

garraioa eta jangela zerbitzuak... Haurrengan ere aldaketa izan da: ikastetxe arrotza, lagun giroa aldatu, bertze ikasleak eta haurrak ezagutu, beldurrak, kezak, ilusioak... Eta herrian hutsunea nabaritutako ditugu.

Heldu den ikasturtean nora joanen dira alabak?

Zerbitzu publiko, euskaldun eta herriko batean gaude eta ahal den neurrian hori mantendu nahi genuke. Aitzitik, eskola mapak zehazten du eskolarik gabeko herriek zein ikastetxeetan izanen dituzten jangela eta garraio zerbitzu bermatuak hezkuntza departamentuaren eskutik. Horrela bada, guri D eredurik ez duen eta, orain arte ez bezala, herri koxkor bateko eskola dago. Horregatik alaben eskolatzean aldaketak izanen ditugu.

Eta zein aldaketa aurreikusi dituzue?

Hainbat aldaketa: ingelesak presentzia handiago hartuko du ikasketetan, ikasgelak maila antolatuak izanen dituzte eta gelan ikasle gehiago izanen dira, etxetik kanpo denbora gehiago egon beharko dute, errepidean gehiago mugitu beharko dute, harreman sarea

zabalduz bertze herrietako ikasleak izanen dituzte...

Nolako etorkizuna du Zigak?

Herri ttikietan zikloak izaten dira, eta orain, Ziga beheraldian dago, edo beheiti joa. Herriar gazteenak 3 urte ditu eta geroztik ez da inor sortu eta epe motzean ez dago inor sortuko den aurreikuspenik. Plaza eta karrak gero eta hutsago eta isilago gelditzen ari dira. Goyti hasteko itxaropena ez dugu galdu beharko. Hala ere, ez dago etxebizitza aukera aunitziki eta guraso izateko adinean dauden gazte aunitzek herria utzi dute. Ea gibeletik datozenak herrian gelditzen diren eta indarberitzen garen.

Zer gaineratuko zenuke?

Eskola mapa dekretu bidez arautua dago, dekretuak eta legeak egin eta aldatzeko eskumena dutenei gai hori berrikustea proposatuko nieke; biztanleriaren, herri ttikietako haur kopuruaren, herrien arteko harremanen, martxan diren herri eskolen eta abarren egoera aintzat hartuz. Tokian tokiko aukerak aztertu eta ahal den neurrian ezohiko neurriak hartzeko prestutasuna behar luke, kontuan izanda egituraketarako arauak behar direla eta agian norbere nahiak bete ezinak direla. Baina bederen aukerak aztertzeko zirrikituak behar genituzke. Herri ttikietan bizitza aukeratu dugunok ere zerbitzu publikoak, hurbilak eta euskaldunak nahi ditugu.

ateak hetsiko dituelako. «Niri bi urte geldituko zaizkit jubilatzeke, eta ez diot bueltarik ematen neure buruari zer egingen dudan ez dakidalako. Pena ematen didana eskola hestea da, Zigak etorkizun grisa duela eta Basaburua motelzen ari dela ikustea». Izan ere, heldu den ikasturtean ikastetxe bakarra izanen dute Baztango Basaburuan: Almandozkoa. Eta ikasturte honetan hamaika ikasle dituzte.

Urteotan herri batzuetan eskolak berriz irekitzeko saiakerak egin dituzte, baina Lekarozen baino ez da gertatu halakorik. Oteitziari «Zigakoa berriz ireki ahal izateko aferak aunitz alda-

tu» behar duela iruditzen zaio: «Kanpoan bizi diren zigatarrek badute herrimina eta asteburuetan eta bakantzetan etortzen dira, baina horrekin ez dugu deus egiten. Gero eta zerbitzu gutiago ditugu herrietan, jendea kanpora mugitzen delako konparazio batera, erosketak egitera, eta herriak hiltzen ari dira». Horregatik azpimarratu nahi izan du «herri kontzientziaren garrantzia. Ez badugu herri kontzientziarik akabo gara».

BAZTANGO BASABURUAN ESKOLA BAKARRA GELDITUKO DA



nafor
PRES
Asociación de la
Prensa Local de Navarra
Nafarroako Tokiko
Prentsaren Elkarte

III. TOKIKO PRENTSA JARDUNALDIAK

CIVICAN, URRIAK 16

Udazken eta neguko moda gehigarria

Udazkenean sartuta, uda agurtzeko garaia heldu zaigu; akde batera utzi galtza motzak, tiranteak eta sandaliak eta ongi etorria eman arropa lodiei eta beroki goxoei.

Denboraldi berrirako prestatu nahi dutenentzako, ezinbertze-koa da azken tendentziak ezagutzea. Joerak urtetik urtera aldatzen dira, beraz, gure armairua berritzeko edo aspaldi erabili ez ditugun arropak ateratzeko une aproposa dugu.

Erosotasuna eta natuñaltasuna

Etxeko ttikienak dira arropa aldaketa gehien behar izaten dutenak; etengabe hazten ari direnez, joan den urteko jantziak ttikiak

izanen dituzte dagoeneko. Arropa berriak aukeratzekoan, erosotasunak behar du nagusi, eta noski, haurraren gustuak errespetatu behar ditugu. Baina horrek ez du erran nahi ezin ditugunik azken tendentziak segitu.

Koloreei dagokienez, basoarekin eta naturarekin lotutako paletak dira jaun eta jabe: berdea, marroia, laranja... udazkeneko koloreak. Batez ere tonu ilunak eta pastelak nagusituko dira.

Honez gain, panazko txaketak eta galtzak modan daude berriz ere; mugimendurako erosoak dira eta berotasuna mantentzen laguntzen dute. Oihal naturalak ere aunitz ikusiko dira; lihoa, kotoi organikoa, artilea...



Belzunegui

1901 etik



Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056



f @amayapicabea

A.P.
Amaya Picabea

Amezti zeharbidea, 6 - Doneztebe
948 450 163 - 647 029 983
amayapicabea@gmail.com

EZAGUTU MARKA BERRIAK!

ese 0 ese

Grace & Mila

juin

VILA

HIKA

Etxez etxeko bidalketak

LARUNBAT
ARRATSALDE TAN
IREKIA



·1922·
Virgilio
CALZADOS OINETAKOAK

Santiago 36
31700 Elizondo (Nav)
948 580 200
www.cabradovirgilio.com

100 urte
años

UDAZKEN
NEGUA
2023



Gertuko dendak:

FANTXIKE

Jaime Urrutia 15, Elizondo

LEITZA KIROLAK

Elbarren 36, Leitza

KOT.eus

Préstatu armairua aurtengo tendentzia berriekin

Joera berriekin kolore, estanpatu, neurri eta estilo berriak izanen dira armairuko jaun eta jabe aurtengo denboraldian.

Klasikoak eta joerá berriak

Udazken honetan *oxblood* gorria izanen da kolore nagusia, baita urre eta zilar kolore metalikoak ere, ukitu dotorea emanen diotenak gure itxurari. Hala ere, ez ditugu alde batera utziko kolore neutroak; grisa, marroia, zuria, beltza, beixa... Kolore hauek ongi konbinatzeko eta ahalik eta probetxu gehien ateratzeko, inportantea da gure azalaren tonua beroa edo hotza den jakitea.

Estanpatuetan udazkeneko klasiko bat bueltan dugu: koadroak. Txaketetan, jertseetan, trajeetan eta gonetan ikusiko da, batez ere XXL neurriko jantzietan. Gorria, grisa eta horia izanen dira kolore aukeratuenak estanpatu hauenetzako.

Hotzari aurre egiteko, *blazer* jakkek dotoretasuna eta erosotasuna emanen dute aurten, eta neurri haundiko jantzien tendentziak eta gabardinek ere modan segituko dute. Hauekin batera gorbatak izanen dira osagarri aukeratuenak, baina ukitu informala eta dibertigarria emateko gure itxurari.

Oinak goxo-goxo

Oinetakoei dagokionez, udazkeneko eta neguko izarrak botak dira; beroak eta erosoak. Aurten bereziki punta zorrotzekoak nagusituko dira: gorpuzkera estilizatzen dute eta altuago ematen laguntzen dute.

Egunerokoan aunitz mugitzen direnentzako dantzari oinetakoak ere modan daude. Moldakorrak dira, estilo aunitzekoak eta edozein egoeretan erabiltzeko aproposak. Satinatutako ehunak dituztenak nagusituko dira batez ere, beltzean, zurian edo arroxan.



Bilduma *Berrria*



2023/2024

UDAZKENA NEGUA

Emakumeentzako, gizonezkoentzako
eta haurrentzako arropa, kirol moda,
osagarriak eta oinetakoak

Dantxarinea · Luzaide · Ibardin · Behobia



Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)
Tel. +34 948 625 130 (Es.)

www.venta-peio.com



Mugikortasuna eraldatzeko hainbat proiektu martxan

Heldu den urtean hasi asmo dituzte Kanttonberri eraberritzeko eta Matzada eta Eztegara lotzeko lanak

A. LARRETXEA

Irailaren 20an egindako bileran, mugikortasunari buruzko hainbat neurri onartu zituen Berako Udalak aho batez.

Alde batetik, trafikoari eta mugikortasunari buruzko ordenantza aldatu zuten herriko aparkalekuei dagokien auzietan. Hori aldatuta, Alkaiagako eta Zalain Zokoko auzotarrei egoiliarren aparkaleku txartela lortzeko eskubidea aitortu diete. Horretarako ezarri dute bi auzo horietako auzotarrek aparkatzeko itsasgarria lortzen ahalko dutela, arrazoi historikoengatik eta gertutasun geografikoengatik. Auzokide horiek 2024 eta 2025 urteetarako baimena berritzeko prozesuan lortuko dute autoan paratu beharreko itsasgarri berdea.

Horrekin batera, urgentziaz onartu zuten Kanttonberri karrikako ur sareak eta zoladura berritzeko proiektua. Proiektu hori Nafarroako Gobernuari aurkeztu zitzaion 2023-2025 urteetarako onar-

tutako Toki Inbertsioen Planaren barrenean, eta gobernuak % 60ko dirulaguntza eman du lan horiek garatzeko.

Erdigunea, eraberritua

Heldu den hilabeteetan hasita, beraz, herriko erdigunea eraldatzeko lanak eginen dituzte. Alde batetik Kanttonberri eraberritzeko lanak eginen dituzte. Bertzetik, Eztegara eta Matzada lotzeko proiektua idatzia eta onartu da, eta Espainiako Gobernuaren aurrekontua partida liberatzeko zain dago lanak hasteko. Gainera, heldu den hilabeteetan hasiko dira Alzateko karrikako ur sareak eta zoladura berritzeko proiektua idazten. Beraz, herriko zerbitzu gehien biltzen dituen eremuan eraldat-

UDALA BIXTUBERA KOOPERATIBAREN BAZKIDE IZANEN DA



Kanttonberri eraldatzeko lanak heldu den urtean eginen dituzte. UTZITAKOIA

keta handia izanen da heldu den hilabeteetan eta urteetan.

Hiru proiektu hauek hirigintza jasangarriko planteamendu batean garatuko dira, eta oinezkoentzako «proiektu lagunkoi» eta trafiko jasangarria uztartuko dituzte. Gainera, proiektu horien bidez uraren kontsumoa murrizten eta euri-uren eta ur beltzen ebakuzioa egoki egingen lagunduko du.

2024an gauzatu asmo dituzten Kanttonberriko eta Matzada eta Eztegara lotzeko proiektuak laster aurkeztuko dituzte herritarren aitzinean, proiektuak erasandako bizilagunek eta Berako biztanle guztiek xehetasunak ezagutu ditzaten.

BixtuBera kooperatiba

Osoko bilkura horretan erabaki zuten Berako udala BixtuBera Energia Berriztagarrien Komunitatearen kooperatiba-sozietate berria sortzeko prozesuan sartzea. Kooperatiba hori irailaren 28an egitekoa zuten batzarraren eratu zuten.

Beraz, udalak amaitutzat eman du martxoan hasi zuten Beran energia komunitate bat eratzeko partaidetza-prozesua. Hemendik aitzinera, kooperatiba berria izango da energia berriztagarrien komunitatearen helburuen arabera proiektuak definitzeaz arduratuko dena, udalaren partaidetzarekin batera.

OINLUR
REFLEXOLOGIA
Bera

Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekutzen ditu.
Gorputzaren funtzionamendu egokiari laguntzen dio.
Immunitate-sistema sendotzen du.
Odol-zirkulazioa aktibatzen du.
Antsietatea gutxitzen du.
Estresa hobetzen du.

+34 623981988
Oinlur
oinlur@yahoo.com

Osatz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Alzate 1 BERA

MARITX

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA



Denera oholtzan 200 lagun baino gehiago egon ziren. UTZITAKOA

'Bidaia' ikuskizunak 200 artista eta 450 ikusle bildu ditu

Labiaga ikastolako ikasle talde batek eta Giltzarri abesbatzako kideek ere hartu dute parte

A. LARRETxea

René Zugarramurdi musikariak sortutako *Bidaia* musika ikuskizuna eman zuten irailaren 23an Beran. Kiroldegiko kantxari antzoki forma eman, eta itxura ederra hartu zuen. 450 lagun bildu ziren ikuskizunaz gozatzeraz, eta 200 artista baino gehiago aritu ziren kantuan eta musika jotzen. «Mundiala, zoragarria, liluragarria...», halaxe deskribatu zuten ikusleek zein antolatzaileek *Bidaia* ikuskizuna.

Hendaiako orkestra, Kanboko Arraga abesbatza, eskualdeko Giltzarri abesbatza,



Ikastolako haurrak kantuan. UTZITAKOA

Irungo Iga abesbatza, Hondarribiko Eskifaia abesbatza, Algortako Biotz alai abesbatza eta Labiaga ikastolako haur talde bat aritu ziren oholtza gainean.

Giro polita izan dute Illekueta auzoko bestetan

Irailaren 16an eta 17an ospatu zituzten Illekueta auzoko bestak. Eguraldi ederra lagun, jende aunitz bildu zen bi egunetan auzotarrek antolatutako ekintzetan. Zozketa ere egin zuten eta 1.162, 1.166 eta 546 zenbakiak izan ziren sarituak.



Gaitariak eta erraldoiak. UTZITAKOA

20 lagun mutil dantzak ikasteko tailerrean

Cultur-Izan programaren barruan eta Nafarroako Gobernuak Kulturako Zuzendaritza Nagusiak antolatuta, Baztango mutil dantzak ikasteko aukera izan zen irailaren 17an. 20 lagun elkartu ziren eta parte hartzaileak «hagitz kontent» gelditu ziren.



Erakustaldia egin zuten iluntzean.

Berako dantzariak Euskal Herriko Dantzari Egunean

Urriaren 7an egingen dute Donostian Euskal Herriko Dantzari eguna eta bertan izanen dira herriko dantzariak eta txistulariak. Nafarroako ordezkariak, tartean Gure Txokoak, Berako makil dantzak dantzatuko dituzte. Ondotik, afaria izanen dute.

Gaita eta atabala ikasteko aukera musika eskolan

Azken urteetan bezala, aurten ere gaita eta atabala jotzen ikasteko aukera izanen da. Larunbat goizetan izanen da ikastaroa 11:00etan musika eskolan eta azaroan hasi eta ekainean bukatuko da. Urriaren 20an bukatuko da izena emateko epea eta 100 euroko prezioa du.

ANSONEA OSTATUKO
I. MUS TXAPELKETA

Urriaren 6tik abenduaren 29ra, ortziraletan, 22:00etan - BERA
*Zehaztu gabeko ortzirale batean izan ezik.

Gehienez **32 bikote** Lau erregetara Bikote bakoitza **20€**
Gutxienez **8 bikote** eta **40 tantora**

Ortziralero lehenbiziko hiru bikoteentzako sariak egonen dira.

*Ortziralero puntuak banatuko zaizkie lehenbiziko 4 bikoteei.

Leguntzaileak:

Abenduaren 29an jokatu da azken solasa eta lortutako puntuen arabera lau sari banatu dira.

Irabazleak

Bigarrenak	800 €
Hirugarrenak	400 €
Lauugarrenak	200 €
	100 €

50. ikasturtea eta eraikin berria prest Tantirumairun

Horiek biak batean ospatzeko egitarau zabala prestatu du ikastolak urriaren 21ean eta bazkarirako txartelak salgai daude

AITOR AROTZENA

Tantirumairu ikastolak 50. Ikasturtea abiatu du aurten eta horrekin batera, Intxaurrenea eraikin berrian ere hasiak dira ikasleak. Horiek biak ospatuz, ospakizuna izanen dute urriaren 21ean. Larunbatean, 11:00etatik 12:00etara Intxaurrenea bisitatzeko aukera emanen dute, 12:00etan ekitaldia eta 14:30ean bazkaria pilotalekuan. Txartelak urriaren 14ra arte salgai daude ikastolako idazkaritzan (08:30-12:00), Oreka nutrizio dendan eta Izarra okindegian. Haurrek

21 euro ordaindu beharko dute eta helduek 43 euro.

'Bikin bat in, bikin bat in...'

«Berriz ere heldugara *birekin* bat egiteko gogoz. 2017an egin genuen Nafarroa Oinezaren ondoren gure ametsa bete dugula ospatu nahi dugu zurekin. Auzolan erraldoia egin genuen, eta eraikin berria, Intxaurrenea, altxatu du ikastolak Otxogorrienearen ondoan. Eta hori, zure laguntzari esker izan da. Baina Tantirumairuk aurten bere 50. ikasturtea hasiko duela ere ospatu nahi dugu.»

Jubilatuek Alfarora bidaia eginen dute urriaren 13an

San Fermin elkarteak Alfarora bidaia antolatu du urriaren 13an. 08:00etan abiatu eta Marqués de Montecierzo upategira bisita eta ardo dastaketa, interpretazio zentrorra eta zikoinen begiratokira bisita eta bazkaria izanen dute. Txartelak hilaren 9ra arte eros daitezke (30 euro).

'Basotik itsasora 2.0' emanaldia hilaren 14an

Nafarroako Antzoki Sarearen *Sendaberri*, *paisaia eszeniko berriak* zirkuituaren barrenean SCNO2 eta Dantzaz taldeek dokumentala eta dantza uzartzen dituen *Basotik itsasora 2.0* emanaldia eskainiko dute urriaren 14an, larunbatean 19:00etan HARRIONDOAN.



AINHOA LARRETxea

Ikasketa beka hartu du Nerea Ordokik

Nerea Ordoki Etxepetelekuk lortu du Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuak egiteko beka eta irailaren 19an aurkeztu zuen herriko etxean *Haur Hezkuntzako kanpo espazioak ebaluatzeko irizpideak eta horiek birplanteatzeko estrategiak, material natural eta berriztagarrien bitartez* lana.



UTZITAKOA

Luciano Mitxelena garaile Galdakaon

Transbidasoa-Inurrieta taldeko Luciano Mitxelenak master 60 kategorian garaipena lortu zuen irailaren 16an Galdakaoko 53. Santi Kurtze Sari Nagusian. Eskoziako Munduko txapelketan hirugarren izan ondotik, Bizkaian sprintean garaitu zuen Elizondoko Francisco Javier Meoki.

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZeko GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Iturruneubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es
@liderahortzklínika

Begiratu noiz dagokizun

UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



BEATRIZ
63 URTE



IZASKUN
64 URTE



CHARRAE
38 URTE



OLMA
40 URTE

35, 40, 45, 50, 55, 60 edo 65 urte badituzu, begiratzeko unea da.
Umetoki-lepoko minbiziari aurrea har dakiok. Begiratu. Zaindu.



Urriaren 15ean ospatuko da Usategietako Igandea

Etxalarko gazteek antolatua, bezperatik hasiko dira ekitaldiak, mus eta patata tortilla txapelketekin

IRUNE ELIZAGOIEN

Urteroko ohiturari segituz, urriko hirugarren igandea Usategietako Igandea izanen da. Baina asteburuari hasiera emateko, Etxalarko gazteen eskutik, urriaren 14an mus eta patata tortilla txapelketa aurreikusituz. 17:00etan emanen zaio hasiera mus txapelketari frontoian eta, horretarako, izen-ematea 16:30etik aitzinera egin beharko da. 19:00etan patata tortilla txapelketa izanen da bi kategoriatan banatuta: 16 urtetik behekoak batetik eta goitikoak bertetik. Hiru laguneko taldeak osatu eta izena emateko aukera izanen da tortilla txapelketaren eguna iritsi arte, Elutsan edo Herriko Ostatuan dauden zerrendetan. Tortilla egiteko beharrezko tresnak norberak ekarri beharko ditu. Tortilla egiteko osagaiak patata, tipula eta arroltzeak. Tortilla apaintzea ere baloratuko du epai-mahaiak. Urriaren 15ean, Usategietako igandearekin, eguraldi ederra izanez gero, goizean, Altxatak talde postua jarriko du Lizaie-

tan. Arratsaldean berriz, ostatua eta bokadiloak eskainiko ditu Altxatak frontoian eta bingoa izanen da 20:00etan. Eguna borobiltzeko, 18:00etatik 21:00etara musika izanen da udalaren eskutik eta Modesto arduratuko da giroa alaitzeaz.

Usategietako denboraldi hasiera eta bisita gidatuak

Urriaren 1ean hasi zen Usategietako sare bidezko uso ehiza tradizionalaren denboraldia. 600 urte baino gehiago dituen tradizio hau ikusteko bisita gidatuak ere martxan dira. Urtero bezala, urriaren 1etik azaroaren 20ra bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan egingen dituzte bisitak. 10:00etan izanen da euskarazko bisita eta 12:00etan gaztelarazkoa. Ordu eta erdi inguruko bisitaren prezioa 5 eurokoa izanen da pertsonako eta haurrentzat (6-12 urte), berriz, 4 eurokoa. Bisitaz gain, ikus-entzunezko bat ikusi eta sareetako behatokia sartzeko aukera ere ianen dute bisitariak.

Benantxio Elizagoien ETBko 'Biba zuek!' saioan

Irailaren 11n grabatu zuten erreportajea Benantxio Elizagoienekin Behekoetxea baserrian eta urriaren 11n emitituko dute ETB1en, *Biba zuek!* saioan, 19:30 aldera, Aritz Ganboa artzainaren atalean.



JOSEBA OLAGARAI



LAURA ELIZAGOIEN

Usategietako tradizioaren besta

Ilunabarrera arte luzatu zen besta Lizarietan. Merkatua, puzgarriak, botaluzte partida, makila botatze txapelketa, 2011ko hitzarmenaren sinadura berrestea (lehen aldiz Xabier Etxarte alkate denetik), bazkaria, Modestoren musika... 260 lagun inguru elkartu ziren bazkarian.



IRUNE ELIZAGOIEN

Urritzokietako bestak arrakastatsu

Aurtengoan ere dozenaka lagun hurbildu zen Urritzokietako bestetara. Eguraldi ederra lagun eta aurreikusitako ekitaldi guztiak arrakastaz beteta (argazkiko herri kirolak, meza, auzo bazkaria, kontzertua...), heldu den urteko besten zain gelditu dira auzotarrak.

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORRIAK
900 446 693 - 948 625 643
mbidasoa@gmail.com

GASOLIOA ETXERA
eramanen dugu

Guztirik eskaintze berezikiak:
24h-ko asistentziarik erregularrak
AMT aurteko zerbitzu dohaiak
Gasolindorriak 24h irekita

Alkaga Industrialdia
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdia
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)

eizmendi anaiak
kizak eta armategia

Arma berri zain bigarren eskukoak salmenta

Eskopeta, ontzi eta ibarretan konponketa

Kartabo eta baloi salmenta

eta abar...

Berria, 19 - 21. AMASA-VILLABONA
Tel. 943 692 623 - 608 844 983



Frontenis txapelketako helduen podiuma eta gaztetxo txapelkunak. UTZITAKOA



Ohi bezala, herriko dantzariak saio ikusgarria egin zuten. OSKAR TXOPERENA

Besten aitzinetik ere ospakizun ugari izan ziren herrian

Bordazabaleko Frantxiska Apeztegiak irabazi zuen XX. gazta lehiaketa, aurkeztutako bederatziz gazten artean

ANA ETA ITZIAR

Hau irakurtzen duzuenetako, sanmigelak ospatuak izanzen ditugu dagoeneko eta, horren seinale, aitzinetik bi asteburuetan ere hainbat ospakizun izan ziren.

Buruilaren 16an Berrizaungo bestak izan ziren eta eguraldiak lagunduta ederki pasatu zuten bertako auzotarrek eta bisitariak. Egitarau zabala zuten egun osoan zehar eta txupinazoaren ondotik, dantzak, bazkaria, joko eta kontzertuekin girotu zuten eguna.

Hurrengo asteburuan berriz, larunbatean (buruilak 23) goi-

zean goiz hasi ziren ekitaldiak herrian.

Plater tiroketa lehiaketa egin zuten ederki aski gosaldutik, eta Gorka Obeso izan zen garaile. Frontenis txapelketaren finalak ere jokatu zituzten. Beñat Telletxea eta Ander Sarasola (gaztetxoaren kategorian) eta Mikel Urtxegi eta Iñigo Telletxea helduetan izan ziren txapelkunak, final ikusgarriak eskainiz gainera.

Arratsaldean mus eta partxis txapelketa jokatu zituzten Baratzondo jubilatuen elkartearen eta Jabier Taberna eta Patxi Loiarde izan ziren garaile mu-

sean eta Aimar Mitxelena eta Eñaut Laka partxisean.

Ilunabarrean, berriz, herriko dantzariak saio ederra eskaini zuten. Denbora bat zerramaten entsaiatzen eta emaitza polita izan zen benetan. Emankizuna eta gero dantzariak luntxa eta afaria izan zuten Estankoan.

XX. Gazta lehiaketa

Igandean ere bazen zer egin. Goizetik girotzen hasteko txistulariek ekin zioten lanari. Hauen ondotik artisau azoka

izan zen frontoian, eta honekin batera, XX. gazta lehiaketa jokatu zen. Bordazabaleko Frantxiska Apeztegiak eraman zuen lehen saria etxera, bigarren saria Antsoneberriko Enkarni Etxeberriak eskuratu zuen eta hirugarrena Argiñen bordako Karmen Larraldekin. Egunari akabaila emateko, kankailu eta buruhandiak eta herriko trikitilari eta panderojole gazteak atera ziren karriketaren barrena eta segidan gazta eta opil dastaketa izan zen trikitilariarekin.



XX. Gazta lehiaketako saridunak, epaimahaikide eta laguntzaileekin. O. TXOPERENA



Partxis eta mus txapelketako finalistak. UTZITAKOA



Eramateko janaria
asteleheneretik ortziratera

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Jon Abrilen 'Isildutako eskuak' liburua hizpide

Idazle beratarrek 'Isildutako eskuak' bere liburua aurkeztuko du urriaren 20an liburutegian

NEREA ALZURI

Urriaren 15a Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, Bortzirietako Berdintasun Batzordeak hitzordu bat antolatu du herrian: Jon Abril Olaetxea idazle beratarrek *Isildutako Eskuak*, *Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian* bere liburua aurkeztuko du urriaren 20an baskulan. 19:00etan liburutegian izanen da.

2021ean lan horrekin Tene Mujika saria irabazi zuen Abrilak eta joan den urtean



Jon Abril beratarra.

argitaratu zuen liburua. Bertan, 1936ko gerra ondoko hamaika lanbidetako hamaia emakumeren istorioak, bizipenak eta oroitzapenak bilduak ditu.



Aurten ere kuadrilla ederra apuntatu da Maria Azpirozekin dantzak ikasteko. M. LARRETXEKA

Eskolaz kanpoko jardueretan aukera zabala aurten ere

N. ALZURI

Ikasturtearekin batera, eskolaz kanpoko hainbat jarduera antolatu dituzte herrian. Lerro hauek idazterakoan bildutako informazioaren arabera, irailean pintura ikastaroa hasi zuten estreinakoz Iciar Mikelperizenarekin. Horrez gain, yoga eta trikitixa eskolak ere martxan

dira. Solfeoa, futbola, dantzak eta bertso eskola, berriz, hila-bete honetan hasiko dira. Pilota eskolari dagokionez, joan den astean bilera egitekoa zuten Ekaitza Elkartean gaiaz solas-tatzeko. Bertzetik, duela bi aste, Bortziriak pilota elkarteko entrenamenduak hasi zituzten eta herriko sei pilotari ari dira.

Nerabezaroko sexualitateaz tailerra asteazken honetan

N. ALZURI

Hilabete honetan, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Man-komunitateak antolatuta, hainbat gairi buruz hausnartzeko, ikasteko eta ezagutza handitzeko solasaldiak eta tailerrak izanen dira eskualdean. Tartean, asteazken ho-

netan, urriaren 4an, Arantzán *Sexualitatea nerabezarokoan* gaia landuko dute Iratxe Arretxea eta Itsaso Bakedano sexologoak gurasoekin. Hitzordua 17:00etan eskolako gimnasioan egin dute. Parte hartzeko aitzinetik izena eman behar zen.



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako lagunak Donostian

Irailaren 25ean Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak Donostian izan ziren. DBHkoak Zientziaren Museora joan ziren eta LHkoak Belodromora zinemaldiaren barrenean filma ikustera. Ondotik, denak elkarrekin hondartzan ibili ziren. Haur Hezkuntzakoek palomita egin eta eskolan pelikula ikusi zuten.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 · Aitzale, 17 · BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Tratamendu gehienak eskuekin egiten ditugu»

ANE EGIZABAL LLATA
FISIOETXEA - LEITZA

2002an ireki zuen Fizioetxea zentroa Ane Egizabalek. Kontsultan «tratamendu gehienak eskuekin egiten ditugu, baina tresnak ere baditugu: INDIBA da aurtengo berritasuna».

Kontsultaz gain, «5P metodoa eta ariketa hipopresiboak egiten ditugu, abdominalak eta zoru pelbikoa indarra hartzeko. Baina K-STRETCH da orain arrakasta handiena duena; muskuluen tentsioak orekatzen ditu, giharren malgutasuna eta mugimendua hobetzen du, gorputzaren jarrera zuzentzen du, amasteko ahalmena hobetzen du... orokorrean egoera fisikoa hobetzen laguntzen du». Gainera, «eskoletan tailerrak ematen ditut, gazteek jarreraren garrantzia ikas dezaten: esertzean, motxila eramatean, mugikorrarekin egotean... txikitatik kontzientzia izan dezaten. Kiroldegian ere ariketa klaseak ematen ditut».



«Jendearen beharrak aldatu ahala soluzio berriak sortu dira»

ANGEL ARRAZTOA GAMIO
ARGIBEL OPTIKA - ELIZONDO

Duela 25 urte ireki zuten Argibel optika Elizondon. «Ematen dugun zerbitzua ez da aunitz aldatu; betaurrekoak, lentillak, eguzkitako antiojoak, audifonoak... baina jendearen beharrak bai, eta horrekin soluzio berriak sortu dira». Gaur egun, «jendea, lehenengo adin berarekin, gazteagoa da. Adinduek bertze bizimodu bat dute; luzeago bizi dira, aktiboagoak dira, Arkupeekin bidaietara joaten dira... eta horrek ikusmena eta entzumena hobe edukitzea eskatzen du». Hori dela eta, deskontu berezia dute Arkupeko kideekin antiojoetan eta audifonoetan, «eta gastatzen duten diruaren zati bat elkarteari ematen diogu haien aktibitateak egin dezaten». Baina gazteen ikusmena zaintzeko beharra ere azpimarratu du; «gailu elektronikoen ondorioa luzera ikusiko den arazo bat da».



«Astero berritasunak sartzen ditut dendan»

MAITE ZOZAI A MARIEZKURRENA
MAITE MODA - DONEZTEBE

15 urtez haurrentzako arropa denda izan ondotik, 2014an ireki zuen Maite Zozaiak Maite Moda Donezteben. «Emakume gazteendako arroparekin hasi nintzen, eta poliki-poliki helduendako arropa eta osagarriak ere sartu ditut, herrian gehien erosten dutenak baitira. Joan den urtean lokal haundilagoa hartu nuen eta orain mutilendako arropa ere saltzen dut». Udazkeneko kanpainarekin dago orain, «eta astero gauza berriak sartzen ditut, herri ttikietan berritasunak ekarri behar baitira». Denda ttikietan, «tratu hurbilagoa eta konfiantza haundiagoa izaten da bezeroarekin». Hala ere, «dendak ixten ari dira eta herriak itzaltzen hasi dira, eta pena da. Jendea beldurrik gabe hurbiltzera animatu nahiko nuke, lasai sartu, atera, ikusi eta probatu».



«Tratu hurbila da denda ttikion armarik hoberena»

MERTXE ANZIZAR IRIARTE
TXINELKA - LESAKA

Duela 22 urte ireki zuen Mertxe Anzizarrek Txinelka zapata-denda Lesakan: «Fabiola zapata-denda zaharra orduantxe itxi zuten, eta nire denda paratzeke aukera ona ikusi nuen». Gizon eta emakume, haur eta heldu, denontzako oinetakoak ditu bertan; «herri batean denetik saldu behar da; zapatak, etxeke zapatilak, kirola egitekoak...». Azaldu duenez, «jendeari etortzen utzi behar zaio, inongo lotsarik gabe begiratzen eta probatzen utzi, eroiera bortxatu gabe. Bezeroen tratu hurbila da denda ttikion arma hoberena». Gainera, «sare sozialek ere aunitz laguntzen dute denda daukaguna erakusten». Zapata-dendaz gain, «duela bi urte arropa-denda ireki genuen. Izaskun ahizpa dago bertan eta emakumeen eta gizonen arropa saltzen dugu».



Ehiza jardunaldiak urriaren 16tik azaroaren 30era

Aurten ere argazki lehiaketa antolatu dute eta urriaren 16tik azaroaren 13ra parte hartzen ahal izanen da

TTIPI-TTAPA

Dastatu ehiza, dastatu Baztan-Bidasoa lelopean, aurten 31. aldiz, Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldiak antolatu ditu Baztan-Bidasoa Turismo Elkar-teak, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Hala, urriaren 16tik 30era Baztan-Bidasoaldeko zortzi jatetxetan ehizari lotutako menu eskaintza zabala dastatzeko aukera izanen da: usoa, basurde azpizuna, oreina, onddoak, udazkeneko fruituak eta barazkiak, etxeko postreak...

Bortzirietan Arantzako Aterpeak (Arantza), Burladajateak (Arantza) eta Pabloenea jateak (Arantza) parte hartuko dute; Malerrekan Donamariako Bentak (Donamaria) eta Tresanea jateak (Ituren). Baztanen, berriz, Urgain jateak (Ornoz-Mugairi), Olari jateak

(Irurita) eta Elbeteko Posada (Elbete) izanen dira.

Horrez gain, *Ehizatu pintxoa* ekimenari ere eutsi diote, eta hainbat jatetxek ehiza pintxoa dastatzeko aukera emanen dute.

Argazki lehiaketa

Ehiza jardunaldi gastronomi-koen ehiza eta udazkeneko produktuen argazki lehiaketa ere martxan paratu dute. Urriaren 16tik azaroaren 13ra egingen dute eta irabazlea azaroaren 15ean jakinaraziko dute.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiek jardunaldi gastronomi-ko hauetako jatetxeren batean dastatutako plateren edo pintxoaren irudiak izan beharko dute. Argazkiak info@baztan-bidasoa.com bidali behar dira. Saria bilagunendako otordua izanen da jardunaldi hauetako parte hartzen duen jatetxeren batean.

Elizondoko ferietako tonbolarako produktuak biltzen hasi da Saharaztan

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Saharaztan taldeak tonbola solidarioa egingen du urriaren 27an eta 28an, Elizondoko ferietan. Helburua *Oporrak bakean* proiektuarekin udan eskualdera etortzen diren haur sahararren bidaien ordaintetarako dirua lortzea izanen da.

Produktuak emateko laguntza eskaera Xareta, Bertizarana, Malerreka, Bortziriki eta Baztanerat egin dute. Zerbait emateko duten komertzio, enpresa eta elkar-teek saharaztan@hotmail.com helbidearen bidez jar



Saharako haurrak. SAHARAZTAN

daitezke harremanetan elkar-tearekin, eta bertako kideak pasatuko dira biltzera. Jakinarazi dutenez, urri erdialdera arte bilduko dituzte produktuak eta ez dute dirurik hartuko.



Pagausoaren eta garrapoaren ilustrazioak. HAIZEAK BIZIRIK

Lurraldearen suntsipena saihesteko Hamaika proiektua abiatu dute

TTIPI-TTAPA

«Begiak irekitzeko ordua da». Hala uste du Irantzu Piquero eta «Lurraldea defendatzeko hamaika arrazoi» daudela iritzita, Hamaika proiektua garatzen hasi da, hainbat kolaboratzailearen laguntzarekin: Matthias Krüger, Mikel Etxaniz, Jose Delicado, Consuelo Delgado... Bortzirietan eta Malerrekan egin nahi dituzten makroproiektu eolikoek «mehatxuak eragiten duen larritasunagatik eta minagatik» hartu dute proiektua esku artean, eta «paisaia honetan bizi den edertasun infinituaren inbentarioa» egin nahi dute: «hegaztiak, intsektuak, zuhaitzak, loreak, pertsonak, etxeak, haizea...». Azaldu dutenez, «dimentsio handiko turbina eolikoek izugarrikeria suntsitzailearen aitzinean ñimiñoena, ikusezina dena» bildu nahi dute. «Dena marraztera goaz. Hurbil izateko, ebats ez diezaguten. Horrela ulertuko dugu ezin dugula galdu».

Hamaika proiektuaren barrenean, bertzeak bertze, hegaztien irudiekin ilustrazio serie bat, Euskal Herriko herritarren testigantzen bilketa, Euskal Herri

osoko hamaika irudigileren lanekin erakusketa ibiltaria, solasaldiak eta haurrentzako tailerra egin nahi dituzte.

Hegaztien ilustrazioak

Ibilbideari hasiera emateko, *gouache* margotzeko teknika erabiliz, eskualdean bizi diren eta eskualdetik pasatzen diren hegaztien ilustrazioak prestatu dituzte. Piquero editoreak eta irudigileak irudiak egin ditu, Delicado diseinatzailearen eskutik. Mikel Etxaniz ingurumen teknikariaren ezagutzari esker, hegaztien irudiekin hamaika kartel sortu dituzte: miru gorria, oilgorra, lertxuna, oki beltza, urubia, zikoina beltza, kaskabeltz ttikia, ugatza, pagauso, sai arrea edo hemen arranoa deitua eta garrapoa ageri dira.

Hamaika «zenbakia infinituaren baliokidea» delako eman diote proiektuari izen hori. «Edertasun amaigabe horren ugaritasunaren isla» izan nahi du eta bateko eta berteko ekimenak garatuz, makroproiektu eolikoek kontra egin nahi dute: «Lurraldearen suntsipena saihesteko tresna bat gehiago izan nahi du Hamaikak».



KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Panelak

Aluminioa, PVC edo metakrilatoa

Neurrira eginak, formekin moztuak, formatu handiak, iraunkorrak...



Koldo Herrera lider Euskal Herriko mendi duatloi zirkuitoan, Iparragirrekin.

Bikain ari dira herriko mendi txirrindulariak

Koldo Herrera lider da Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituan eta Eneit Bertiz eta Sara Gartzia podiumera igo dira

MAIDER PETRIRENA

Hiru proba jokatu dituzte Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituan (Igantzín, Ibarra eta Kanpezun) eta, erreleboka, hiruretan nagusitu dira Koldo Herrera herriko txirrindularia eta Dani Iparragirre Arantzako korrikalaria. Lider dira, beraz. Bertze borts proba izanen ditu zirkuituak. Igor Agesta ere, bakarka eta M40 kategorian lider da zirkuitu honetan.

Eneit Bertiz indartsu itzuli da

Eneit Bertiz sei hilabetez lesionaturik egon eta gero, itzuli da eta egin dituen bi probetan,



Eneit Bertiz bere lehen proban.

Arazurin eta Villatuertan, bigarren izan da. Irailaren 17an Orkoienek jokatu zen eskole-tako BTT proban, nesken infantil mailan bigarren izan zen Sara Gartzia Sanzberro.



Sara Gartzia bigarren Orkoienek.



MAIDER PETRIRENA

Iraide Iriarte txapeldun San Fermin Txikin

Iruñeko Mañueta pilotalekuan San Fermin txiki txapelketa jokatu zuten Ados pilota elkarteko pilotariek irailaren 23an. Gaztetxoetan, Iraide Iriarte Petrirena herritarrek eta Amaieur Landa beasaindarrak lortu zuten txapela, final lehiatuan Irati Altzu eta Dunixe Alberro iturendarrei irabazita.



UTZITAKOA

Gastearena-Bertiz finaletik kanpo

Nafarroako Arpana txapelketa mistoko kanporaketa jokatu zen irailaren 23an Antsoainen. Guztira 15 bikotek parte hartu zuten, urriaren 8an Urrozekin jokatu den finaleko borts txarletako baten bila. Unai Bertiz eta Esti Gastearena herritarrek ez zuten lortu finalean sartzerik.



Miguelena
SUKALDEAK

- Eketresnak
- Pareta-armainuak
- Sukaide eta bainugelako altzariak

📞 948 450 925 📠 624 47 57 25

Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com

DONEZTEBE

Autoak izanen dira protagonista larunbatean

Automobilaren Ondareari Buruzko Jardunaldiak eta 4x4 triala egingen dituzte herrian

OIER ZULAIKA

Automobilismoa izanen da protagonista heldu den asteburuan. Larunbatean, hilaren 7an, alde batetik Automobilaren Ondareari Buruzko Nafarroako Jardunaldiak egingen dituzte, eta bertzetik 4x4 triala ere izanen da. Clasicos San Fermin taldeak eta udalak antolatu ditu jardunaldiak.

Merkatuko plazan egingen dituzte jardunaldiak eta egun osorako egitaraua antolatu dute. 09:00etan partaideen harrera egingen dute, 10:30ean Malerrekan barrena egingen

dute irteera kotxe klasikoekin. 12:00etan Doneztebera itzuliko dira eta Erreka Dantza Taldearen emanaldia izanen dute. 14:30ean parte hartzaileen bazkaria izanen da.

Eguna girotzen joaldunak eta Doneztebeko erraldoiak ariko dira, eta auto klasikoaren erakusketa ere izanen da.

4x4 triala Aparanen

15:00etan hasita eta Boma 4x4 taldeak antolatuta, Doneztebeko 4x4 triala jokatu dute. Izen-emateak 697 47 52 78 zenbakian egin behar dira.



UTZITAKOAK

Giro ederra izan da besta ttikietan

Irailako laugarren asteburuan izan ziren besta ttikiak. Musika eta dantza emanaldiak, zirku tailerra, erremonte partidak... Egitarau zabala izan zen eta herriko hainbat kirolari omendu zituzten. Gainera, berriki hildako Ainara Marizkurrenaren eta Joxe Irigoienaren omenez aureskua dantzatu zuten.

24 parte-hartzaile izan dira bigarren Xake txapelketan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 16an jokatu zen herriko Casino elkartearen bigarren txapelketa eta 24 parte-hartzaile izan ziren, horietatik 8 haurrak. Manuel Mayok irabazi zuen txapelketa, bigarren postuan Adrian Oroz gelditu zen eta hiruga-

renean Daniel Aginaga. Aurten herriko jokalaria onena ere saritu zuten eta Ibon Rekarte izan zen irabazlea.

Giro ederra sortu zen txapelketan eta bertara hurbildu ziren zale guztiek goiz bikaina pasatzeko aukera izan zuten.



Txapelketako parte hartzaileak lehiaketa ondotik. IÑIGO OSTIZ

THAT'S ENGLISH!

Zure **ingelese** hobetu urrutiko **ikastaro ofizial** batekin?

YES!

URRUTIKO INGELESEKO IKASTARO OFIZIALA **200€** + tasak
Doneztebeko Mendaur Ikastetxean - 948 45 60 05
MATRIKULAZIOA: Urriaren 31 arte

30th ANNIVERSARY OF ENGLISH!
www.thatenglish.com

'Orainmenean' bertso saioa hilaren 13an Aurtitzen

Alazne Untxalo, Maddi Ane Txoperena eta Ane Labaka ariko dira kantari Koianea Ttikian, Alnhoa Larretxea gai-jartzailearekin

ARKAITZ MINDEGIA

Txakur Gorria sormen kolektiboak prestatutako *Orainmenean*, *Bertsolaritzaren genealogia feministak* erakusketa eta bertso saio berezia izanen dute urriaren 13an, ortziralean 19:00etan hasita Aurtizko Koianea Ttikia pilotalekuan. Bertsolaritzaren historia ez dela bakarrik gizonen bertsolarien historia erakutsiko dute. Bertso saioari dagokionez, Alazne Untxalo, Maddi Ane Txoperena eta Ane Labaka izanen dira kantari, Ainhua Larretxea gai-jartzaile dutela.

Ugaitz Elizalde txapeladunorde Bodegas Taronen

Garfek antolatzen duen Bodegas Taron torneo bikaina egin du Ugaitz Elizalde herriko pilotariak, Baraibarko Ladis Galarzarekin. Finalean, lesio baten ondorioz, Bergera arituz Galarzaren orde. Final ederra izan zen baina azkenean Retegi bi eta Aldabe txapeldun.

Egoitz Gorosterrazu Nafarroako txapelketan

46. Nafarroako txapelketa Iruiritako kanporaketarekin abiatuko da urriaren 7an. Aurtengoan Egoitz Gorosterrazu izanen da herriko bertsolari bakarra txapelketan. Aurrekanporaketan sailkatu ondotik, gogotsu entrenatu da. Iruiritako larunbateko lehen kanporaketa horretan Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez, Sarai Robles, Idoia Granizo, Ekai Alegre eta herriko bertsolaria arituko dira. Gai-jartzaile Maialen Belarra izanen da.

Maika Ariztegi Euskal Herriko aizkolari finalean

Urriaren 15ean, igandean 12:00etan Elgoibarren jokatu den Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finalean izanen da Maika Ariztegi. Irailaren 16ean Hernanin jokatutako kanporaketan finalerako sei txartel zeuden jokoan eta Ariztegi laugarren izan zen.



UTZITAKOIA

Ederki joan da Joaldunen Eguna

Auzotako itzulia plazan akitu zuten joaldunek. Basaburua eta Arraiozen arteko herri kirol saio bikaina eta gero, kokxor biltzen herritarren kontra ere aritu ziren. Bazkari ederraren ondotik Unai Agirre eta Aitor Mendiluze aritu ziren bertsoan, Andoni Mitxelena akordeoilariarekin.



UTZITAKOIA

Karrikak zolaberrituak Aurtitzen

Aurtitzen zenbait lan egin dituzte. Auzolanean aritu ziren hiru larunbatetan, karrikako losa kentzen eta irailaren 25ean Obysur enpresak brea bota zuen. Bertzetik, ostatuan, teilatuan isolamendua eta teila aldatzeaz gain, paretak zuritu dituzte. Azken lan hauek Izarra erainkuntzak egin ditu.

GARBI

ORDUBETE BAINO GUTXIAGOAN EDOZEIN ARROPA MODU ERRAZEAN GARBITU ETA IDORTU!

AUTOZERBITZU GARBITEGIA

XABOIA DINGENO AKTIBOA LEUNGARRIA BARNE

MANTAK, EDREDOIAK, NORDIKOAK, EGUNEROKO ARROPA...

DIRUA DIRUA DENBORA AURREZTU

ARROPA GARBITU eta DESINFERTATU ERAGINKORTASUN eta KALITATE HANDIENAREKIN

633 424 263

Urteko 365 egunak 08:00 - 22:00

LEITZAKO BIDEA, 29 **DONEZTEBE**

Euskararen Eguna asteburu honetan ospatuko dute

Ohiko egitarauaz gain, Joseba Sarrionaindia idazleak euskara eta euskal literaturaz hitzaldia emanen du ostiralean eskolan

FERMIN ETXEKOLONEA

Ohiko egitarau zabalarekin Euskararen Eguna antolatuko dute Zubietako gazteek aste-buru honetarako.

Urriaren 6an, ostiralean 18:00etan, Joseba Sarrionaindiak *Euskara eta euskal literatura* hitzaldia emanen du eskolan. 20:00etan pintxo lehiaketa izanen da Errandonen (pintxoak entregatzeko epea 18:00etatik 18:30era). 22:00etan mus txapelketa Errandonea ostatuan.

Urriaren 7an, larunbatean, 10:00etan hasita, herriko eskulangileen lanak egonen dira ikusgai eta erosgai plazan. Urdaiazpiko eta gazta apustua ere egingen dute. 11:00etan joaldunak ibiliko dira. 12:30ean aizkora apustua: Mikel Indakoetxea eta Mikel Santesteban, Raul Castro eta Antonio Jau-



Joseba Sarrionaindia hizlari.

narenaren kontra. 13:30ean bertso saioa balkoitik balkoira: Bittori Elizalde eta Iker Gorosterrazu. 14:30ean herri bazkaria. 16:30ean haurrentzako magia ikuskizuna izanen da, Marsel magoaren eskutik. 17:30ean Turrutxiki txaranga ibiliko da kalean. 20:00etan Korrontzi taldea. Ilunabarrean taloak eskainiko dituzte eta Euskararen Eguna borobiltzeko, gauerdian hasita, Trikidantz taldearekin dantzaldia.



Igande eguerdian Urrozen lehiatuko diren bartz bikoteak. NHKF

Nafarroako arpana txapelketa mistoaren finala igande eguerdian Urrozen

TTIPI-TTAPA URROZ

Nafarroako arpana txapelketa mistoko kanporaketa jokatuko zuten hamabartz bikoteak irailaren 23an Antsoaingo kiroldegiko frontoian. Lehenbiziko bartzek lortu zuten urriaren 8an, 12:00etan Urrozen jokatuko den finalerako txartela. Etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar korte ematen bizkorrenak Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena izan ziren (4.57). Beraiekin batera, Iruke Biurrin eta Dani Saldias arraiotarra (5.11), Miren Eizmendi eta Oier Aizkorbe (5.47), Uxue Rodriguez

eta Iosu Huarte (5.48) eta Ainhoa Etxegarai beratarra eta Alberto Fagoaga aranztarra (5.50) izanen dira finalean. Eskualdeko bertze arpanlariei dagokienez, finaletik kanpo gelditu ziren Lekarozko Sela Goñi eta Jexux Goñi (seigarren, 6.04), Berroetako Sarai Maritorea eta Ekaitz Maritorea (zortzigarren, 6.25), Sunbillako Esti Gastearena eta Unai Bertiz (hamahirugarren, 7.37) eta Arantzako Naiara Manzano eta Mikel Oteiza (hamabosgarren, 7.54). Finalean 12 korte eman beharko dituzte 45 ontzako enborrean.

MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean,
formarekin moztuak...

Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



Elkarteko mendizaleak Acheritora egindako irteeran. UTZITAKOIA

Elkarteko 27 mendizale Acheriton izan dira

Hurrengo irteera urriaren 17an egingen dute eta Urnietako Adarra mendira joanen dira

TTIPI-TTAPA

Irailaren 19an Pirinioetako Acherito tontorrera joan ziren elkarteko 27 mendizale. Linzako aterpetik atera ziren 09:00etan. Salto del Caballon barrena, Paso del Oso gurutzu, Pala del Acherito pasa eta Acheritoko tontorrera iritsi ziren, lau orduko ibilbidea egin ondotik. Acherito azpiko aldean bazkaldu zuten norberak eramandako otordua eta Foya de los Ingenierosetik egin zuten itzulia.

16:00ak aldera ailegatu ziren autobusera, 14 kilometro oinez eta 1.300 metroko desnibela



Mendizaleak bidean.

zituen itzulia osatu ondotik. Eguraldia, gainera, zoragarria izan zuten.

Hurrengo irteera urriaren 17an egingen dute Urnietako Adarra mendira.

Erratzuko delegatu postua utzi du Mari Karmen Auzkik

25 urtez Mari Carmen Auzki aritu da Erratzuko delegatu lanetan. Lekukoa emateko ordua dela erabaki du Auzkik, eta Angel Erregerenak hartu du bere lekua. Elkartearen izenean eskerrik beroenak eman dizkiote Auzkiri egin duen guztiagatik.



Mari Carmen Auzki. UTZITAKOIA

Arkupeak elkartearen gabonetako zozketako boletoak salgai daude

TTIPI-TTAPA

Urteroko ohitura berrituz, Arkupeak elkarteak aurten ere loteria salduko du. Txartelak dagoeneko salgai daude, eta erosi nahi duenak herriko delegatuen bidez izanen du aukera horiek lortzeko.

Aurten, gainera, hainbat berrikuntza izanen dira loteriarekin batera. Aitzineko urteetan ez bezala, sarirentzat tokatuz gero, ordainketa ez da La Caixaren bidez egingen, elkartea bera izanen da ordainketa kudeatuko duena.



Aurtengo loteriaren irudia.

Zozketa txarteletan agertzen dira azalpen denak, baina kontuan hartu behar da txartelak egoera onean egon behar direla eta hiru hilabete izanen direla kobratzeko.



Bazkideak 2021ean Benidormera egindako bidaietan. UTZITAKOIA

Elkarteko bazkideen eguna urriaren 19an ospatuko dute Gorraizen

TTIPI-TTAPA

Bazkideen eguna ospatuko dute urriaren 19an Gorraizen. 11:00etan ailegatuko dira autobusak, eta 12:00etan meza egingen dute hildako bazkideen oroimenez. Ondotik, omenaldia egingen diete urrezko eta diamantezko ezteiak eta 85 urte betetzen dituzten bazkideei.

Omenaldien ordua bukatuta, 14:00etan bazkaria izanen dute. Menu hau izanen dute: Barazki krema, usakume basatia Ultzamako onddo eta almendrekin, bakailoa tenperatura baxuan piper errekin

eta pil-pilarekin eta bildots erreka Tuterako kuku eta parmentierarekin. Postretarako albortxiko gazta tarta izanen dute, Milagroko gerezi eta limoizko izozkiarekin. Otorduen ondotik, 17:00etan hasi eta 19:45ak arte dantzaldia izanen dute Joxe Angelekin. Ondotik, 20:00etan autobusak aterako dira. Eguna osoko irteerak 63 euroko prezioa du, eta oraindik apuntatu nahi duenak horretarako aukera badu 948 45 08 78 zenbakira deituta.

Bertzalde, igandean 78 lagun Benidormera abiatu ziren eta urriaren 11n itzuliko dira.

Eskuratu energia berriztagarrien inbertsioengatik zerga-kenkariak



**ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN
INSTALAZIOAK**

% 30

ARTE



**IBILGAILU
ELEKTRIKOA**

% 30

ARTE



**KARGATZE-
PUNTUA**

% 20

ARTE



**BIZIKLETA
ELEKTRIKOA**

% 30

ARTE

Nori zuzendua?

Enpresak, pertsona fisikoak eta juridikoak.

Nola?

Kenkari-eskaera dagokion PFEZaren edo sozietateen aitortpena egitean izapidetu behar da.

Energia berriztagarrien instalazioak eta kargatzeko azpiegiturak: beharrezkoa da Trantsizio Energetikoko Zerbitzuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak emandako txostena izatea.

Ibilgailuak eta bizikletak: Ez da txostenik behar. Faktura, ordainagiria eta fitxa teknikoa aurkeztu behar dira Nafarroako Ogasunean aitortpena izapidetzeko orduan.

Zerga-kenkariak urte osoan daude eskuragarri eta baldintzak betetzen dituzten guztiak onartzen dira.



848 42 97 00



transicionenergetica@navarra.es

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Autokontsumorako instalazio kopurua Nafarroan hazten ari da gelditu gabe, eta ia guztia eguzki plaken bitartez

Beheko datuak ikustea nahikoa da bilakaeraren ideia zehatz bat egiteko. 2019an 207 autokontsumo instalazio egin baldin baziren, aurtén, 2023an, soilik maiatzaren 29a bitarte, 7.104 autokontsumo instalazio eginak ziren jada etxe eta enpresetan, ia den-denak energia fotovoltaikoa erabiliz. Eta aldi berean, laguntza eskaeren erritimoak espektatiba guztiak gainditu ditu eta Nafarroako Gobernuak IDAeri bosgarren laguntza pakete bat eskatu dio.

Zer da autokontsumo energetikoa?

Norberaren kontsumorako elektrizitate berriztagarria ekoizteari deitzen zaio autokontsumoa, etxean edo bizilagunen komunitatean eguzki panel fotovoltaikoak edo sorkuntza berriztagarriko bertze sistema batzuk instalatuz egiten dena.

Gisa horretara, kontsumo elektrikoaren zati bat guk geuk geure etxean muntatu dugun instalazioak sortutako energiarekin estaliko dugu, eta hartara, gure faktura elektrikoan zuzeneko aurrezpena ikusteaz gain, merkaturan argindarraren prezioak dituen gora-beheretatik libratuko gaitu zati batean.

AUTOKONTSUMO INSTALAZIOAK NAFARROAN, 2019-2023



GFEA
ESTUDIOS GEOLOGICOS

**PARKE EOLIKOETARAKO
ETA EGUZKI PARKEETARAKO
LURREN AZTERKETAK**

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Estatuan eta nazioartean
lan egiten dugu

www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335

bertakoa, euskalduna, kooperatiboa, berriztagarria



goiener



✉ goiener@goiener.eus
🌐 www.goiener.eus

📍 Infogunea: Bidazi. San Esteban karrika 11. Bera
📍 Bulegoa: Santesteban Musikaria kalea 5. 20011 Donostia
📍 Bulegoa: Kale Berria 111. 31001 Iruñea

900 816 365

Zer da energia komunitate bat?

Funtsean, energia komunitate bat partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritutako elkarte bat da, pertsona fisikoak, enpresa ertain eta txikiak edo/eta tokiko erakundeak diren bazkideek zuzenean kontrolatuko duten elkarte, eta energia berriztagarrien, energia eraginkortasunaren eta/edo mugikortasun jasangarriaren arloko proiektuak garatzen dituena.

Zein helbururekin osatzen da?

Elkarte hauen helburua ez da irabazi ekonomikoak sortzea edo finantza errentagarritasuna bilatzea. Alderantziz, energia komunitate baten helburu nagusia bere bazkideei eta sortu den herriko jendarteari, ekonomiarri eta ingurumenari onurak ematea izan da.

Energia komunitate hauen eragina energia-sektoretik haratago doa, klima aldaketaren eta energia-pobreziaaren kontrako borrokan laguntzen baitute eta hobekuntza sozialak

sustatzen baitituzte sortzen diren komunitateetan. Horregatik, arras irudi interesgarriak dira udalerritarrikienentzat, batez ere.

Lurraldearekin kontaktu estuan daudenez, tokian tokiko punturik sentikorrenak eta toki bakoitzean eskaini ditzaketen abantailak aski ongi ezagutzen dituzte, eta, aldi berean, tokiko jarduera dinamizatzen, enplegua sortzen eta biztanleria finkatzen laguntzen dute.

Leitzan eta Beran hasiak dira energia komunitateak sortzen

Azken urteotan Euskal Herriaren luze-zabalean ari dira energia komunitateak sortzen. Gure inguruan, Leitzan eta Beran eman dituzte dagoeneko lehen urratsak eta pentsatzekoa da ez direla azkenak izanen. Nafarroako Gobernuak urte hasieran emandako datuen arabera, herrialdean bazeuden orduan 15 elkarte osatuak eta 17 gehiago sortzeko prozesuan.



LEIMEN S.L

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jaurtzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak

- Probexu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
- Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.

Ekoiztu zure energia, izan EKOLogikoa

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

DOMOTIKA

IBILGAILU ELEKTRIKOAK

KARGATZEKO GUNEA

EGUZKI PANELAK

ALKUBO

Energia Berriztagarriak

Nafarroako paisaia energetikoa eraldatzen

Energia jasagarrien testuinguruan, ALKUBO Nafarroako ingeniari-tza enpresa bere esperientzia zabaltzen ari da berrikuntza teknikoa maila berri batera eramateko:



Abeltzaintzako ustiategiak eskala handian

Azken urteotan ALKUBOK erdietsi duen gaitasun teknikoaren adibide ederra da ustiategi-tako instalazio fotovoltai-koek instalatzen hartu duen esperientzia. Instalazio hauekin ustiategi-ek duten energia kontsumoa % 75era arte murriztea lortzen da.

Azpirarraztekoa da, gainera, onartu berria den Nafarroako Klima Aldaketari eta Energia Transizioari buruzko Legeak are gehiago bultzatzen duela nekazaritza eta abeltzaintza sektorea energia berriztagarrietara egokitzea. Lege honen 55. artikulua dioenez, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi guzti-ek energia berriztagarriekin inplementatu beharko dituzte beren instalazioak, eta duten kontsumo elektrikoaren % 15a, gutxienez, autokontsumo instalazioekin lortzen dutela bermatu beharko dute.

ALKUBOK etorkizun jasagarri baterako trantsizio honetan parte hartzen du, irtenbide energetiko ezin hobeak eskainiz, egungo laguntzak eta dirulaguntzak izapidetuz eta sektoreko karbono aztarna murrizten lagunduz.

Bizitegiak eta landetxeak: Energia Eraginkortasunerako Fusio Teknologikoa

Baserrien, familia bakar-eko etxeen eta landetxeen kasuan, ALKUBOK eguzki panelen instalazio eta arotermia teknologia konbinatzeko aukerara bideratzen du bere ikuspegia, eta hartara, etxeko berokuntza eta hozte sistema, eta behar dugun elektrizitatea, modurik eraginkor eta jasagarrienean eskuratzeko bidea bilatzen du. Fusio teknologiko horrek bere alde du gaur egun dirulaguntza eta kenkari fiskal handiak daudeia, eta instalazioaren % 60 inguru estaltzen ahal dela laguntzoi esker.

Berrikuntza eta bezero-erako hurbiltasuna iparrorraz gisa hartuta, ALKUBOren helburua energia eraginkortasuneko garai berri batera eramane- n gaituen bidea erraztea da, horretarako teknologia eta ikuspegi jasagarriak uztertuz.



Energia fotovoltai-koa & klimatizazio eraginkorra

948 036 438 - alkuboingenieria.com





Eguzki plakendako dirulaguntzak

Nafarroan hiru dirulaguntza mota daude oraingoz eguzki plakak jartzeko urratsa egiten duenarentzat. Joan den martxoan Mikel Irujak, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontsiliariak, adierazi zuenez, «Nafarroak % 65era arte lagunduko die diruz partikularrei eta enpresei autokontsumorako instalazioak egiteagatik». Hauek dira aipatutako hiru dirulaguntza horiek:

bakoitzak kudeatzen dituzte. Nafarroaren kasuan, Europako dirulaguntzen zenbateko osoa 12 milioi eurotik gorakoa izanen da 2023an.

Next Generation funtsek hiru jarduera kategorian ezartzen dituzte diruz laguntzeko:

- Autokontsumoa
- Argindarra metatzeko bateriak
- Klimatizazio berritagarria.

Errentaren Aitorpenean edo Sozietateen gaineko Zergan hobari fiskalak eta kenkariak

Desgrabazioa inbertsioaren % 30ekoa da (adibidez 12.000 euroko inbertsio batenagatik 3.600 euroko desgrabazioa).

Behin autokontsumorako instalazioak eginak direnean, instalatzaileek eskaera eta txosten teknikoa aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuaren Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuan. Zerbitzuko teknikoek eskaera aztertu ondotik, eta dena ongi baldin badago, eskatzaileek Nafarroako Agasunean aurkeztu beharko duen txostena bidaliko diote.

Nafarroako Gobernuaren funts propioen bitartez

Partikularren eta enpresen artean energia berritagarrien erabilera sustatzeko dirulaguntza puntuak dira honaka hauek. Hau idazterakoan ez dago autokontsumorako funts propioen deialdi irekinik. Azken deialdi irekia 2022ko maiatzaren 15etik 2022ko uztailaren 15era egin zen.

Next Generation funts europarrak

Berez, laguntza hauek estatu mailakoak dira baina, praktikan, autonomia erkidego



Etorkizun Solar

Eguzki plakak

Auto elektrikoetarako kargagailuak

Ziurtagiri energetikoak

Ingeniaritza-proiektuak eta automatizazioak



www.etorkizunsolar.es
info@etorkizunsolar.es

+34 661 022 251 +34 676 107 842 +34 669 146 997

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean



Ikusi
eguzkiak zure
enpresagatik
egin dezakeen
guztia

ENPRESEN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKIAREN ENERGIA FOTOVOLTAIKOKO IRTENBIDEAK



INGENIARITZA
ETA
PROIEKTUAK



KALITATEZKO
INSTALAZIO ARINA
ETA ERAGINKORRA



NEURRIRA EGINDAKO
KONPONBIDE
TEKNIKOAK



MANTENTZEA
ETA
MONITORIZATZEA

Konponbide energetiko integralak 2006az geroztik
kostu energetikoak % 60raino murriztu, eraginkortasun
energetikorik handiena lortu eta lehiakortasuna areagotzeko

 **Ekisolar**
Eguzkiaren Energia



OSO GERTU GAUDE. KONTSULTA IEZAGUZU

ARABA, Brusela etorb. 8-5 / Vitoria-Gasteiz
NAFARROA, Mutiloa Beheti ind. V kalea. 39. nabea / 31192 Mutiloa Beheti
GIPUZKOA, Apatza poligonoa, 1. zk. 206. bulegoa / 20400 Tolosa

900 840 281 www.ekisolar.com



Energia berriztagarriak: Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak zenbait dirulaguntza deialdi ditu indarrean momentu honetan kontsumo pribaturako energia alternatiboen instalazioa eta erabilpena sustatzeko. Normalki, instalazioak egiteaz arduratzen diren enpresak arduratuko dira laguntzen tramitazioak egiteaz ere eta partikularari paper-lanak gainetik kenduko dizkiote.

Honako hauek dira dirulaguntza horietako batzuk:

Autokontsumo instalazioetarako eta baterien bitartez argindarra biltegitatzeko laguntzak

Etxeetan autokontsumoa bultzatzea da laguntza lerro honen helburua. Kasu honetan, instalazio fotovoltaikoen bitartez energia sortzeko eta metatzeko sistemak dira diruz laguntzen direnak. Nafarroako Ogasunak onartutako inbertsioaren gainean % 30eko desgrabazioa aplikatzen du hurrengo urtean errentaren aitortpena egiterakoan.

Eta ez hori bakarrik, ibilgailu elektrikoetan (autoak, motoak, bizikletak...) eta ibilgailu horiek dituzten birkarga sistemetan egindako inbertsioengatik ere, desgrabazio garrantzitsuak aplikatzen dituzte errentaren aitortpenean.

Abeltzaintzako ustiategiendako laguntzak

Laguntzen helburua da ustiategiengan energia kontsumoa arrazionalizatzeko eta energia berriztagarrien bidez energia gehiago sortzeko jarduerak sustatzea.

Energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko laguntzak

Laguntzen helburua da energia berriztagarri termikoak ezartzea ekonomia jarduera duten eta ez duten ekonomia sektore desberdinetan. Aerotermia, geotermia, hidrotermia, eguzki-energia termikoa, errekuntza ganberaren biomasa eta biomasa-goldarak eta tokiko berokuntza aparatuak.

ELEK BERRI

INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuoen instalazioa
- Finantziazio aukera



646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

NAFARROAKO AUTOKONTSUMO INSTALAZIOEN ERREGISTROA | 2023

Datuen azkeneko eguneraketa 2023/09/14

Herria	Instalaturako potentzia	Instalazio kopurua
Amalur	6,72 kW	1
Aranza	70,00 kW	4
Areso	4,00 kW	1
Arizkun	36,00 kW	4
Arraloz	15,00 kW	2
Azpikueta	15,00 kW	3
Bera	337,70 kW	18
Berroeta	10,00 kW	1
Donamaria	26,20 kW	5
Doneztebe	38,00 kW	4
Elbete	2,00 kW	1
Elizondo	55,88 kW	13
Erratzu	10,00 kW	3
Etxalar	57,43 kW	7
Gaztelu	4,00 kW	1
Goizueta	40,00 kW	1
Igantzi	103,00 kW	2
Inurita	3,00 kW	1
Ituren	5,00 kW	1
Legasa	100,00 kW	1
Lekaroz	8,00 kW	2
Leitza	15,00 kW	3
Lesaka	106,00 kW	10
Narbarate	9,00 kW	2
Sunbilla	15,00 kW	3
Oiz	5,00 kW	1
Oronoz-Mugairi	25,00 kW	2
Urroz	6,00 kW	2
Ziga	9,00 kW	2
Zugarramurdi	14,00 kW	2
Denera	1.152,53 kW	103

Taula honetan ageri dira herri bakoitzari dagokionez zenbat autokontsumo instalazio tramitatu diren Nafarroako Gobernuaren erregistroan. Instalazio horiek Pertsona Fisikoek egin baldin badituzte, Nafarroako Ogasunaren aldetik % 30eko kenkaria hartuko dute datorren urteko Errentaren Aitorpenean (PFGZ) eta sozietate edo enpresen kasuan, aldiz, kenkaria Sozietateen gaineko Zergan aplikatuko zaie.

Autokontsumoa eta energia berriztagarriei dagokionez Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ditu hainbat jardura. Hauek dira nagusienak:

- **Autokontsumoa eta energia biltegitratzea:** etxe partikularretan eta hirugarren sektorean.
- **Energia biltegitratzeko instalazioak:** etxe partikularretan eta zerbitzu eta produkzio sektoreetan.
- **Energia berriztagarri termikoen instalazioa etxebizitzan sektorean**



Froling ebaxaren **S4 Turbo** egur galdara bat da, kondentsaziorik gabe egurra erabat erretzen duena. Eraginkortasun handiko galdara, emisio gutxi eta energia gutxi kontsumitzen duelako nabarmentzen dena.

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara



Gasa
Ura
Kalefakzioa

Dirulaguntzak eskatzeko eta errenta aitortpenerako tramiteak egiten ditugu.

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Tel. 686.235.230
patximutu@hotmail.com

froling

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - BERA

Domiko
galdarak eta estufak

Pellet eta egur berogailuetan adituak

ESKATU HITZORDUA!



• Kalitate goreneko produktuak • www.domikorenovables.com • domiko.xabat@gmail.com
Zarandia 3, LESAKA • T. 639 914 455



Energia eraginkortasun handiko etxeak dirua aurreztu eta hobeki bizitzeko

Zer dira etxe jasangarriak?

Etxe jasangarriak energia eraginkortasunaren eta aztarna ekologikoaren murrizketaren ikuspegitik diseinatu eta eraikitako etxeak dira. Teknologia eta material aurreratuak erabiltzen dituzte energia kontsumoa murrizteko eta baliabide naturalen kontserbazioa maximizatzeko. Eguzki energiako sistemak, kalitate handiko isolamendu termikoa, etxea berotzeko eta hozteko sistema eraginkorrak, aireztapen kontrolatua eta antzeko ezaugarri berritzaileak dituzten sistemen bidez lortzen da hori.

Energiaren kontsumoa kontuan hartuta, eraginkorra den etxe baten ezaugarriak

Isolamendu termiko aurreratuak: Etxearen kanpoko paretak, sabaiak eta leihoak isolamendurako gaitasun handikoak izan beharko lukete, eta hartara, urte osoan tenperatura eroso mantentzeko gaitasuna bermatu, berokuntza edo hozte sistemak gehiegi erabili beharrik ez izateko.

Eguzki panelak eta energia berriztagarriko sistemak: Etxe jasangarri gehienek eguzki panelak dituzte, eta horrek aukera ematen die beren elektrizitatea sortzeko eta, kasu batzuetan, baita gehiegizko energia sare elektrikoari saltzeko ere.

Energiaren kudeaketa adimenduneko sistemak: Energiaren erabilera optimizatzen duten automatizazio eta kontrol sistemak izan ohi dituzte. Horrek barnean hartzen ditu argi-sentsoreak, termostato adimendunak eta argiztapen eraginkorerrako sistemak.

Material ekologikoak eta eraikuntza jasangarrikoak: Eraikuntza material ekologiko eta jasangarrien erabilera oinarritzen da; ziurtagiri ekologikoak duten zurak, CO2 emisio txikiak dituztenak, ura alferrik galtzea murrizten duten iturgintza sistemak...

Zenbat aurreztu dezakegu?

Energia kostu txikiagoak: Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) bildutako datuen arabera, etxebizitza jasangarriek energia kostuak murriztu ditzakete, batez beste, % 20tik % 30era, gure lurraldeko ohiko etxebizitzekin konparatuz gero. Horrek erran nahi du hilabetean 100 euroko energia faktura izanda, 20 eta 30 euro artean aurreztu zenezakeela hilabeteoro. Urtebetean, 240 eta 360 euro artean.

Pizgarri fiskalak eta dirulaguntzak: Administrazio publikoaren aldetik, energia efizientzia eta etxebizitza jasangarriak sustatzeko hainbat dirulaguntza eta programa daude. Nafarroan, konparazioa, eraikinen birgaitze energetikorako laguntza programak daude, eta horrek aurrezpen nabarmenak ekar litezake zergetan eta hasierako kostuetan jabeentzat.


Jabetzaren balioa handitzea: Etxebizitza jasangarriak aisa gehiago baloratzen dira, jasangarritasunarekin eta energia eraginkortasunarekin duten konpromisoagatik. Horrek jabetzaren balioa handitzea ekar dezake, eta ikerketa batzuen arabera, ohiko etxebizitzekin alderatuta, % 9 ingurukoa izan daiteke. Adibidez, etxe eraginkor bat 200.000 euroren truke erosten baduzu, haren balioa 18.000 euro handitu daiteke denboraren joanean.



BEROTZA

ITURGINTZA, BEROKUNTZA
ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es - www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)





PELLET
 ZAKUAK
 ETXERAINO






egurpellet.com | info@egurpellet.com | T 623 246 300



*Pellet
 fabrikazioa eta banaketa*




+(34) 948 46 00 89 | +(34) 610 568 278 www.naparpellet.com ETXARRI - ARANATZ











naparpellet@naparpellet.com **# +QPellet**

FONTANERIA



Carlos Pacheco

**ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK**

Legia, 19 - BERA Tel: 637 151 170



**AEROTERMIA
AIRE GIROTUA
BIOMASA
EGUZKI PLAKAK
LUR BEROA**

txinberri@gmail.com
611 685 924
www.txinberri.com

Aeroterminia, etxebizitza berotzeko alternatiba eraginkorra

Zer da aeroterminia?

Aeroterminia aireko tenperaturatik zuzenean energia lortzen duen teknologia garbia da. Energia hori barneko gelara edo ur korrontera eramaten du zoru erradiatzaile edo fan coil edo haize beroaren bitartez.

Baina, nola funtzionatzen du? Tenperatura arros baxuetan konprimatutako gas hozgarri baten ziklo termodinamikoari esker, beroa lortzen du kanpoko airetik.

Instalazioaren kalitatearen arabera, lortzen duen energiaren % 78raino har dezake airetik, eta guztiz doan da. Beraz, kontsumo elektrikoa % 30 baino itikiagoa da, eta errendimendu oneko tresnariarekin % 22raino murriztu daiteke gastua. Kontsumo elektriko hau tresnaren konpresorea martxoan paratzeko erabiltzen da.

Energia garbia eta jasangarria

Gainerako berogailu sistemekin konparatuta, aeroterminia ez du ezer erretzen, beraz, ez du kerik ezta hondakinik sortzen eta ez

da kutsakorra. Gizartearen deskarbonizazio prozesuan, CO2 gasen emisioa murriztea ezinbertzekoa da.

Gas, gasolio, propano eta bertze hainbat energia iturriekin alderatuta duen kontsumo baxuari esker, aeroterminia sistema erabilienetako bat da gaur egun bulegoetan, aireportuetan, zinema aretoetan, ospitaleetan... eta noski, etxebizitzak berotzeko eta hozteko sistema ezin hobea da.

Bero ponpa eta aeroterminia

Bero ponpak eta aeroterminia sistemak antzekotasun aunitz dituzte, baina ez dira beti berdinak. Horregatik, geure etxeko berogailu sistema aukeratzekoan, inportantea da bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeta eta konparatzea, hobe egokitzen zaigun sistema hautatu ahal izateko.

Bero ponpa, aeroterminia bezala, termodinamikan oinarritzen da; berotasuna ponpatzen du eta energia lekualdatzen du berotasun forman. Energia hori etxebizitza klimatizatzeke erabiltzen da. Teknologia-



gaztelu scl

ITURGINTZA

- KLIMATIZAZIOA:
 - Biomasan adituak
 - Aeroterminia
 - Gas, gasolio, pellet eta egur galdarak
 - Ekoizpen sistema konbinatuak
- ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK
- **KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK
- **FINANTZATZEKO AUKERA



Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
info@fontaneriagaztelu.com

T. 948 510 086
www.fontaneriagaztelu.com

ren funtzionamendua, oinarrian, berbera da; izan ere, aerotermin beroponpa mota bat da, baina ez da bakarra. Hidrotermiak, adibidez, uretik hartzen du berotasuna, eta geotermiak lurretik.

Hala ere, energiaren kontsumoan alde handia izan daiteke sistema batetik bertzerera. Beroponparen kongresoreak berotasuna transportatzeko erabiltzen du elektrizitatea, eta ez sortzeko. Aeroterminak ere elektrizitatea beharrezkoa du kongresorearen funtzionamendurako, baina 3-4 kW termiko ekartzen ditu kontsumitutako kW bakoitzeko. Beraz, gainerako berogailu elektrikoekin alderatuta energia kontsumoa 3-4 aldiz tikiagoa da. Gainera, aerotermin sistema batzuk eguzki panelekin osatu daitezke, kontsumoa ia-ia zerora murriztuz.

Instalazioa eta errentagarritasuna

Zeure etxebizitza eraiki edo zaharberritu nahi baduzu eta berogailu sistemarako aerotermin pentsatzen ari bazara, garrantzitsua da instalazioari buruz informatzea. Izan ere, ez da merkeena, eta prezioa aldatu daiteke sistemaren arabera (zoru erradiatzailea erabiltzen den edo ez, adibidez). Gainera, kontuan hartu behar da zenbat eta

instalazio handiagoa, orduan eta merkeagoa dela metro karratuko.

Dagoeneko gas edo gasolio galdarako instalazioak dituzten eraikinetan ere paratu daiteke aerotermin sistema, galdara ordezkaturu. Izan ere, erradiadoreen fabrikatzaileek 55 eta 60 gradu arteko ur tenperatura gomendatzen dute efizientzia onalortzeko, eta aeroterminak tarte horietan edo tenperatura altuagoarekin (65 gradutaraino) egiten du lan. Beraz, instalazioak gehiegi aldatu gabe paratzen ahal dugu aerotermin geure etxebizitzan.

Instalazioaren gastuaren amortizazioa urte gutxitan lor daiteke. Gas edo gasolio galdarako sistemekin alderatuta, etxebizitza berrietan 4-6 urtetan amortizatuko da prezioaren desberdintasuna, eta galdara ordezkatzan duten kasuetan 8 urte inguruan. Hala ere, denbora tarte hau aldatokorra izan daiteke etxe batetik bertzerera.

Epe luzera, aeroterminak % 60eko aurrepena ekar dezake etxe berogailu eta hozte-sistemaren kostuan. Gainera, sistema tradizionalak baino iraunkorragoa eta efizienteagoa da, eta ingurugiroa zaintzen laguntzen du.

H. LOPEZ

Aire girotua

Tximiniak

Gas, gasolio eta biomasa galdara eta berogailuak

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

Joseba Babaze
ITURGINTZA

- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- KLIMATIZAZIOA
- EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIO TERMIKOA
- AEROTERMIA
- BIOMASA
- HOZTEKO ETA BEROTZEKO ZORU ERRADIATZAILEA



Leurtzake-etorbidea, 29. URRUZ
T. 678 99 40 00 • babazeiturgintza@gmail.com

TXARUTA
Fontanería | Calefacción | Gas | Energías renovables
Hurgintza | Berokuntza | Gasa | Energia berriztagarriak

AEROTERMIA, BIOMASA, GEOTERMIA
Energia Berriztagarrien instalazioetan espezialistak

Ingurumenarekin konprometituak.



Saunier Duval Vaillant De Dietrich

KOSNER

Thermor

KWB

VIGAS
CALDERAS DE LEÑA

Zaldubia Pol. A nabea
31730 IRURITA 948 451 728

Sto. Domingo
31750 GAZTELU 659 234 825

Pelleta, erregai merkea, naturala eta jasangarria

Zer da pelleta?

Pelleta produktu naturala da, biomasa solidotzat hartua, zilindro ttikien itxura duena. Zerrauts natural idorarekin sortzen da, presio altuan konprimatuta eta gehigari kimikorik erabili gabe, egurraren lignina erabiltzen baitu aglomeratzaile gisa. Honi esker, bero-ahalmen handia dauka.

Berogailurako eta ur beroa lortzeko erabili ohi da, eta estufa edo galdara berezia behar da horretarako. Hauek erosoak eta erabiltzeko errazak dira, pelleta erregai likidoen gisara garraiatu daitezkeelako. Gainera, erregai likidoak ez bezala, %100 naturala da eta ez da toxikoa ezta arriskutsua. Beraz, lurra erorita ere, aisa garbitzen da arazorik gabe.

Normalean, hiru modutan lor daiteke pelleta: zaku ttikietan, zaku handietan eta zisterna-kamioien bidez.

Zaku ttikiak 15 kilokoak izan ohi dira, kontsumo ttikiko erabiltzaileentzako aproposak eta garraiatzeko erosoak.

Zaku handietan 1.000 kilo inguru sartzen dira, eta zaku ttikiak baino ekonomikoa-koak izan ohi dira. Kamioi bidezko hornidura posible ez den galdara handietarako aproposak izaten dira.

Kamioi-zisterna bidezko hornikuntza da erosoena eta merkeena galdara handientzako. Izan ere, kamioiaren tututik zuzenean betetzen dute depositua, pelleta eskuekin erabili gabe.

Pelletaren abantailak eta desabantailak

Berokuntza sistema guztiak bezala, pelletak bere abantailak eta desabantailak ditu. Geure etxebizitzarako sistemarik aproposena den erabakitzeko, gomendagarria da ezagutari hauek ezagutzea:

Abantailak: Pelleta nahiko erregai merkea da; gasolioaren prezioaren erdia izan ohi du. Ez du baso-mozketarik sustatzen, zerrategi eta zurgindegiatako zerrauts hondakinekin sortzen baita, eta ez du kutsatzen, CO2 neutroko biomasa delako. Gainera, leku idorrean gordeta, pelleta ez da inoiz iraungitzen.

Honez gain, pellet estufa eta galdara gehienak guztiz automatizatuak izaten dira, bakarrik itzali eta pizten dira eta potentzia erregulatzen dute. Gainera, energia berriztagarria izanik, diruloguntzak ematen dituzte instalaziorako. Azkenik, ez du ia keirik sortzen eta gas aterabide bakarra aski du funtzionatzeko, tximinia handiren beharrik gabe.

Desabantailak: Pelleta egurra baino garestiagoa da, kalitatezkoa izan behar du ongi funtzionatzeko, eta ongi gorde behar da leku idor batean. Gainera, estufa edo galdara bereziak behar izaten dira.

Argi dago pelleta etxebizitza beretzeko alternatiba interesgarria dela, eta etxeko berogailua aldatzeko edo zaharberitzeko asmoa baduzu, kontuan hartzeko aukera ona da.



**Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak**

"Baxi" markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

609 808 756 • BERA


EZPELURA ITURGINTZA



Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emailea
Biomasa • Aerotermia



T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com



ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.

**PELLET ETA EGUR GALDARAK
AEROTERMIA
AIRE GIROTUA**

Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516

Alberto Goñi iturgintza

Iturgintza lanak
Energia Berriztagarriak · Aire girotua
Finantziazioa eskatu!

Etxean giro goxoa izateko...



AEROTERMIA

KOSNER
Climate Control solutions

EGUR ETA PELLET
GALDARAK



ZORU BERO EMAILEA

GREENHEISS
EFFICIENCY SYSTEMS



Alberto Goñi · 669 413 790 · ELIZONDO



Berogailuentzat galdara eta aeroterminia salmenta eta instalazioa

603 517 243
Gabiña, 39
7. Lokala
IRUN

calderasharitz.com

IPAR ENERGIAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ESPEZIALISTAK

Aholkularitza | Instalazioa | Mantentzea | Zerbitzu teknikoa



- Pellet-berogailu eta galdarak.
- Aeroterminia bidezko berokuntza, hozkuntza eta etxeko ur beroa (EUB).
- Biomasa bidezko berokuntza eta EUB.

T. 680 78 58 82 Donamaria - Nafarroa
www.ipar-energiak.com

Bizi-kalitatea hobetzea eta etxean gustura egotearen garrantzia

Etxea zaharberritzen hasten garenean, efizientzia energetikoa kontuan hartu beharreko afera izanzen da, zalantzarik gabe. Azken finean, isolamendu termikoa eta energia berriztagarrietan inbertitutako dirua ongi inbertitua egonen da eta, urteak pasatu ahala, energiaren kontsumoan aurreztuko dugunarekin laster amortizatuko dugu.

Etxe baten birgaitze energetikoa da urtez urte amortizatzen den bakarra, dituen laguntzez gain, kontsumitu gabeko energia aurreztuko dugunarekin laster berreskuratuko baitugu

Berogailua, gehien kontsumitzen duena
 Etxebizitza batean kontsumitzen den energia gehiena berokuntzan joanzen zaigu, etxe barnean temperatura eroso mantentzen. Hortaz, berebiziko garrantzia du kanpoko paretak, zolak eta sabaiak ongi isolatzeak, neguan hortik eskapatzen baita barneko beroa eta udan kanpoko beroa barnera sartzen.

Fatxada, leiho, teilatu eta zorren isolamenduak hobetzea

Etxe bat zaharberritzen hasten garenean, badira aldatu ezin ditugun faktore batzuk, hala nola klima (kanpoko temperatura) edo gure etxearen orientazioa. Hala ere, fatxada, leiho, teilatu eta zorren isolamendua hobetuz gero, neguan gutiago kontsumituko dugu berokuntzan, eta udan etxeak freskoago mantenduko ditugu, eta ez zaigu beharrezkoa eginen klimatizazio sistemaren bat instalatzea.



Anterola
 Técnico instalador **629 449 602**

**ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
 AIRE GIROTUA
 KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK**

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 Aeroterminia, Geoterminia, Egur eta Pellet galdarak

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

JAVI PETRIRENA
 Iturgintza eta elektrizitatea

Tel. 679 354 947
jpinstalazioak@gmail.com

EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK
 •
AEROTERMIA
 •
GASA
 •
KLIMATIZAZIOA
 •
EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

INSTALAZIOEN FINANTZIAKETA %0
 (24 hilabete)
 •
 Instalatzaile baimendua

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



**BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
JARTZEA**



AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako**
zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

Geure etxebizitza jasangarriagoa egiteko 5 aholku

1. Berogailua eta aire egokitua modu arduratsuan erabili: Etxeko sistemak modu eraginkorrean erabilia guttiago kontsumitu eta dirua aurrezteko dugu. Horretarako, berogailua 20 gradutan jarri dezakegu, eta aire egokitua 26 gradutik gora ari duenean erabili. Ura, berriz, 35 gradutan egotea nahikoa da. Gradu bakoitzak bere eragina dauka ingurugiroan eta gure sakelean.

2. Baliabide naturalak probestu: Energia berriztagarriak gero eta eskuragarriagoak badira ere, denek ez dute posible etxean birgaitze energetiko garestirik egitea. Hala ere, baliabide naturalak erabiltzeko hainbat modu ditugu; egunez eguzkiaren argia ahal bezain bertze aprobetxatu, paretak kolore argiz margotu argitasuna lortzeko, aire korronte naturalak sortu leihoak irekiz... ohitura jasangarri eta osasuntsuak dira.

3. Oinarrizko aldaketak sukaldean: Eguneroko ekintza txikiak eragin zuzena dute geure kontsumoan, eta sukaldean ere ohitura jasangarriagoak har ditzakegu. Adibidez, ahal dela presio-eltzea erabili, dirua, denbora eta energia aurrezteko. Labea erabiltzean, saiatu gehiegi ez irekitzen, irekitzen den aldiro tenperatura 20 gradu

inguru jaisten baita. Janaria desizozteko, izozkailutik denborarekin atera eta bakarrik eginen da, ura edo mikruhin-labea erabili beharrean. Ontzi-garbigailua osorik kargatu martxan paratu aitzinetik...

4. Ez utzi aparatu elektronikorik *standby* moduan: Telebista, ordenagailua, bideojokoa... guztiz itzali beharrean *standby* moduan uzte ditugu aunitzetan, eta horrek energia kontsumoa haunditzen du. Mugikorra gau osoan kargatzen uztean, edo etxetik kanpo gaudenen *wifi* routera piztua uztean ere alferrikako energia gastua egiten dugu.

5. Kontsumo baxuko bonbillak eta etxetresnak: LED bonbillak edo kontsumo baxukoak arruntak baino garestiagoak izan daitezke, baina zortzi aldiz gehiago irauten dute eta %80 guttiago kontsumitzen dute. Beraz, epe luzera diru eta energia aunitz aurrezteko dugu. Etxetresna elektrikoak ere gero eta efizienteagoak dira; A++ klase energetikoa dutenak, adibidez, %70 guttiago kontsumitu dezakete. Etxetresna zaharrak aldatu ahal kontsumo baxuko aukerak kontuan hartzen baditugu, planetak eta geure sakelak eskertuko digu.

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak
- Aerotermia



Goikolanda 8A | 31760 ETXALAR
T. 657 791 507 | 948 635 256
pelletsbaztanbidasoa.com



**Ekain
TALDEA**

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOA,
IKERKETA ETA PROIEKTUAK**



www.ekain-taldea.com

ekain@ekain-taldea.com

Amasatarren 6, ORERETA-ERRETERIA

943 340 509 - 656 702 260



Independentzia energetikoa lortzen eta dirua aurrezten lagunduko dizugu!

ACIMUTHen 2010ean hartu genuen gure bezeroei zerbitzu sorta zabala eskaintzeko konpromisoa. Teknologia berriei buruz dugun ezagutzari esker, energiaren kostuak murrizten lagunduko dizugu, ez bakarrik elektrizitatean, baita berokuntzan eta ur beroan ere. ACIMUTHek lagunduko dizu helburu horiek lortzen:

Energia fotovoltaikoa: Faktura elektrikoa murrizteko gakoa

Energia fotovoltaikoa itenbide egokia da elektrizitate kostuak murrizteko. Eguzki panelekin, argindar faktura % 80 eta % 95 bitartean jaitsiko zaizu, eta baliteke urtean deus ez ordaintzea ere, inflazioa edo tarifa elektrikoen gorabeherak gorabehera. Eguzkiaren energia aprobetxatzean, berotegi efektua eragiten duten gasen emisioak murrizten eta ingurunea hobetzen ariko zara, eta, aldi berean, oligopolio elektrikoetatik independentzia lortuko duzu.



Egurra: Aprobetxatu zure inguruko ballabideak berogailurako eta ur berorako

Berokuntzako alternatiba iraunkor eta ekonomiko bat tokian tokiko egurra erabiltzea da. Galdara sistema adimenduni esker, brasak luze irauten dute eta galdara automatikoki piztu eta itzaltzen ahal da. Etxea egurrekin berotzea ez da inoiz hain erraza izan. Hobe zure inguruko egurra erretzea zure dirua erretzea baino.

Pellet: gasolioa baino aukera merkeagoa

Pelleta aukera eraginkor eta ekonomikoa da. Gasolioarekin konparatuta, kostuak urtean % 70 murriztu ditzake. Pellet sistemak egokiak dira, automatikoki piztu eta itzaltzen baitira, eta bi hilean behin bakarrik hustu behar da errautsen tiradera. Pelleta eroso da eta gasolioa baino merkeagoa.



Aerotermita: Moldakortasuna etxea berotzeko eta hozteko, eta ur berorako

Aerotermita gero eta ezagunagoa da, arras sistema moldakorra delako. Orain duzun sistemarekin erabil dezakezu, bai zoru erradiatzailearekin bai erradiadoreekin. Aerotermita eguzki plakekin konbinatuz gero, berokuntzaren eta ur beroaren urteko kostuetan nabarmen aurreztuko duzu. Baserietan, gasolioa mantentzea eta aerotermitarekin osatzea maiz egiten da. Hala, denbora gehienez funtzionatzen ari den makina txikiago bat instalatuko dugunez, inbertsioa ere murriztuko da, beharrezkoa denean bakarrik aktibatuko baita gasolioarena.

Baliatu eskura dituzun laguntzak etorkizun jasangarirako

ACIMUTHen argindarraren faktura murrizteko eskura dituzun dirulaguntzak aprobetxatzen lagunduko dizugu. Ezagutu energia iturri agortezinen abantailak eta kontsultatu gurekin zein den zure beharretarako itenbiderik egokiena. Gurekin harremanetan jar zaitezke pellet-berogailuei, egur-sutegiei, sukalde ekonomikoak, geotermiari, eguzki termikoari eta gehiagori buruzko informazioa lortzeko. Elkarrekin, etorkizun jasangarriagoa eta ekonomikoagoa eraiki dezakegu. Jari harremanetan gaur bertan!



MALERREKA

III. Dorrealdia prest dute Donamarian urriaren 13 eta 14an

Ortziralean Gani Mirzo bikoteak joko du eta larunbatean Elizagoien ahizpek, Imanol Iribarrenek eta O'Carolan taldeak

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Dorrealdia festibalaren hirugarren edizioa ospatuko dute urriaren 13an eta 14an Donamarian. Aitzineko bi edizioetan bezala, elkartasun jaialdia izanen da eta bildutako dirua Kurdistango Mirzo Music Fundaziorako (www.mirzomusicfoundation.com) izanen da.

Aurten ere bi emanaldik osatuko dute jaialdia. Urriaren 13an, ortziralean 19:30ean Kurdistango Gani Mirzo dúo bikotea (Gani Mirzo eta Neila Benbey) ariko da Jauregian. Sarrerak salgai daude 15 eurotan. Hurrengo egunean, urriaren 14an, larunbatean 19:30ean Donamariako pilotalekuan, lehenik Etxalarko Elizagoien Ahizpak (Itsaso eta Irune Elizagoien) eta Imanol Iribarren ariko dira eta ondotik, Aragoiko O'Carolan taldeak joko du. Susana Arregi, Pilar Gonzalvo, Ernesto Cossio, Julian Ansuategi eta Miguel Angel Fraile musikariek osatzen dute O'Carolan taldea. Sarrerak 15 euro balio dute. Bi kontzertuetarako sarrerak 25 euro balio dute. Sarrerak online



Korrontzi taldea, iazko Dorrealdian.

eros daitezke papeleriatamayo.com webgunearen bidez.

Elkartasuna

Bi kontzertuetan bildutakoa Kurdistanen ISISek bahitutako neskek laguntzera bideratuko dute. Bortz urtez torturatuak, bortxatuak eta sexu esklabogisara erabiliak izan ziren. Egun errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira eta musikaren eta bertze artearen bidez, beraien bizitzak berregiten ari dira.



Mattikonea-Xalbatonea etxea, oraindik zutik zegoenean. ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaiengo Mattikonea-Xalbatonea etxea betirako galdu da

ARANTXA ETA PELLO LABAIEN

Etxe bat desagertu zaigu herrian, Mattikonea-Xalbatonea, bi bizitzarekin. Mattikonea, eraikin zaharra zen eta erortzeko arriskuan zegoenez, botatzeko erabakia hartu du Beintza-Labaiengo udalak, Iruñetik baimena eman eta gero. Etxea aspalditik hutsik zegoen eta egoera kaskarrean azken urteetan. Vianako Printzea erakundean dagoen bekeskeriak ez du lagundu etxe zahar hau konpontzen eta aurrera egiten. Zama, eraman ahalekoa izan behar du, eta horretarako, laguntza beharrezkoa da. Iruñean, ez dira konturatzen.

Mattikonea, babes integralko eraikin gisa zegoen katalogatua. Etxeak bere abizena bazuen eta ondoan Arretxea, dorretxea dago. 1392. urtean Matxingo de Arrechea *Escu-*

dero del Reino bizi zen bere soldaduekin. Trentoko kontzilioa eta gero, 1545-1563 artean, elizak jaiotako enizek jasotzen hasi zen.

Hauek izan ziren etxe honetako lehendabiziko izenak:

- 1585eko uztailaren 22an, Hernando Maitticorena Arretxe jaio zen.
- 1584ko maiatzaren 14an, Maria Maitticorena Arretxe.
- 1595eko ekainaren 30ean, Santxo Maitticorena Arretxe.
- 1678 urtean berriz, Domingo de Maitticorena Lavayen, etxe jabea. Hortik aurrera, Maitticorena abizena, Beintza-Labaienen etxe askotan izan ohi da. Abizen honekin jaiotako azkena, Robustiana Maitticorena Aldaya izan zen, 1887ko maiatzaren 26an. Salbatorena izenarekin ere ezagutu zen eta XIX. mendean Erasun abizena sartu zen.

elgorriaga
Balneario de Elgorriaga

ZATOK ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:
buffeta libre, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak, hanburgesak...

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 60 45 | www.balnearioelgorriaga.com

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integralko teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

Aurrera Kirol Elkartearen Eguna larunbat honetan

Bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna asteazkena izanen da

TTIPI-TTAPA

Aurrera Kirol Elkartearen Eguna hamabosgarren edizioa beteko du larunbatean, urriaren 7an, eta ohi bezala, egun osoko egitaraua prestatu dute.

09:00etan txistularien dianak emanen dio egunari hasiera, eta 10:00etan, Aurrerako futbolari gazteen partidak jokatu dituzte plazan. Toki berean, 11:00etatik 13:00etara hurrek ginkana izanen dute eta ordu berean rokodromoa jarriko dute Aurrerako atarian. 11:30ean pilota eskolako partidak hasiko dira plazan.

12:30ean Aurrerako dantzariak hartuko dute lekukoa eta aldi berean, urte luzez elkarteko lehendakari izan den Karlos Agirre omenduko dute. Ondoren, Incansables txaranga hasiko da eta konpartsako kideekin kalejira egingen dute.

14:30ean Aurrerako bazkideak mahaiaren bueltan bilduko dira Karrapean. Bazkarirako txartelak 27 eurotan daude bazkideentzat eta 31 eurotan bazkide ez diren bikoteentzat. Bazkide diren 65 urtetik gorakoek, bazkide langabeek eta bazkide ikasleek 15 euro ordaindu behar dituzte. Txartelak Peritzan eta Torrean eros daitezke eta horretarako azken eguna asteazkena, urriaren 4a, izanen da.

Bazkalondoren, Aurrerako bazkideek ingurutxo dantzatu dute eta segidan, Incansables txarangarekin eta buruhandiek kalejira hasiko da.

21:30ean bazkideentzat eta bazkaltiarrentzat luntxa emanen dute elkartean eta pestari segida emanez, Jose Mendizabalekin dantzaldia izanen da. DJ Brianek jarritako musikarekin borobilduko dute eguna.

Asteburu honetan antzerkia eta datorren asteburuan zinea

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, urriaren 1ean hasi zen Herri Aretoko ikasturtea eta denboraldia hasteko, *Ainarak* dokumentala ematekoa zuten, Sastrakak Leitzaldeko Feministen bilgunearekin elkarlanean. Horri lotuta, Sastrakak taldeak urriaren 28an emakumeen* mendituzulia egingen duela aurreratu du. Enaren ibilbideko zati bat egingen dute eta ondoren Belaguan elkarrekin bazkaltzeko asmoa dute. Izena emateko sastrakak@gmail.com helbidera idatzi beharko da.

Bestalde, igande honetan, urriaren 8an, hilabeteko bigarren igandea izanda, antzerkia izanen da Herri Aretoran. Pez Limbo konpainiak *Itsas Behera* antzez-lana taularatuko du. 19:00etan izanen da eta sarrerak online edo leihatilan 30 minutu lehenagotik eros daitezke.

Urriaren 14an eta 15ean, berriaz, *Django desencadenado* filma ikusteko aukera izanen da 17:00etan eta *Asteroid City* 19:30ean. Sarrerak online edo leihatilan ordu erdi lehenagotik erosten ahalko dira. Zine bonuak ere eskuragarri daude.



Azaroaren 11n egingen duten Independentzia Egunarekin borobilduko dute zikloa.

Independentziarako Indarra zikloa abiatuko du Sortuk urriaren 19an

TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, aurten ere Independentziarako Indarra zikloa abiatu du Leitzako Sortuk eta ziklo horretan «independentziarako bidean garrantzi handia duten erronken inguruko» solasaldiak antolatu ditu. Sorturen hitzetan, «independentziaren alde jarraitu behar dugulanean, gaur egun dugun erabaki ahalmena ez baita nahikoa herri bezala ditugun korapiloak askatu edota garaian garaiko erronkei erantzuteko». Bere ustez, «horretarako, ezinbestekoa da herritarren beharrak eta erronkak identifikatu eta horietan eragitea. Independentzia sustatzeak eraldaketa soziala sustatzea esan nahi du».

Horrekin batera, «momentu garrantzitsuan gaudelakoan» dago, «euskal herritarren, katalanen eta galiziarren arteko elkarlanaz, Espainiar Estatuaren

izaera plurinazionala aitortu eta gure nazioak onartzera eraman baitezakegu Madrilen osatu daitezkeen balizko gobernu». Alegia, «Madril arazo espainiarren soluzio demokratiko bat ematera behartzeko aukerak pare pare ireki ditzakegu. Arazo espainiarra diogu, bere aniztasun nazionala aitortzeko eta demokratikoki kudeatzeko gai ez den estatu bat baita arazoa». Eta horretan eragiteko, «herritarrok ere nazio bat garen aldarria eta independentziaren aldeko oihua zabaltzea ezinbestekoa da» Sorturentzat.

Bide horretan, urriaren 19an hezkuntzaren inguruko solasaldia egingen dute udaletxean, 18:30ean. Urriaren 26an, toki eta ordu berean, euskara izanen dute hizpide. Azaroaren 11n, azkenik, Independentzia Eguna egingen dute, «jai giroa eta aldarrikapena uztartuz».

Inguruartera doan bidea moldatua

Beste urrats bat irisgarritasuna lortzeko bidean. Herritar askoren gozamenerako ekain bukaeran Inguruarterako parke berria estreinatu zuten, eta berriki herritik bertara doa bidea moldatu dute.



UDALA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa urriaren 21ean Herri Aretoan

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urriaren 7an, hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa Iruritan. Horen ondoren, Uhartan eta Vianan egingen ditu geldialdiak, eta urriaren 21ean, final laurdenetako azken saioa herrian egingen dute. Herri Aretoan izanen da eta sei bertsolari ariko dira: Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta. Gai jartzailea Ander Aranburu Arriola izanen da.

Saioa 17:30ean hasiko da eta sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke.

Herritarrek txapelketan

Herri Aretoan egingen duten saioan ez da herriko ordezkariirik izanen, baina txapelketa honetan hainbat herritarrek parte hartuko dute. Bertsotan Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol eta Eki Mateorena Zozia ariko dira. Gai jartzaile taldean, berriz, Miel Mari Elosegi Irurtia *Luze* ari da eta epaile lanetan Aimar Sagastibeltza Caballero.

Aurrera Mendi Taldea indartzeko bidea abiatu dute Leitzan

TTIPI-TTAPA

«Aurrera Mendi Taldea desagertzekotan zegoen, ez zuen mugimendurik. Irteerak antolatzen zituzten eta jendea ez zen apuntatzen». Halaxe adierazi du Txoma Barriolak. Orain, ordea, egoera horri buelta eman nahian mendi taldea indartzeko bidea hasi dute.

Bi arlo landu nahi dituzte, batetik, trail edo mendi lasterketa mundua, «batez ere jende gaztea erakartzeko» eta bestetik «ohiko mendi irteerak». Mendi lasterketan kasuan hiru talde sortu nahi dituzte: hasi-

berriak, erdi mailakoak eta goi mailakoak. Hasi nahi dutenekin astean entrenamendu bat egiteko aukera aztertu dute, ikasteko. Beste taldeekin entrenatzeko elkartuko lirateke, eta asteburuetan irteerak egin. Mendi lasterketan ibili nahi dutenentzat izena emateko aukera ere zabaldu dute Whatsapp eta Instagram bidez.

Ohiko mendi irteeran kasuan, berriz, hasteko goizeko irteerak egitea proposatu dute, «Leitza eta inguruan», eta erantzunaren arabera «egun osokoa edo asteburuak...» egingen dituzte.

Txalaparta ikastaroa antolatu dute Aranon urritik abendura

TTIPI-TTAPA ARANO

Arantxa Ansa aranoarrak txalaparta ikastaroa antolatu du dohainik Aranon eta Goizuetan. Datorren astean hasiko dira Maisuenean eta abendura arte «ttakun tradizionala» erakusteko asmoa du. Duela 20 urte eman zuen azken aldiz txala-

parta ikastaroa, eta «geroztik batzuk erakusteko eskatu» izan diotela aitortu du. Horrez gain, «ekitaldi batzuetan txalaparta jotzeko jende falta» sumatu izan du, eta hala erabaki du antolatzeari. «Bukaeran, helburua herriko ekitaldietarako txalaparta bat eraikitzea izanen litzateke».

Maiatzeko uholdeen kalteak oraindik ez dituzte konpondu

Errepide nagusia konpondu badute ere, auzo bideak «oso egoera larrian» daudela nabarmendu du Joxan Ruiz alkateak

TTIPI-TTAPA

«Kezkatuta». Halaxe mintzatu da Joxan Ruiz alkatea. Ez da gutxiagorako, maiatzaren 20ko uholdeek sortutako kalteak oraindik agerikoak baitira. Nafarroako Gobernuoko Herri Lanen Departamentuak Gipuzkoako mugatik herrira doan errepide nagusia konpondu du; eta alkateak adierazi duenez, «oso ondo» utzi dute. Baina oso bestelakoa da auzo bideen egoera: «Oraindik konpondu gabe daude eta oso egoera larrian gaude». Industrialdeko sarrera «oso egoera txarrean» dagoela dio eta «Surora doan bidean, adibidez, errepide erdia jana dago, bide osoa eror daiteke. Eskola garraioa ere ez da pasatzen. Bide askotan alde batera arkaitza eta bestean amildegia dago. Zenbait etxetara joateak beldurra ematen du».

Gehiago ere esan du, «beldur garalaguntzak ez direla nahikoak izanen». Esprikatu duenez, «kalteak bi milioi euro eta erdikoak izanen direla zenbatu dugu. Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak larrialdi egoerarako dituen dirulaguntzekin, % 75eko laguntza emanen du, beti ere, herrian erroldatua daudenen eta norbait bizi den etxeetako bideak konpontzeko. Baina beste guztia nola finantzatuko dugu? Espainiako Gobernuak ez badu hondamendi eremu izendatzen, ondorioak betiko gelditzen ahal dira. Kalteakizugarriak dira, eta Aranok ez dauka aurre egiteko baliabiderik».

Egoera ikusita, «irtenbidea» eskatu du alkateak: «Denbora luzez sufritzen ari gara eta Arano ez da normaltasunera itzuli. Soluzioa behar dugu».



Goian errepide nagusia ageri da; beheko irudian industrialdeko sarrera ageri da.



Irailaren 16an Aralarren ibili ziren Arainburuko mendizaleak. ARAINBURU MENDI TALDEA

Urriaren 21ean Anayetera irteera antolatu dute

Anayetera joan nahi duenak urriaren 19a baino lehen izena eman beharko du

TTIPI-TTAPA

Sasoian eta mendirako gogotsu segitzen du Arainburu Mendi Taldeak. Duela aste batzuk, irailaren 16an, Aralar-ko paraje ederretan barrena ibili ziren, 25 lagun animatu ziren eta kontaktu zuten, gustura ibili ziren. Baina hemendik aurrerako mendi buel- tei begira ere hasiak dira, eta urtea bukatu aurretik hiru irteera egingen dituztela adie- razi dute: urriaren 21ean Anayetera (Pirinioak) joanen dira, azaroaren 18an Arriurdiñeta-Elama-Bentzuntza-Loitzate-Arriurdiñeta zirkularra egingen dute Goizuetan eta abenduaren 31n ere herrian bertan egingen dute ateraldia, Mandoegira.

Anayetera irteera

Ate joka duten mendi irteera urriaren 21ean Anayetera (2.574 m) egingen dutena izanen da. 15 kilometroko buelta izanen da, 998 metroko desnibelarekin. Arainburukoek adie- razi dutenez, zailtasuna «erdi modukoa» du eta kalkulatu dutenez, bost ordu eta erdi inguruko itzulia izanen da.



Mendizaleak Aralarren. ARAINBURU

Egun horretan 06:00etan herriko plazatik abiatuko dira eta ilunabarrean, 19:00 aldera itzuliko dira.

Irteeran parte hartzeko aurretik Elena estanko eta arropa dendan apuntatu beharko da eta horretarako azken eguna urriaren 19a izanen da. 28 lagunetara mugatu dute irteera eta bakoitzak bere hamai- ketakoa eta bazkaria eraman beharko ditu. Aldatzeko arropa eramateko ere aholkatu dute eta autobusa 20 euro ordaindu beharko da izena ematerakoan. Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ez- beharren erantzule egingen.

Azaroko eta abenduko irteeren berri aurrerago emanen du Arainburu Mendi Taldeak.

'Elikadura sistema osasunaren begiradatik' hitzaldia

Sukaldean hezi, elikaduran hazi, familian bizi eta mundua aldarazi lelori eutsiz, lanean segitzen du Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako gurasoek, hezitzaileek, profesionalak eta eragileek sortutako Kikilisalda lantaldeak. Aldi honetan, hitzaldi bat antolatu du Goizuetan: *Elikadura sistema osasunaren begiradatik* izenburupean. Asteazken honetan, urriaren 4an, egitekoa da, udaletxeko ganbaran, 16:30ean.

Goiuri Alberdi Aresti elikadura sisteman eta agroekologian aditua izanen da hizlaria.

'Ta argiya iñ zan' lana ikusgai urri bukaeran

Urriaren 27an *Ta argiya iñ zan* ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izanen da herrian. Urumea Bailarako zentral hidroelektrikoei buruzko lan artistikoa da, Eli Pagola Apezetxeak eta Ainhoa Gutierrez del Pozok egindakoa. Biharamunean, berriz, horri lotuta irteera egingen dute.

Banda zabala baserrietara eramateko aukera

Banda zabalaren inguruko hainbat lan eta instalazio egin dituzte herrian. Horren hari- ra, Sisnet enpresaren bitartez, baserrietarrei horren inguruko proposamena eta aukera eskaini nahi diete orain, eta nondik norakoak azaltzeko eta zalantzak argitzeko bilera egingen dute ostiral honetan, urriaren 5ean. Udalak jakinarazi duenez, Sisnet enpresako kidea ostiraleko bileran izanen da azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko. Hitzordua udaletxeko ganbaran egin dute, 19:00etan.

Txalaparta ikastaroa datorren astetik aurrera

Arantxa Ansa aranoarrak txalaparta ikastaroa antolatu du Goizuetan eta Aranon. Saioak dohainik izanen dira eta astear- tetan bilduko dira eskolan. Lerro hauek idazterakoan ordu- tegia zehaztu gabea zuten, bai- na datorren astean hasiko dira eta urritik abendura izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mitxelkoko Florentinak 101 urte

Egun seinalatu izanen da urriaren 15a, egun horretan 101 urte beteko baititu herriko emakumerik zaharrenak: Mitxelko baserriko Florentina Loiarte Arotzenak. Florentinaren ama Maria Arotzena ere ehun urtetara ailegatu zen, eta Paulo Loiarte aita 98 urtetara. Zorionak, Florentina!



Eskolako neska-mutikoeek harrera bikaina egiten diote liburutegi ibiltariari.

Liburutegi ibiltaria hamabostean behin etorriko da eskolara

Liburuak hartuta ostiraletan etorriko da Elena Arteta Leitzako liburuzaina

ENERITZ IRAOLA

Nazabal eskolako ikasleek bisitaren bat estimatzen badute, hori Elena Arteta Leitzako liburuzainarena da. Kotxea liburuz bete eta hamabostean behin, asteazketan, eskolako ikasleengan etorri zen pasa den ikasurtean. Liburuekin batera,

literaturaren bueltan ongi pasatzeko hamaika proposamen ekarri zituen: ipuinak, jolasak... denak irakurzaletasuna sustatzeko asmoarekin.

Aurten, segida izango du egitasmoak eta hamabostean behin, ostiraletan, etorriko da eskolara.



NAZABAL ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru ikasle berri Nazabalen

Lehenbiziko asteetako egokitzapena bukatuta, beste ikasleekin batera gustura dabilta Mara, Yerai eta Irati. Nazabal eskolako ikasle berriak dira eta pasa den urtean Leitzarako bidea hiru ikaslek hartu zuten, ikasle kopurua mantendu eta 29 ikasle izango dira aurten ere eskolan.

Azokarekin eta antzerkiarekin goxatutako igandea

E. IRAOLA

Irailaren 24an herrian bertan plan borobila osatzeko aukera izan zuten herritarrek. Goizean Mendialdeko Azoka Ibiltaria egin zuten plazan eta arratsaldean Berrobiko Txalo Talo antzerki taldearen *Zaharrak berri* antzezlanaz gozatu zuten.

Plazako platanondoan gerizpean postuak txukun jarriak zituzten goizean goizetik nekazariak, abeltzainak eta artisauak. Aurreikusiak baino postu gutxiago jarri zituzten, baina, hala ere, zer ikusia eta erosia ez zen falta izan. Sasoiko barazkiak,

Aresoko banabarra, bertako txekor haragia, gazta, txokolata, bitxiak, osagarriak, ukenduak, apaingarriak... denak Mendialdean ekoiztuak.

Arratsalderako ere bazuten aresoarrek proposamena. Txalo Talo taldeak *Zaharrak berri* emanaldia eskaini zuen udal-etxeko batzar aretoan. Handia izan zen sortu zuen ikusmodua eta txiki gelditu zen aretoa. Taula gainera igo ziren aktoreek saio bikaina eskaini zuten, garai bateko eta egungo bizimodua alderatuz. Umorea, kritika... Denetarako tartea izan zuten.



Goian azokako irudia eta behean antzerkia. Txiki gelditu zen aretoa. E. IRAOLA

Kinto bazkariaren harira zuzenketa

Aurreko aldizkarian kinto bazkariaren berri ematerakoan hanka sartu genuen urteak aipatzean. 1959tik 1964ra artean jaiotakoak izango dira larunbat honetan, urriaren 7an, mahaiaren bueltan elkartuko direnak. Egun polita pasa dezatela.



«Donostiako Orfeoian sartzean nire ametsa bete nuen»

MAIALEN BRAÑA AGERREBERE ELIZONDOKO ABESLARIA

Ttikitatik izan du gustuko kantatzea Maialen Braña elizondoarrak, eta Donostiako Orfeoian abesten du gaur egun. Bertan bizitako esperientziak aritu da TTIPI-TTAPArekin

R. OSKARIZ ELIZONDO

35 urteko neska elizondoarra da Maialen Braña Agerreberre, «lanbidez irakaslea eta musikazale amorratua». Kantatzea gustuko du, eta 2015etik Donostiako Orfeoian abesten du.

Zer da musika zuretako?

Bizitzako osagai garrantzitsua bat, nire egunerokotasunean aunitzetan presente dudana. Ttikitatik izan dut zaletasun hau, eta aunitz gustatzen zait kantatzea eta musika aditzea.

Zein musika klase duzu gustuko?

Denetatik entzuten dut, baina gehienbat pop, euskal musika eta klasikoa.

Noiz hasi zinen kantuan eta nolako formakuntza izan duzu?

9 urterekin solfeoa hasi nuen Asun Iturriarekin, eta hor dezente kantatzen genuen. Baina ahots-teknikako klaseak hartzen 15 urterekin hasi nintzen, Elizondoko Abesbatzako zuzendariarekin. 2005ean, 17 urterekin, Iruñeko Maria Eugenia Echarren Kantu Eskolan hasi nintzen, eta han egon nintzen hainbat urtez. Orain Donostiako Orfeoian kantatzen dut, eta entseguen aparte bokalizazio klaseak ematen ditut. Formakuntza etengabea da eta praktikatzea ona da beti, gauzak ikasteko eta zeure instrumentua hobe ezagutzeko balio baitu.

Kantatzen ez ezik, akordeoia jotzen ere badakizu, ezta?



«Lanbidez irakaslea eta musikazale amorratua» da Maialen Braña. UTZITAKOIA

Bai, 9 urterekin hasi nintzen. Momentuan eskaini zidaten instrumentua izan zen eta gustatu zitzaidanez segitzea erabaki nuen. Noizbehinka jotzen segitzen dut oraindik,

«FORMAKUNTZA ETENGABEA DA, BETI IKASTEN DUZU ZERBAIT»

Elizondoko Musika Eskola-koekin ateratzeko deitzen badidate, adibidez.

Bertze instrumenturik jotzen duzu edo jotzen ikastea gustatuko litzaizuke?

«KONTZERTUEN AITZINETIK BETI DUGU EMOZIO PUNTU HORI»

Pianoa eta organoa jotzen ere badakit, baina orain guttitan jotzen ditut. Eta beti gustatu izan zait zeharkako txirula, atentzioa eman dit ttikitatik eta jotzen ikastea gustatuko litzaidake, baina orain ez dut denbora aunitzik...

Noiz sartu zinen Donostiako Orfeoian?

2015eko uztailean sartu nintzen.

Eta zein ahotsetan abesten duzu? Sopranoa naiz, bigarren sopranoa zehazki.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Esperientzia arras positiboa eta ona; gustuko dudana zer bait egiten ari naiz eta gainera aunitz ikasten ari naiz. Auditorio aunitz ezagutzeko aukera ematen du, eta hainbat zuzendari eta orkestrekin egiten dugu lan, arras onak direnak.

Leku haundietan kantatzeko aukera izan duzu?

Bai, batzuk aipatzearen; Londreseko Royal Albert Hallen, Rotterdameko De Doelenen, Municheko Auditorioan... eta iaz Erroman egon ginen kantatzen, Vatikanon, Orfeoaren 125. urteurrenean. Hemendik hurbilago ere hainbat lekutan ibili gara: Madrilgo Auditorio Nacionalen eta Teatro Realen, Zaragozako Auditorioan, Frantziako Festival de Rocamadourren eta Festival de Carcassonnen... Leku aunitz ezagutzeko aukera izan dugu.

Erraza da horrelako publiko haundien aitzinean kantatzera ateratzea?

Egia da denborarekin eta esperientziarekin jartzen zarela, baina beti izaten da urduritasun edo emozio puntu hori atera aitzinetik. Esperientzia bereziak eta paregabeak izaten dira.

Orfeoia exijentea da egunerokoan?

Bai, musika kirol bat bezalako da eta ahotsa entrenatu egin behar da. Normalean astean hirutan egiten ditugu



2015ean sartu zen Braña Donostiako Orfeioan, eta bigarren sopranoa da gaur egun. IÑIGO IBAÑEZ / DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

entseguak, baina horretaz aparte entsegu estrak eta kontzertuak daude. Orkestra batekin emanaldi bat egin behar badugu, adibidez, orkestrakoak etortzean entsegu behar izaten dugu, entsegu eguna ez bada ere. Bidaia bat egiterakoan ere denbora aunitz sartzen dugu. Hortaz, asteen hiru aldiz da ohikoa baina gehiagotan ere elkartu behar izaten dugu. Azken finean, Orfeoia bizitzeko modu bat da; zure denbora libreko ordu aunitz eskaini behar dizkiozu eta urtean beharbada 200 egun bertako jendearekin pasatzen dituzu; entseguak, kontzertuak, bidaia... aunitz maite duzun zerbait izan behar du. Baina musikaz aparte, bertze gauza onak ere baditu; hainbertze ordu sartuta elkarren lagunak egiten gara eta gure arteko harremanak sendotzen ditugu.

Zein kanta estilo abesten dituzue?

Normalean, Orfeoiaren espezialitatea edo ohiko erreperatorioa, sinfoniko korala izaten da, hau da, klasikoa. Baina hortaz aparte bertze estiloak ere landu izan ditugu, adibidez, Mariachi Vargasekin proiektu bat egin genuen, pop abestiko emanaldia egin izan dugu eta habanerak ere kantatu ditugu. Euskal folkloreko edo euskal konpositoreen abestiak ere aunitzetan abesten ditugu. Erreperatorio zabala dugu.

Horri esker, hizkuntza aunitzetan kantatzeko aukera edukiko duzue, ez?

Bai. Latina edo alemana dira erreperatorio aunitzetan heldu diren hizkuntzak, baina euskaraz, gaztelaniaz, erru-

«BIZITZEKO MODU BAT DA, ORDU AUNITZ SARTU BEHAR DIRA»

sieraz, ingelesez, frantsesez... ere kantatzen dugu. Hungarieraz ere kantatu izan dugu abestiren bat. Esperientzia aberasgarriak bizitzeko eta gauza berriak ikasteko balio digu honek.

Musikarekin betetzea gustatuko litzaizukeen amets edo helbururik daukazu?

Nire ametsa Donostiako Orfeioan sartzea izan da beti. 15 urtetatik izan naiz Orfeioiko jarraitzailea eta egunen batean hemen kantatzera iritea zen nire ametsa, beraz, bete dudala erran dezaket.

Lanbidez irakaslea zara. Beti izan duzu argi irakaskuntzan aritu nahi zenuela?

Bai, beti gustatu izan zaizkit haurrak eta irakastea.

«MUSIKAK EMOZIOAK ADIERAZTEN LAGUNTZEN DIGU»

Erraza da lana eta abesbatzako zereginak uztartzea?

Ez, ez da beti erraza. Kontzertuak hurbil baldin badira, Donostian, Gasteizen, Bilbon edo Iruñean, errazago da, baina bidaiaren bat opor egunetatik kanpo tokatzen bada ez. Aste tartz edo ikasturtean izaten diren bidaietara ez dut beti posible izaten joatea, baina ahal dudan guzietan joaten saiatzen naiz.

Lanean ere musika presente duzu. Tresna pedagogiko ona da?

Bai. Musikoterapia ikasi dut eta frogatuta dago ikasleen garapenean arras erreminta ona dela. Musikak emozioak adierazten laguntzen digu, eta pertsona batzuk errazago komunikatzen dira musikaren bidez.

Zein dira zure asmoak etorkizunera begira?

Orfeioan segitzea, ikasten jarraitzea eta musikaz disfrutatzea.



Besta giroa izanen da nagsui heldu den astean Gartzainen. ARTXIBOTIK

Gartzaingo bestak ospatuko dituzte urriaren 11tik 14ra

Herriko gazteek hainbat ekitaldi antolatu dituzte lau egunetarako

TTIPI-TTAPA

Urriak 11, asteazkena. 16:00etan txupinazoa eta ez-kila jotzea izanen dira beste hasmenta emateko, 16:15ean mus txapelketa eta 21:30ean baztan zopak frontoian. Ondotik dantzaldia izanen da DJ Bullekin.

Urriak 12, ortzeguna. 12:00etan meza nagusia izanen da Ariztegiko ermitan eta ondotik luntx herrikoia. 18:00etan Los Tajudos del Norte mariatxiak frontoian eta 20:00etan bailableak Baztango gaiteroekin. 21:30ean bokatak izanen dira.

Urriak 13, ortziralea.

14:00etan gazte bazkaria Ariztegin eta haurren bazkaria herrian. 16:30ean auzoari buelta musikarekin eta 17:30ean haurren eta gazteen jokoak. 20:00etan dantzaldia Gabenara taldearekin, 21:00etan afari herrikoia frontoian eta 00:00etan dantzaldia berriz ere Gabenarekin.

Urriak 14, larunbata.

12:00etan boneta jaurtiketa. 14:00etan zikiro jatea frontoian eta ondotik dantzaldia DJ Kapitan Generalekin. 00:00etan Gaixoa ni eta besten akabaila DJ Kapitan Generalekin.



JUAN MARI ONDIKOL ETA ELI BARRENETXE

Giro bikaina Elbeteko bestetan

Irailaren 13tik 17ra bestak ospatu zituzten elbetarrek eta giro ederra izan zuten herrian. Hala ere, ez zen dena polita izan; tikien txopoa bota zuten, pintadak eta kristal hautsiak agertu ziren... Herritarrek kalte hauek salatu dituzte, eta eskerrak eman diete Elbetara ongi pasatzera hurbildu ziren guziei.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 LESAKA

T. 948638077

Hainbat ekimen kultural izanen dira urrian Baztanen

Baztango Kultura Zerbitzuak hilabete honetako jarduerak bildu ditu agenda kulturalean

TTIPI-TTAPA

Eskola ttikien besta

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Eskola Ttikiek urteroko besta egingen dute urriaren 8an, eta aurten Almandozen bilduko dira, egun osoko egitarauarekin.

Baztan Kantuz Almandozen

Kantatzea gustuko dutenek Almandozen izanen dute hitzordua hilabete honetan, urriaren 15ean 12:00etan herriko plazan.

'Luze edo motz'

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak haien binakako bakarrizketa aurkeztuko dute urriaren 15ean, igandea, 19:00etan Arizkunenean. Ikus-kizuneari generoa hartuko dute umoregai, «gure gizartea zertan luze eta zertan gelditzen den motz galdetzeko».

Musika emanaldia

Arizkunenean

Folk Ametsetan zikloaren barnean, Mairü orkestra ttikiaren kontzertua izanen da urriaren 29an 19:00etan Arizkunenean.

Instrumentu elektronikoak eta organikoak elkartzen ditu taldeak bere sorkuntzetan.

Azokak Elizondon eta Erratzun

Urriaren 7an, 14an, 21ean eta 28an Baztango Zaporeak eta Artisauen azokak izanen dira Elizondoko plazan goizez. Erratzuko artisauek, aldiz, azoka bakarra egingen dute urrian, 15ean goizez plazan.

Udazkena liburutegian

Baztango Liburutegi Publikoak ere hainbat jarduera antolatu ditu udazken honetarako. Hilabeteko bigarren asteartetan 18:30ean poesiako irakurle taldea izanen da. Hilabeteko hirugarren ortzegunetan, aldiz, helduendako komiki taldea bilduko da 19:00etan. 4-10 urteko haurrendako, hilabetean asteazken batez ipuin kontaketa izanen da, eta gainerako asteazkenetan eskulanak egingen dituzte. Ortziriletan, berriz, mahai jokoetan aritzeko aukera izanen da. Honez gain, hitzaldiak, kontzertuak, erakusketak eta bertzelako ekimenak izanen dira.

izanen dute Elektrotxorrogok alaitua eta 14:00etan bazkaria egingen dute elkartean. Ondotik mahai inguruko kantaldia izanen da Modestorekin, eta 19:00etan dantzaldia egingen dute. Eguna borobiltzeko, 00:00etan DJ Xuritabeltzen emanaldia izanen dute.

Erratzuko errebestak ospatuko dituzte larunbatean

TTIPI-TTAPA

Besta ttikiak ospatuko dituzte urriaren 7an Erratzun, eta egun osoko kartela prestatu dute herriko gazteek.

Eguna hasteko, dianak izanen dira goiz-goizetik, 08:30ean herriko gaiteroekin eta 10:30ean txistulariekin. 12:00etan poteoa



IZASKUN ALMANDOZ

Giro polita Oharrizko bestetan

Urteroko gisan, auzoko bestak ospatu zituzten Oharrizen irailaren 23an. Auzoko etxe guzietako eta beraien familietako 50 lagun elkartu ziren bestaren protagonista den bazkarian eta ondotik kantuan eta dantzan aritzeko aukera izan zuten gauera arte akordeoi soinuaren laguntzaz.

Amaiurko errebestetan ere giro ederra

Errebesta bereziak izan dira aurtengoak Amaiurren, izan ere, Joseba Iztueta eta Ekaitz Maiz mendizaleak izan ziren herrian *Amaiur Peak* bideo emanaldia aurkezteko eta jendetza bildu zen. Hurrengo egunean giro ederra izan zuten zikiroan eta dantzaldian.



Iztueta eta Maizen aurkezpena. ANE G.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com


Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material, erabat pertsonalizatuta



BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutsaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

IKERTU NAhiEN mugaz gaindiko topaketa Baztanen

Urriaren 20an egingen da topaketa eta egun osoko egitaraua izanen du, trantsizio ekosoziala helburu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak koordinatua, IKERTU NAhiEN mugaz gaindiko proiektua abiatu zen iaz, NUP, ESTIA, EHU eta Les Ate-liers de Jours à Venir erakundeekin batera. Helburua Euroeskualdean (Akitania Berrian, Nafarroan eta Euskadin) gaur egun landa eremuak dituen arazo, behar eta erronkei aurre egitea da, horretarako mugaz gaindiko ikerlarien sare bat sortuz.

Baztango landa eremuan murgiltzeko, topaketa egingen dute hilaren 20an. Egun oso-

ko egitaraua izanen du: 09:30ean harrera ekitaldia, 10:30ean paseo kolektiboa landa eremuan, 13:30ean bazkaria, 14:30ean ikerketa metodologikoen gaitasunari buruzko debatea eta 17:00etan itxiera. Goizeko paseoan tokiko eragileengana hurbilduko dira, «modu kolektiboan entzuteko eta pentsatzeko». Arratsalden horri buruzko hausnarketak egingen dituzte.

Izen ematea urriaren 9ra arte egin daiteke, udalak zabalduko galdetegiaren bitartez.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen saioa Iruritan jokatu dute

TTIPI-TTAPA

29 bertsolarik eman dute ize-na aurtengo txapelketan, eta aurre-kanporaketak eginda, 24 arituko dira hurrengo saioetan, tartean Urko Gartzia leka-roztarra.

Urriaren 7an, larunbata, hasiko da txapelketa, Irurita-

ko Gizarte Bilgunean 17:30ean egingen dute lehen final-laurdenarekin. Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez lesakarra, Sarai Robles, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Egoitz Gorosterrazu iturendarra ariko dira kantuan, eta Maialen Belarra deneztebarra gaiak jartzen.



ANTOLAKUNTZA TALDEA

Arrakastatsuak izan dira Izpegiko bestak

Baztandar eta baigorriarren arteko harremanak sendotzeko, Izpegiko bestak egin dituzte aurten lehenbizikoz, eta jendetza bildu zen mendatean. Gauean argindarrak huts egin bazuen ere, «gaualdiarekin segitzea lortu genuen» eta antolatzaileek eskerrak eman dizkiete musikariei eta hurbildutako guziei.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kantfonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

ORBEA
PINARELLO
moustache
MOOTV

BERGAMONT
BH
LAPIERRE
MERIDA

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ

T. 948 452 143 - 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



Jendetza ibili da Elizondon behi piriniotarren ferian

Behi azienda piriniotarraren XXXIV. lehiaketa enkante nazionala ospatu zuten irailaren 23an eta 24an Merkatuko plazan

TTIPI-TTAPA

Larunbatean behi eta zezenen erakustaldiak egin zituzten, eta bertako artisauen azoka ere izan zen herrian. Igande goizean Nafarroako Aratxearen haragi dastaketa egiteko aukera izan zen eta eguerdian sari banaketa egin zuten.

Saridunak

Aziendak 13 adin tartetan banatu zituzten sariak emateko, eta hauek izan ziren irabazleak: emeetan Jon Koldo Bikandi (Iurretan), Juan Antonio Ustarroz (Senosiain), Iosu Ostiz (Olague), Leire Amundarain (Orozko), Maria Nela Vittorini (Zenotz) eta Aitor Arana (Arrasate). Arretan, berriz, Angel Mitxelena (Irurita), Maria Nela Vittorini, Juan Antonio Ustarroz eta Dolaetxe elkarteak (Oñati).

Sari bereziak ere banatu zituzten. Bururik onena: Carlos eta Laura Oroz (Hiriberri-Artzibar), Intseminazio artifizialeko arra: Dolaetxe elkarteak, Intseminazio artifizial emea: Juan Antonio Ustarroz, Adierazgarri genetiko oneneko arra: Leire Amundarain, Adierazgarri genetiko oneneko emea: Garikoitz Nazabal (Zaldibia), Baztango arrik onena: Angel Mitxelena, Baztango emerik onena: Juan Jose Iñarrea (Erratzu), Intseminazio artifizialaren erabilerak: Iñiguez anaiak (Zudairi), Ustiatketaren ugalkortasuna: Aritz Girones (Jaitz) eta Nafarroako Aratxea: Jesus Mari Zabaleta (Oibar) eta Carlos eta Laura Oroz.

Akitzeko, antolakuntzak omendialdia egin zien Marian Zestauri eta Fermin Barzabali, egindako lanaren eskertza gisa.



Eguraldia lagun, jendetza bildu zen asteburuan Elizondon. ALICIA DEL CASTILLO

MUGARKI
ROKODROMOA ETA GIMNASIOA

622 90 30 55 • kaixo@mugarki.com • @mugarki_Ordeki poligonoa. ARIZKUN

ANELAN
LAN BERTIKALAK

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174
info@anelan.pro

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ZUGARRAMURDI

Apezaren etxearen lehen enkantean ez da eskaintzarik izan

Apezpikutzaren eraikinerako guttieneko eskaintzak 200.000 eurokoa izan behar zuen eta ez zuen nihorek interesik agertu

MARIFA ETA KORO

Apezaren etxearekin komedietan gabiltza. Aspalditik erabili gabe dago eraikina, eta hondatzen hasia da, baina Apezpikutzarena omen da, beraz, herriak ezin du deus ere egin. Gauza da abuztuan ezuste polita hartu genuela herrian, Apezpikutzak etxea enkantera aterako zuela jakin baitzen.



Apezaren etxearen aitzin alde.



Atea eta ateburua.

Enkantea hutsik

Parte hartu nahi zutenek 200.000 eurotik goitiko eskaintza egin behar zuten, eta enkantean sartu ahal izateko aitzinetik 20.000 euroko fidantza ordaindu. Azkenean ez zuen nihorek interesik erakutsi, eta bere horretan gelditu da.

Zein ongi herriarentzat gel-dituko balitz!



MARIFA ETA KORO

Kaioak bisitari gure belaietan

Azkeneko urte hauetan bisitari berriak ditugu. Itsas aldekoak dira eta hegan etortzen dira: kaioak. Lehen gauza bitxia bezala ikusten baziren, orain arrunta da gure belaietan pausatuak eta bazka bila ikustea. Batez ere belarra moztu ondotik ikusten dira, zizare eta mamurro bila.

105.000 eurotan egingen dute Goiburuko ur-deposituan araztegia

Basaburua karrikan garrantziko bi lan egingen dituzte ondoko hilabeteetan. Bata Herriko Etxeak martxan emana: Goiburuko ur-deposituan araztegia egingen dute. Horretarako, deposituaren gaineko aldean lurrak mugituz tokia egingen dute eta han jarriko

dute araztegia. Orain arte uraren kalitatea kloroa emanez lortzen zen, baina hau martxan jartzen denean bertze filtro sistema batek ere lagunduko du ura edangarria izaten. Bengotxea eraikuntzak irabazi du lan hau egiteko enkantea, eta 105.000 eurotan egingen du.



TOKIKO PRODUKTUAREN 8. ASTEA

www.semanadelproductolocal.com
Iruña / 2023ko urriaren 9tik 15era

Nafarroako kalitateko eta hurbileko elikagaien 45 ekoizle baino gehiago Gazteluko plazan. Eta horrez gain, dastaketak, pintura-lehiaketa, zinema-eta gastronomia-zikloa, eta familia osoarentzat jarduerak.

ANTOLATZAILEAK





Baigorriko eta Baztango gazteak, udaberrian Amaiurren egindako topaketan.

Baigorriko eta Baztango gazteen topaketa bigarrenenez

Udaberrian Amaiurren bildu ziren eta urriaren 21 eta 22ko asteburuan Baigorriko Oronozia aterpetxean elkartuko dira

TTIPI-TTAPA BAIGORRI

Urriaren 20tik 22ra iraganen da Baigorriko eta Baztango gaztetxoek bigarren topaketa. Udaberrian trukaketa Amaiurren gauzatu bazen, udazken honetan Baigorriin egingen da, Oronozia aterpetxean.

«Egonaldi hauen helburu nagusia bi haranetako biztanleriaren, eta kasu honetan, gazteen arteko harremana sustatzea da, etorkizuneko sareak ehuntzeko asmoz». Halaxe jakinarazi zuten irailaren 28an Baigorriko herriko etxean egindako aurkezpenean. Agerraldian izan ziren Fernando Anbustegi Baztango alkatea, Baigorriko herriko etxeko Betti Bidart eta Isabelle Arangoits kontseilariak, Laura Andresena Zubigarai Baztango udaleko gizarte langilea eta Bixente Hirigarai Labegerie Baigorriko animazio langilea.

Egitarau erakargarria

Aurkezpenean erran zutenenez, egitarauak ahal bezain erakargarria izan nahi du. **Urriaren 20an**, ortzirale arratsean, harrera egingen zaie gazteei eta



Gazteak jostetan Amaiurko plazan.

elkar-ezagutza jokoak proposatuko dituzte.

Urriaren 21ean, larunbat goizean lurpera sartuko dira Bankako meategiak bisitatzeko eta arratsaldean uretan murgilduko dira, raftinga egingez Bidarrain.

Urriaren 22an, igandean pintxo lehiaketa bat proposatuko zaie taldeka. Sukaldean prestatutakoa jastatu eta gero, bakoitza bere etxera itzuliko da.

Egonaldia urririk da. Baztango eta Baigorriko udalek antolatzen dute.



UTZITAKOIA

Pentsiodunen lehen elkarretaratzea

Baztan-Bidasoko pentsiodunek ikasturteko lehenbiziko elkarretaratzea egin zuten irailaren 18an Elizondon, guttienerako 1.080 euroko pentsioa eskatzeko. Azaldu dutenez, «Nafarroako Gobernua ia osatuta, ailegatu da aldarrikapen zehatzak bere mahai gainean jartzeko tenorea».



TTIPI-TTAPA

Ttipi-Ttapako laguntzaileen bazkaria

2019tik ezin elkarturik izan ondotik, irailaren 23an egin zuten Ttipi-Ttapako langile, berri eta iritzi emaile, argazkilari eta gainerako laguntzaileen bilkura Elizondon. Denak ez ziren han, baina Arizkunenean egindako bileraren ondotik Eskisaroi jatetxean bazkaldu eta kontu kontari aritu ziren.



«Hemen ez zegoen guretako lanik eta Ameriketara joan ginen»

PABLO OLAIZOLA ESPELOSIN AMERIKETAN ARTZAIN IBILITAKO URDAZUBIARRA

Garai hartan bertze euskaldun aunitzek bezala, «sos batzuk ateratzeko» Ameriketara artzain joan zen Olaizola. Zazpi urte eskas eman zituen han eta orduko bizipenez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA URDAZUBI

Duela 60 urte baino gehiagoko kontuak dira, baina Pablo Olaizola Espelosinek (1942, Urdazubi) ez ditu atzenduak gazte garaiko bizipenak. Bertze euskaldun aunitz bezala, Ameriketara joan zen artzain, berak dioen bezala, «beharko, sosa izateko, hemen ez baitzen deus!». Urdazubiko Sastarenea etxean sortu zen, hiru haurrideko familian, eta aski gazterik tokatu zitzaion lanean hastea. Ameriketarako bidea ere fite hartu zuen: 18 urterekin joan zen, eta zazpi urte eskas eman zituen han. Gaur egun, Urdazubiko Aroztegia bizi da, eta hantxe kontestatu dizkio galderak TTIPI-TTAPARI.

Ameriketako oroitzapenak, han egindako lagun onak eta pasatutako momentu gogorak... Denak izan ditu hizpide. **Nolako haur denbora izan zenuen?** Etxean hiru haurride ginen, eta garai hartan ogi eta arto aunitz jaten genuen. Baina egoera konplikatu zen eta 14 urterekin diputazioarendako pinua sartzen hasi nintzen. 16 urterekin, berriz, gauez kontrabandoan hasi nintzen, alkoholdoiekin eta puruekin... Beharko zerbait egin sos batzuk hartzeko! Baina hura arras gogorra zen, gauez ibili behar eta tiro tartean, arrisku handia izaten zen karabinerok eta guardiekin. Hura ez zen bizitzeko manera. **Eta Ameriketara artzain joatea erabaki zenuen...**



Pablo Olaizolak 81 urte ditu eta Aroztegia etxean bizi da. ALIZIA OLAIZOLA

«AMERIKETAN MAKURRENA BAKARDAEA IZAN ZEN»

«GAU ETA EGUN ARDIEKIN EGON BEHAR IZATEN GENUEN»

«MALETA BATZUK BEZALA EGIN GENUEN HEMENDIK HARAKO BIDAIA»

«LAGUN ONAK EGIN NITUEN. BATZUK BUELTATU GINEN BERTZEAK EZ...»

Bai, 1960an, 18 urterekin, Ameriketara joan nintzen. Hemen ez zegoen guretako lanik. Denbora haietan gazte aunitz Frantziara oihanera joaten ziren lanera, eta bertze aunitz Ameriketara artzain. Nik ere halaxe egin nuen.

Nola egin zenuten bidaiak?

Paperak Elizondon Ana Mari Marinek egin zizkigun. Ez nintzen bakarrik joan, baginen jende andana! Urdazubitik bakarra nintzen, baina Baztan aldetik aunitz: Amaiurtik, Erratzutik... Taxieta Elizondotik Irunera joan ginen, Irunen tren hartuta Parisera, Parisetik New Yorkera abioian, ondolik Los Angelesera eta handik Bakersfieldera. Petxuan bagenuen paper bat eskribitua, norengana joaki ginen jakiteko. Gu sortze Azpilkuetakoa zen Mendibururengana joan beharrak ginen, eta aireportu guzietan norbait izaten genuen esperoan. Gizon bat etortzen zen eta petxuan genuen paperari begiratu eta batzuk alde batera eta bertzeak bertze aldera bidaltzen gintuen. Maleta batzuk bezala joan ginen.

Harat ailegatu orduko artzain hasi zinen?

Bai, bai, 2.000 ardirekin artzain. Ardiak erditzen zirelarik, laguntzaile izaten genuen, lan aunitz izaten baitzen. Gau batez igual ehun ardi erditzen ahal ziren, eta igual 130 bildots jaio. Ez bazenuen segidan lotzen, bildots aunitz galtzen ziren eta halakorik ez pasatzeko, gau eta egun ardiekin egon behar izaten genuen. Erditu ondok, ordea, udan, gure astoa, jatekoa eta kanpin denda hartuta, ardiak eta bildotsak goi mendietara eraman behar izaten genituen, bazka zegoen tokietara, eta han bakar-bakarrik denbora luze egoten ginen. Oinez Nevada-ko mugan dagoen Moonlake-ra joandakoa naiz, hemendik Madrilera baino urrunago.

Gogorra izanen zen, ez?

Bai, bai, gogorra. Jateko eta edateko faltarik ez genuen izaten. Neguan karabana iza-

ten genuen, eta han gasa. Udan, mendian, berriz, haizea zelarik ogia eta gasna izaten genituen, eta haizerik ez bazen, nahiko jatekoa eta edatekoa izaten genuen. Baina bakardadea triste da, eta aunitzetan zakurrekin aritzen ginen solasean. Gainera, gazteak ginen... Enkargatuak gauetz ez ibiltzeko erraten zigun, koioteak aditzen baitziren mendi batetik bertzerera uluka. Lehenbizian izutzen ginen, eta enkargatuak zakur basak zirela erraten zigun. Kriskitin suge aunitz ere izaten ziren. Ardiei ausiki egiten bazieten, oren baten buruan hiltzen ziren, eta nagusiak ez zigun sekula deus eman guri ausiki egiten baziguten emateko.... Zer axola zitzaion ba? Azien dak bezala ginen. Suerte izan genuen ez baikenuen bazka tartean halako sugerik zangopilatu, bertzela... Baina makurrena bakardadea izan zen. Han hilabeteak urteak bezala ziren.

Herrira ere ez zineten jausten?

Nola ba! Ardiak nola utzi behar genituen? Besta kontu ere ez genuen egun bakar bat ere hartu. Han piknikak izaten ziren, baina guk ez genuen aukerarik izan, ezta bakantzarik ere. Kontratuan hala eskribitua zen, baina nagusiek nahi zutena egiten zuten gurekin.

Ongi irabazten zenuten?

Hilabetean 215 peso ematen zizkiguten. Han hori ez zen deus ere, miseria bat, baina hemengo bizia ikusita bazen sos pixka... Baina han bada-kizu bakeroek eta esne saltzailleek zer irabazten zuten denbora haietan? Ederki probesten ziren, beti pobreen bizkar.

Hango anekdotak ere izanen dituzu. Baten bat kontatuko zeniguke?

Bai, badut istorio bat, eta ez da batere polita, Imperialen, Mexikoko mugan pasatua. Ailegatu orduko ezagutu nuen hura toki tristeza zela, txabola txar batzuetan jende aunitz... Han gure nagusiak 3.000 antxu zituen. Egun batzuk ongi joan



Olaizola 1960an 18 urterekin artzain Bakersfielden.



Olaizola Ameriketara. Goiko lerroan, eskuinetik hasita lehenbizikoa.

ziren, baina gau batean, bi orenak aldera, zakurrak sainga eta sainga hasi ziren. 'Baduk hemen zer bait' erran nion neure buruari, eta lau gizonetako ikusi nituen. Nire karabanari jo eta jo hasi ziren, ingelesez handik ateratzeko erranez. Haragia pikatzeko nabala eskuetan hartu eta atearen parean gelditu nintzen, ez nuen bertzerik. Hura momentua, burua ere joan zitzaiz-

dan... Azkenean, ez nintzela ateratzen ikusita, etsitu ziren. Han ez nintzela izanen pentsatu izanen zuten. Korralera joan ziren, eta joan zirelarik, lasterka alpapa (luzerna) zelaira joan nintzen, galtzontzi-letan. Momentu hartan ez nuen hotzik ez! Han etzan nintzen. Korrallean zalapartaka ibili ziren, eta antxuak ere eramane zituzten. Haiek joan zirelarik berriz karabanara

bueltatu nintzen. Huraxe izan zen Ameriketara pasatu nuen gaurik txarrena. Biharamunean, egunero bezala, arrantxoko nagusia niregana gosaltzera etorri zen, eta zer pasatu zitzaidan kontatu nion. Han gehiago ez nintzela egonen erran nion, edo bertzela, erri-flea ekartzeko. Nagusiari abisatu zion, eta berehala etorri zen abioian. Trankil egoteko erran zion, gauero polizia ni zaintzera etorriko zela. Eta hala izan zen. Hilabete bazen iluntzetan niregana etorri zen, baso bat ardo edan eta esku ematen zidan. Gaua han pasatuta, goizetan joaten zen. Tartean hango bazkak finitu ziren eta lekuz kanbiatu behar izan genuen, bazka non hara joaten baikenen. Gau hartan, berriz, sei antxu ebatsi zituzten, baina ebatsita ere kontent bizirik utzi nindutelarik.

Zazpi urte pasatu zenituen Ameriketara. Tarte horretan noizbait bueltatu zinen Urdazubira?

Bai, zazpi urte eskas pasatu nituen, 1960ko irailean joan eta 1967ra arte. Tartean, 1964an lehenbiziko aldiz bueltatu nintzen, baina orduan ere ez zegoen deus hemen eta berriz Ameriketara joan nintzen.

1967an, ordea, gelditu zinen...

Bai, orduan bazen lanerako manera hemen. Harrobian kamioiarekin hasi nintzen eta gero andregai egin nuen. Aroztegiara esposatu nintzen eta geroztik hemen naiz.

Gauzak ederki aldatu dira...

Bai, bai, pentsatzen ahal duzu... Gu 14 urterekin pinuak landatzen aritu ginen, eta hori ez da lanera joateko adina. Orduan ez zen bertzerik izaten, eta sos batzuk ateratzeko zegoena egin behar.

Ameriketako kontuak ere ez dituzu atzendu...

Ez, eta han lagun onak ere egin nituen: amaiurtarrak, erratzuarrak, irurritarrak... Batzuk bueltan etorri ginen, eta bertzeak han gelditu ziren. Batzuk maluruski gelditu ziren, han gazterik hil baitziren. Hura arras bizimodu gogorra zen.

Kalakan taldearen eskutik kontzertuak asteburu honetan

Ortzirale, larunbat eta igande arratsean izanen dira emanaldiak lezeetan, hainbat abeslari eta talde gonbidaturekin

GANEX

Gogoko ditu Kalakan taldeak Sarako lezeak eta hainbat emanaldi eskaini izan ditu. Joan den urtean bezala, aurtengo udazken hasiera honetan, urriaren 6tik 8rako asteburuan, hiru kontzertu eskainiko ditu zenbait musika talde eta abeslariarekin. Irailaren 19an eman zuten egitarauaren berri Sarako herriko etxean egindako agerraldian.

Honela, **urriaren 6an**, ortziraletan, Argentinako Agumadera taldea izanen dute gonbidatu; **urriaren 7an**, la-

runbatean, Bigorreko Allegria taldeko abeslariak eta Zuberoa eta Nafarroa Beherea artean dagoen Lohitzuneko Berçaits anaiak izanen dira kantari eta **urriaren 8an**, igandean, Iruñeko Hutsun txalaparta taldearen eta Xabi Aburruzaga trikitilari bizkaitarraren doinu alaiak aditzeko aukera izanen da, azkenik.

Emanaldi guztiak 21:00etan hasiko dira Sarako lezeetan eta txartelak www.kalakan.eus/kontzertuak webgunean edo Iparraldeko turismo bulegoetan eskura daitezke.



SARAKO IZARRA RUGBY TALDEA

Basurdeak lanean hasiak dira

Sarako Izarra errugbi taldeko gizonetzkoek hasi dute sasoi berria, hirugarren mailan. Animainean irailaren 24an jokaturako lehen partidaren 28-21 irabazi zieten Ziburuko taldeari. Bazkide egiteko kanpaina ere abiatu du elkarteak, Errugbi zelaian, Herriko Etxeko edantegian edo Kafian.

KALAKAN

SARA-KO LEZEAK

URRIAK 6	AGUAMADERA ARGENTINA
URRIAK 7	ALLEGRIA + BERÇAITS ANAIK BIGORRE EUSKAL HERRIA
URRIAK 8	HUTSUN + XABI ABURRUZAGA EUSKAL HERRIA EUSKAL HERRIA

 • KALAKAN.EUS
• IPARRALDEKO TURISMO BULEGOETAN

21:00

Herriko kirolariak goi mailan dabilta han eta hemen

Elur Alberdik joko olinpikoetarako txartela eskuratu du eta Maider Bereauk Kontxako bandera irabazi du, bertzeen artean

JL BESSONART

Ez da ohikoa kirolariak banatuz argitan ezartzea, halere keinu batez agurtu nahi ditugu zombait herritar. Errugbiari dagokionez nola ez aipa, munduko txapelketan, Frantziako ekipoan ari zauzkgun bi senpeter semeak, Charles Ollivon eta Maxime Lucu. Haueri juntatzekoak dira zombait arraunlari, balentriak egin dituztenak hor gaindi. Hala nola, Elur Alberdi. Nahiz hendaia izan, herriko langile ere baita. Joko Olinpikoetako txartela eskuratu du, brontzezko medaila lorturik munduko txapelketan. Iaz proba horren garaile izan zen. Alta, geroztik minbizi baten aurka borrokatu ondoan bere helburua ongi bete du. Beti arraunean, Maider Bereau, Donostiarrak arraun taldeko lagunekin, Kontxako bandera eskuratu du, ez baita balentria ttipia. Bertzalde, Orioko arraun taldean parte hartzen du Ainhoa Etxenikek. Honen anaia Enekok, Lapurdiko Arraun Taldean (LAT) sekulako denboraldia egin du, baina bi



Elur Alberdi, Cadot kidearekin.

segundo eskasagatik, goi mailara igotzea huts egin dute.

Errugbiaren sasoi

Larrazkenak ekartzen du urtero, errugbi denboraldiaren hasiera. Irailaren 24an, lehen partida iragan da, Saint Martin de Seignanx-en kontra. Horra bertze taldeak: Buzi-Ogeu, Ustarize-Jatsu, Pontacq, Nord/Bearn, Ondres, Asasp-Arros, Aspe eta Arthez-Lagor. Biarrotik 6 ekipo badira, Landetatik 2 eta Lapurdiko bertze 2. Taldearen xedea sailkapenean lehen postuetan borrokatzea eta mailaz igotzea da.



JL BESSONART

Swingin'Bayonneren jazz Inharrian

Swingin'Bayonne osatzen duten hiru musikariek, Arnaud Labastie, Patrick Quillard eta Jean Duverdier-ek gaitzeko jazz musikaldi gozoa barreatu dute. Inharria baserria leporaino betea zen horien entzuteko eta ongi preziatu dute euriagatik etxaldearen barnean egin den gualdia.

Klimaren aldeko astea urriaren 9tik 14ra egingen dute

Ohiko klimaren alde egiten den astea iraganen da urriaren 9tik 14ra, *Uraren tokia, klimaren beroketa ikusiz* lemarekin. Aste osoan argazki erakusketa izanen da Larrekon. Urriaren 10ean, asteartean 09:00etan, Arrantzaleen elkartearen animazioa. Urriaren 11n, asteazkenean oinezko ibilaldia Uzkaingo errekararen ur-jauziraino. Arratsaldean INRAren animazioa. Urriaren 12an, ortzegunean 19:00etan mintzaldia Larreko aretoan eta urriaren 13an, ortziralean, oinezko ibilaldia Aintziratik Olha auzora.

Flamenko emanaldia urriaren 8an Larrekon

Urriaren 8an, igandean 19:00etan, Catalina Gommès-ek moldatutako koregrafietan, Las Flamencas taldeak aurkeztuko ditu Larreko kultur aretoan espainiar dantza folkloriko eta klasikoak, baita bereziki flamenkoak ere, Nesk' à Pailletes elkartearen alde. Elkarrekin honetaz, minbiziak hunkitzen dituen gaixoak eta hauen familiak laguntzeko xedea du. Sartzearen prezioa 12 eurokoa da eta 3-10 urte artekoek 6 euro ordaindu beharko dute. Erreserba: Nesk' à Pailletes eta Las Flamencas.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com



Las Flamencas taldea dantzan.



Omendutako Doneztebeko kirolariak, udal ordezkariekin. UTZITAKOA

Doneztebeko kirolariak erremonte jaialdian omenduak

Ibai Meoki, Saioa San Miguel, Andrea Mindegia, Javier Mariezkurrena eta laxoa talde txapelketa ohoratu zituzten

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako XVIII. erremonte txapelketako partida jokatu zuten irailaren 22an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Utergak eta Agirrezabalak 35-23 irabazi zieten Jabalera eta Barricart-i. Honela, hauek txapelketatik kanpo gelditu dira eta Zeberio II.a eta Saldias sartu dira finalerdietan. Aitzinetik jokatu ziren bi partidetan, Errekako eskolako lau erremontista eta profesionaletan ari diren bertze hiru doneztebar aritu ziren.

Baina erremonte jaialdia aurtan ibilbide oparoa izan

duen Doneztebeko kirolariak omentzeko ere aprobetxatu zuten. Honela, berriki erretiroa hartu duen Ibai Meoki eskubaloijokalaria; Nafarroako 500 eta 800 metroko errekorrak hobetu dituen Saioa San Miguel 17 urteko atleta; judo egokituan Nafarroako txapeldun izan den Andrea Mindegia; laxoa txapelketa irabazi duen Doneztebe The Moment taldea eta kamioi lasterketetan Behe Aragoiko txapelketa irabazi duen Javier Mariezkurrena gidari beteranoa omenduzituen udalak eta zapia eta botila ardo bana eskuratu zituzten.

Sustrails Open Enduro BTT zirkuituaren lehen proba egin dute Lesakan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Sustrails Open Enduro BTT txapelketako lehen proba irailaren 23an eta 24an jokatu zen Lesakako Bizibide BTT zentroan. Bi egunez lau txanda osatu behar izan zituzten txirrindulariek, herrigunean eta mendian. Azken txandako

ibilbidea sekretua zen. Iker Otamendi eta Lierni Lekuona dira lehen liderrak. Txapelketak asteburu honetan, urriaren 7an eta 8an izanen du segida Igantziko Irrisarri Landen. Azken proba, berriz, Basaburuan egingen dute, urriaren 21ean eta 22an.



ADOS PILOTA

San Fermin txiki txapelketa

Iruñeko San Fermin txiki txapelketa jokatu zuten irailaren 24an. Gaztetxoetan, Amaiur Landak eta Sunbillako Iraide Iriartek 18-16 irabazi zieten Irati Altxu eta Dunixe Alberro iturendarrei. Nagusietan, Aldaregiak eta Iturriaga leitzarrak 22-15 irabazi zieten Arrietari eta Ruiz de Larramendiri.



MAIALEN ANDRES

Ezkurra II.a-Azpiroz Grossen txapeldun

Gross erremonte txapelketa berezia jokatu zuten irailaren 23an Galarretan Oriamendiko erremontista onenek. Josetxo Ezkurra II.a doneztebarra eta Azpiroz suertatu ziren txapeldun, finalean Ansa II.ari eta Larrañagari irabazita. Aldabe-Barrenetxea eta Urriza-Juanenea ere aritu ziren.



Txirrindularia Lesakako karriketan egindako lehen txandan. SAIZ PHOTOS



Finalean lehiatuko diren sei aizkolariak, Hernaniko kanporaketaren ondotik.

Sorondo eta Ariztegi aizkolari finalean izanen dira

Xanta Sousa lesakarra, aldiz, urriaren 15ean Elgoibarren jokatu den finaletik kanpo gelditu da lau segundogatik

TTIPI-TTAPA

Emakumezkoen Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren kanporaketa jokatu zen irailaren 16an Hernanin (Gipuzkoa). Bederatzi aizkolari aritu ziren lanean, finalean aritzeko eskubidea ematen zuten sei txartelak bat eskuratzeko. Pronostikoa betez, Nerea

Arruti urnietarra izan zen onena (09.31), eta gibelatik izan zituen Nerea Sorondo beratarra (10.20), Oihana Fernandez de Barrena arabarra (12.32), Maika Ariztegi iturendarra (14.11) Malen Barreneetxea hernaniarra (16.02) eta Ane Zapirain astigarragarra. (16.09). Kanporaketako lana

kanaerdiko bat (54 ontzako), 45 ontzako bat eta 36 ontzako bat moztea zen.


Xanta Sousa lesakarra zazpigarren izan zen (16.13). Beraz, lau segundo soberan izan zituen finalera sartzeko. Bosgarren postua ere hamaika segundo eskasera izan zuen lesakarrak eta pena horrekin bueltatu zen, finalerako txartela lortu gabe. Beatriz Tanco sarrigurendarra zortzigarren izan zen (18.43) eta Garazi Arruti bilbotarra bederatzigarren (18.45).

Finala urriaren 15ean Elgoibarren

Beraz, Nerea Arruti Salgadok, Nerea Sorondo Maritorenak, Oihana Fernandez de Barrenak, Maika Ariztegi Mariezkurrenak, Malen Barreneetxeak eta Ane Zapirain Odriozolak lortu dute urriaren 15ean Elgoibarren (Gipuzkoa) jokatu den finalerako txartela. Igandean 12:00etan izanen dute hitzordua Kalegoen plazan (euria eginen balu, Olaizaga kiroldegian). Kanporaketan egin behar izan zuten lanaren bikoitza egin beharko dute finalean: bi kanaerdiko (54 ontzako), bi 45 ontzako eta bi 36 ontzako moztea.

Eneit Bertiz eta Jon Egizabal lehen podiumean

Mendi bizikletako XCO modalitatean, Udazkeneko Opetan lehenbiziko karrera jokatu zen irailaren 23an Villatuertan, Muskildia lasterketa. Junior mailan, Errioxako Raul Villar izan zen irabazle eta podiumean lagun eskualdeko bi txirrindulari izan zituen, biak Iturrotz Saltoki taldean ari direnak: bigarren sailkatua Eneit Bertiz sunbildarra izan zen eta hirugarrena Jon Egizabal leitzarra. Aipagarria da sunbildarraren lana, sei hilabeteko lesioaren ondotik indartsu bueltatu baita eta Arazurin ere bigarren izan zen.



Bertiz eta Egizabal podiumean.



NHKF

Resano eta Pellejero lehen mailara

Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala jokatu zuten irailaren 24an Uhartan. Iban Resano suertatu zen txapelkun eta Aresoko Asier Pellejero bigarren. Biek lortu dute lehen mailan aritzeko txartela. Julen Kañameres hirugarren izan zen eta Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria laugarren.



BAXI BASAJAUNA

Euskal Herriko III. Disc Golf txapelketa

Euskal Herriko III. Disc Golf Txapelketa jokatu zen irailaren 23an Igantziko Irrisarri Landeko zelaian. MA50 kategorian Baxi Basajaunako Iñaki Gonzalez izan zen txapelkun, maila guztietako txartelarik onenarekin (-8). Mikel Ibarrola doneztebarra bigarren izan zen kategorian berean.

AGENDA

URRIAK 5 - 19

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ELIZONDO 'Luze edo motz' binakako umorezko bakarrizketa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraiaren eskutik.
Arizkunengan, urriaren 15ean, 19:00etan.

MUSIKA

SARA Kalakan taldearen kontzertuak

Lezean, 21:00etan. Urriaren 6an Agumadera taldearekin, 7an Allegria taldearekin eta Berçaits anaiekin eta 8an Hutsun taldearekin eta Xabi Aburruzagarekin. Sartzeak kalakan.eus-en eta Iparraldeko turismo bulegoetan.

LESAKA 'Harribitxi' folk kontzertua

Harriondoan, urriaren 7an, 19:00etan.

Lazkaoko Kantaka Abesbatza

Harriondoan, urriaren 8an, 12:00etan.

SENPERE Flamenko emanaldia

Las Flamencas taldearen eskutik. Larrean, urriaren 8an, 19:00etan. Sartzeak 12 eurotan helduendako eta 6 eurotan 3-10 urtekoendako.

BERA 'Bidai' kontzertua

Mikel Artieda & Zazpiketers.
Kultur etxean, urriaren 11n, 19:00etan. Sarrerak 7 eurotan.

ALMANDOZ Baztan Kantuz

Plazan, urriaren 15ean, 12:00etan.

JARDUNALDIAK

ZUBIETA Euskararen Eguna

Urriaren 6an eta 7an.

LEITZA Aurrera Kirol Elkartearen Eguna

Urriaren 7an.

DONEZTEBE Automobilien Ondareari buruzko Nafarroako Jardunaldiak eta 4x4 triala

Urriaren 7an.

ALMANDOZ Baztango Eskola Ttikien besta

Urriaren 8an.

SENPERE Klimaren aldeko astea

Urriaren 9tik 14ra.

ETXALAR Usategietako Igandea

Urriaren 14an eta 15ean.

IKUSKIZUNAK

BERA 'Yerma' dantza ikuskizuna

Zuk Performing Artes taldea.
Kultur etxean, urriaren 7an, 19:00etan. Sarrerak 6 eurotan.

LEITZA 'Itsas Behera' antzezlana

Pez Limbo konpainia.
Herri Aretoan, urriaren 8an, 19:00etan. Sarrerak online edo leihatilan.

Zinema Herri Aretoan, urriaren 14an eta 15ean. 17:00etan 'Django desencadenado' eta 19:30ean 'Asteroid City'. Sarrerak online edo leihatilan.

LESAKA 'Basotik itsasora 2.0' dantza eta zinema ikuskizuna

Harriondoan, urriaren 14an, 19:00etan. Sarrerak lesaka.eus-en.

ELIZONDO 'Luze edo motz' bakarrizketa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin.
Arizkunengan, urriaren 15ean, 19:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO Baztango Artisauak eta Zapareak

Plazan, urriaren 7an eta 14an, goizez.

BERA Bertako ekoizleen merkatua

Berlandetan, urriaren 14an, 10:30etik 13:00etara.

ERRATZU Erratzuko Artisauen azoka

Plazan, urriaren 15ean, 11:00etatik 15:00etara.

SOLASALDIAK

LEITZA Hezkuntzaren inguruko hitzaldia

Sorturen eskutik.
Udaletxean, urriaren 19an, 18:30ean.

BERA 'Intzola, pasoko bidea' liburu aurkezpena

Berlandetan, urriaren 19an, 18:00etan.

ARANTZA 'Isildutako eskuak' liburu aurkezpena

Jon Abrilekin.
Liburutegian, urriaren 20an, 19:00etan.

«Bizikletari esker leku eta jende pila ezagutzeko aukera izan dut»

ZUMAI TXOPERENA EUGI IGANTZIKO TXIRRINDULARIA



25 urteko igantziarra da Zumai Txoperena, «afizioa ofizio bihurtzea lortu duen txirrindularia». Zaletasun aunitzeko mutila da, eta batez ere kirola, mendia, bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea du gustuko. Gehien egiten duen kirola bizikleta izan arren, «frontenisean aritzea ere aunitz gustatzen zait. Lagun artean herriko frontoian partidak maiz jokatzeko ditugu eta herriko frontenis txapelketan ere parte hartu izan dut. Mendi irteerak egitea ere atsegin dut, egia erran mendian egiten den edozein kirol gustatzen zait».

Ttikitatik pedalei eragiten

Haurra zela, «etxe inguruan bizikletan ibiltzen nintzen, eta herritik aparte dagoen base-ri batean bizi garenez, etxe-

tik herrira bizikletan joaten nintzen beti lagunekin egotera». Gainera, «mendira joaten hasteko adina eta indarra eduki genuenean, lagunekin ateraldiak egiten hasi ginenean». Urteak pasatu ahala, «bizikleta gehiago eta gehiago gustatzen joan zait».

Gaur egun, «aunitzetan» ateratzen da bizikletarekin ibiltzera; «azken hiru asteetan egunero ibili izan naiz, alde batetik lanagatik eta bertetik lagun arteko ateraldiengatik». Hala ere, «bizikletarekin lan egiten ez banu, astean behin edo bitan ibiliko nintzateke».

«BIZIKLETAREKIN LAN EGITEKO AMETSA BETE DUT»

Aitortu duenez, zaila da bizikletan ibiltzeko txokorik gustukoena aukeratzeko; «leku aunitzetan ibili naiz eta berteko aunitzetara ailegatzea espero dut. Baina orain arte egon naizen lekurik gustukoena Andorra dela erranen nuke: mendi altuak, baso zabalak eta bizikletan ibiltzeko aukera handia dago, bike parkean nahiz mendiko ibilbideetan».

Ametsa beteta

Zaletasuna lanbide bihurtu du Txoperenak, eta Basque MTB enpresarentzako lanean aritzen da mendiko ibilbideetan. «Gehienbat Pirinioetan egiten dugu lan, baina tarteka Euskal Herrian ere aritzen gara». Gainera, «bezeroekin bidaiarik ez dugunean Lesakako Udalarantzako aritzen naiz Bizibide proiektuan. Bide berriak irekitzen eta dagoeneko irekiak dauden bideen mantentze lanak egiten aritu izan naiz».

«Lan gogorra» dela dio, «baina gustuko lekuan maldarik ez! Lanbide guziek bezala, alde onak eta txarrak ditu. Egun euritsuak, nekatuta nagoen egunak edo bertzerik gabe bizikletan ibiltzeko gogorik ez dudanak ditut». Hala ere, «kirola eginez dirua irabazten dut eta orduak sartuz maila aunitz hobetu dut».

Txoperenak azaldu duenez, «edonork bezala amets pila bat ditut buruan, baina bizikletari dagokionez, ametsa bete dudala erranen nuke: afizioa ofizio bilakatzea. Orbearekin elkarlanean aritzen garenez, bizikleta ederrak erabiltzeko aukera dut, eta lanari esker leku eta jende pila ezagutzeko aukera izan dut».

«ESKUALDEAN BIZIKLETAK LEKU HAUNDIA EDUKI DU BETITIK»

Mendiko txirrindularitza

Aukera duen guzietan Enduro probetan parte hartzen du, «nahiz eta azkenaldian, lanagatik, ez dudan lasterketara aunitzetara joateko aukerarik izan. Proba hauetan egoten den lagun arteko giro ona eta saltsa gustatzen zait».

Gainera, eskualdean mendiko txirrindularitzak «betitik edo nik oroitzen dudanetik bederen, leku handia eduki du. Gaur egun, gazte pila ikusten da mendiko bizikletarekin, bai mendian eta baita lasterketetan ere. Geroz eta bide eta zirkuitu gehiago daude MTBrako prestatuak, azpiegiturak indartzen ari gara eta honek jende gehiagorengana ailegatzea ahalbidetzen du».

Horren adibide da Lesakan berriki irekitako *pump track*; «bizikletan ibiltzeko guneak herri eta hirien erdigunean kokatzen dira eta kirolari ikusgarritasun handia ematen diote. Gainera, edozeinek probatu eta praktikatzeko erraztasuna ematen dute».

Izan ere, bizikletarekin hasi nahi dutenak probatzera animatu ditu Txoperenak, «beldurra alde batera utzi eta errespetuaren lagun eginda. Beti erran izan dut beldurra txarra dela, blokeatu egiten gaitu eta ez digu aitzinera egiten uzten. Errespetua, aldiz, ona da; erne mantentzen gaitu eta gauzak kontu handiz egiten, normalean, segurtasunez jokatzera eramaten gaitu. Beraz, kasko eder bat paratu eta hasi poliki poliki saiatzen!».

Etorkizunera begira

Bere asmoen inguruan galdeztzean, «badira aste batzuk nire buruari galdera hau egiten ari naizela, baina oraindik ez dut erantzun garbirik. Momentuan nagoen bezala gostura nago, beraz, ahal dudaneu rrian horrela segituko dudala uste dut».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Partikular batek 148 m²ko bi bizitzako etxebizitza ederra salgai, lorategiarekin eta portxearekin. Herri erdian eta toki lasaian. ☎629 18 80 88 / 660 78 53 05.

BORTZIRIAK. Jubilazioarengatik 70m²-ko pisua salgai. 48.000 euro. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

KONPARTITZEKO

BAZTAN. Logelak errentan emateko, irakasleentzat aproposak. Irailetik ekainera. ☎630 22 26 81.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA EDO LESAKA. 38 urteko mutil arduratsua eta garbia pisu bila dabil Beran edo Lesakan. Pisua barrik egoteko nahi du, lana eta familiaritik hurbil egoteko. Halere, konpartitzeko prest. ☎609 40 82 89.

EROSI

Berritzeko etxea, baserria edo pisua erosiko nuke. Ez du inporta zein zonaldean ezta zein egoeratan dagoen. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

GARAJEAK-LOKALAK

BERTZELAKOAK

ELIZONDO. Janari denda eta bisita gida turistikoen negozioa eskualdatzeko. 20.000 euro negoziagarri. ☎628 01 98 93

LANA

ESKARIAK

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean, neska batek goizez astean bi edo hiru egunez, bi edo hiru orduz egunean, haurrak zainduko lituzke, hamar euro ordua. Dudaren bat izanez gero, Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46

ESKAINTZAK

BERA. Venta Mendi Mendianek sukaldari bat behar du. Interesatuak deitu edo 'memdimendian@hotmail.com' helbidera idatzi. ☎948 63 07 23.

IBARDIN. Benta Gorrian sukaldari laguntzailea behar dute eguerdiko zerbitzurako. Deitu edo bidali curriculum: bentagorria@hotmail.com. ☎618 00 27 31.

IBARDIN, DANTXARINEA ETA LUZAIDE. Harakin bila ari dira. Soldata erakargarria. Bidali curriculum rrhh@ventabiok.com helbidera.

IBARDIN, DANTXARINEA ETA LUZAIDE. Zerbitzari bila ari dira. Egunean hiru ordu bakarrik. Soldata erakargarria. Bidali curriculum rrhh@ventabiok.com helbidera.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kubxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

BERA. Ubela tailerlean lanaldi erdian administrazio lanak egiteko langilea behar dute. Interesatuak deitu edo bidali curriculum: administracion@ubela.net. ☎948 63 11 67.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzariak behar dituzte. Deitu edo bidali curriculum: sainz.amaia@gmail.com. ☎617 72 34 75.

ELIZONDO. Santxotena jatetxean zerbitzari baten bila ari dira lan egiteko. ☎948 58 02 97.

LESAKA. Iturbena kafetegian, igandetan 08:00etatik 13:30era/14:00etara errefortzua egiteko zerbitzari bila. Edozer gauza edo zalantza deitu. ☎620 70 09 64.

BERA. Ganix tailerlean aritzeko mekanikaria behar dute. ☎948 63 06 69.

BERA. Herrigunean estanko batean aritzeko langilea behar dute, lanaldi

oso aritzeko lagun bat edo bi lagun lanaldi erdian aritzeko. ☎948 63 16 37 / estanco3beola@gmail.com.

ANIMALIAK

SALGAI



Hiru zakurkume salgai. Chou Chou eta Bordie Collie arrazen nahasketa. ☎619 23 16 47.

EROSI

Zerri gizena edo zerrama erosiko nuke. ☎699 50 90 03.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,28 €
- 1.koa 5,16 €
- 2.koa 5,04 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,34 €
- 1.koa 5,11 €
- 2.koa 4,88 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,80/9,90 €
- 8-10 kilokoak: 7,90/8,60 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizena 1,858 €

Zerramak 1,270€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

OPARITZEKO

LEITZA. Bost hilabete dituen eta collie arrazakoa den txakurkumea oparitzeko. Oso polita eta ernea da. ☎636 02 23 11.

ERRATZU. Katakumeak oparitzeko. ☎628 90 41 30.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Gurpil aukila eta eskailera igogailua salgai. Mugikortasun urrikoendako. Esfortzurik egin gabe eskailera igotzea jaisten ditu. Hiru oinazpiko, toki tiki behar du eta garraiatzeko erraza. Prezioa, dena barne, 1.300 euro. ☎684 03 66 71.

LEITZA. Txerriak hiltzeko kaiola salgai. ☎683 54 77 55.

Eskopeta bat salgai: Beretta Urika magnum Calibre 12. 400 eurotan. Horrekin batera, paralela berri bat eta kartutxo dezente oparitzeko. ☎659 48 91 40.



2 koltxoi eta 3 kajoiko ohatzea salgai. Egoera hagitz onean. Armazioa: 204x88x116. Ohatzeak: 105x195 eta 90x180. ☎699 10 77 29.

Logela saltzeko. Bi ohatze, mesanotxea, komoda eta armairu batez osatua. ☎659 76 43 75 / 661 13 83 85 (Deitu arratsaldean).

GALDU-AURKITUAK

GOIZUETA. Herriko presako eskailera inguruan erlojuua galdu dute. ☎636 89 56 21.

DONEZTEBE. Irailaren 13a aldera, Doneztebeko enplegu bulegoaren eta osasun zentro zaharraren inguruan NANA galdu dute. Norbaitek aurkitu badu deitzea eskertuko dute. ☎600 66 00 41.

ARANTZA. Ekaitza mendian betaurreko graduatuak aurkitu dituzte. ☎948 62 57 72 / 647 61 78 37

BERTZELAKOAK

Pertsona batek osasun tratamendua hartzeko Iruñera joan behar du. Autobusaren gastu haundiak direla eta, egunero Iruñera doan pertsona batekin kontaktatu nahiko luke gastuak murriztearren. ☎697 64 88 30.

MOTORRAK

TAILERRAK



SANTESTEBAN TAILERRAK

**RENAULT CLIO
TCE 75 CV
2018 urtekoa - 41.500 km
11.700 €**

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

**SUZUKI
SX4 S 1.6 120 CV.**

**NISSAN
QASHQAI 2.0 150 CV.**

www.mendaurmotor.com



744 484 361

ttipi-ttapa

EZKONTZAK

• **Erik Latxage** eta **Mª Jose Dervin**, Saran, irailaren 16an.

SORTZEAK

• **Arai Gereka Otxandorena**, Donamariakoa, irailaren 8an.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades
www.kulturkari.com

Panelak
Aluminioa, PVC edo metakrilatoa
Neurrira eginak, formekin moztuak, formatu handiak, iraunkorrak...

URTEBETETZEAK



Auniz urtez gure txantxiuari!
Arantzak urriaren 18an urteak beteko ditu. Egun ederra pasatu!



Amaiak urriaren 24an urteak beteko ditu. Auniz urtez eta ongi-ongi pasatu zure eguna!



Auniz urtez **Ekhi!** Gure tolosar tikiak urtea beteko du urriaren 6an. Muxu haundi-haundi bat familia guziaren partez!



Amaiurko **Alain Ariztia Garmendiak** urtea bete irailaren 30ean. Zorionak eta auniz urtez, *pollite!* Muxu haundi bat familia guziaren partetik!

Auniz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPARI!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 euro argazki tikiak eta 10 euro handia. Bulegoan eskudiritan edo ERRAN.EUS/TPW/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

KONTATU KONTUAK



Berako eta Doneztebeko haur eskoletan jantoki eredu aldatzeko lanean. Bortzirietako, Malerrekako eta Bertizaranako elikadura dinamizatzailearen laguntzarekin eta inguruko ekoizleekin elkarlanean, Berako Mukixu Udal Haur Eskolan eta Doneztebeko Askin Udal Haur Eskolan jantoki eredu aldatzeko hasi dira. Bertzeak bertze, ikasturte honetako menua aldatu dute eta berriki ikastetxeetako jantokietako sukaldariak formazioa egin dute.

Kontatu, kontatu!

Ospakizun edo ateraldiren bateko argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 48 43 61 zenbakira.

URTEURRENA

**Beñat
ETCHART VERDU**

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an
XII. URTEURRENA



*Nahiz eta ez egon
gure begien aitzinean,
hor zaude gure bihotzetan.
Maite zaitugu.*

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

URTEURRENA

**Luis
PLAZA ZUGARRAMURDI
Joxe Mari
GARBISU IRAZOKI**

Zalain Zokon, 2022ko irailaren 11n,
69 eta 74 urte zituztela.
I. URTEURRENA




*Gure artetik nahiz eta ustekabean joan zineten,
egunero oroitzen gara zuekin.
Beti egonen zarete gure bihotzetan.*

ETXEKOAK

URTEURRENA

Juan Mari ZALDAIN MAISTERRENA

Amaiurren, 2016ko urriaren 1ean
VII. URTEURRENA

*Bertze urte bat pasa da,
hau bizilegea,
baina atzentzen ez denak
ez du inoiz hiltzea.
Hortaz, pizturik darrai
gugan zure irriak,
gure bidelaguna,
zure memoria.
Maite zaitugu.*




EMAZTEA ETA SEME-ALABA

OROIGARRIA

Pakitto LEKUBERRIA ARIZTEGI

*Saltsa guztiak perrexil pixkat
diotenez behar omen
gure Botxoko meriendetan
perrexil hori zu zinen
umorearen arloan bixi,
seriotasunean garden
zaldun ibxura ta izaera
egiz maite zenituen
gure artetik trosta bizian
nola aldegin zenuen?
Koleta moztu zendun Pakitto
behar baino askoz lehen
adio lagun, maite zaitugu!!
Orain har zazu atseden.*



HILBERRIAK

- **Catherine Borneix**, Sara, irailaren 1ean, 92 urte.
- **Denise Añorga**, Sara, irailaren 7an, 87 urte.
- **Lucien Ayez**, Sara, irailaren 11n, 83 urte.
- **Jose M^a Bazterrika Legarreta**, Ituren, irailaren 14an, 93 urte.
- **M^a Josefa Opoka Inda**, Leitza, irailaren 14an, 89 urte.
- **Jabier Sagastibeltza Rekondo**, Leitza, irailaren 16an, 70 urte.
- **M^a Josefa Elizegi Arrijuria**, Arizkun, irailaren 20an, 75 urte
- **Teresa Olondriz Berrueta**, Elizondo, irailaren 20an.
- **Lorenzo Onsaldo Eraso**, Areso, irailaren 24an, 73 urte.
- **Mariano Andueza Errazkin**, Lesaka, irailaren 24an, 78 urte.



BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es




IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA PULSADO






TANATORIOAK

- ELIZONDO
- ARANTZA


- BERA
- IGANTZI

- DONEZTEBE

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


948 05 90 90 | www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	♦ Izena	Ohitura igarrikorra	Bekotza	Zuhaitz mota	Bakirikoko herriar
	Autofa, berbita	Ebeko estaki	Masuriotza	Nahitaezko	Alorrak
	Loge zefiak				
	Ez zuzen				
Galarazi, oztopatu	Insektu hegalaria		Oihala		
Mañamoko ibela	Zeti		Etsipena		
			Junta-gailua	501	
			Soldatzak	Kentobantoa	
Atxasko herriar					
Mañamoko kontzejua					
		Ipurdian		Kentobantoa	Errepublikatuz, lauri mota
		Gizon izena		Tona, labor-labor	Ajako herriar
Aikoholen bukaera		Euri denbora			Lehenengo letra
Karpo, landa		Sortu zintzua			Momentu, instant
		Aluminioa	Kasik	Seguru	
		Ergatiboaren letrak	Radona	Uranioa	
♦ Datorra				Edaki, izan	
Dikalmitasunez				Bekal mehea	Bokata
				Nahastura aski trinkoa	

♦ Olerkari eta ohorezko euskaltzain senpertia

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Zapata arina eta malgua, lokarririk gabea.
- [2] Dirua jokatzeko etxea.
- [3] Basamortuetan, ura eta landareak dauden tokiak.
- [4] Baztango mendia.
- [5] Saiakera.
- [6] Hegazti sarraskijale, putre.
- [7] Soldata.
- [8] Espainiako probintzia, Gaztela eta Leonen.
- [9] Ardien bazkalekua, bereziki etxolaren ingurukoa.
- [10] Goizeko otordua.
- [11] Zerbait osatzen duen gauza.

ERANTZUNAK



MOKASINA
KASINOA
OASTIAK
SAIDOA
SAID
SARI
SORIA
SAROIA
GOSARIA
OSAGARRI

PLAZAN BAZAN

ALTXORRAREN BILA

ZORIONAK!

NAIKARI ALTZURI MINDEGIA

838. aleko irabazlea zara!



Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?

Marrakizak: Garbiñe Ubeda (Alumni)



Loguntzailerak:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin urriaren 9a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whattsappera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

838 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Nati Irungarai Aleman | AZPIKUETA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Mikel Pernaute Etxandi | ANIZ

Ez kexa - Kamiseta bat
Pedro Iribarren Etxegia | OIZ

BKZ Abentura - Sarrera bat
Onintza Bengoetxea Zabaleta | LEITZA

WOW Park - Sarrera bat
Heidi Otaduy Diez | ETXALAR

Arrate Estetika Zentroa - Lote bat
Loinez Gelbentzu Almandoz | SUNBILLA

Mugarki - Sarrera bikoitza
Jone Elgorriaga Almandoz | LESAKA

Anikote - Spinning saioa
Jose Mari Gogorza Jauregi | EZKURRA

Baga-Biga - Hiru CD
Josean Subizar Garralda | IRUÑEA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irrisariland.com



Sarrera bat

ELIZONDO
www.giltsaurdi.com



Bi sarrera

SALTING IRUÑEA
www.salttingcenters.com



Bi sarrera

FANTXIKE
www.fantxike.eus



Kamiseta bat

IZAR PARK
www.galanpark.eus



Sarrera bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttapi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Hiru liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

erein
www.erein.eus



LURRAREN EGUNA

BERA

2023

URRIAREN 22AN

10:00etan Eskulangileen eta Elikadura Azoka / Barazki erakusketa / Taloak / Olakoren erakusketa / Tailerrak. [Altzateko eszenatokian] Txalapartariak eta IRATS trikitilariak / Musika Eskolako Txistularien kalejira. **Jarraian** Bortzirietako 35. Gasna Lehiaketa eta IRATS trikitilariak kalejira. **Eguerdian** 24. Sagardo Lehiaketa. **12:45ean** Musika Eskolako Talde instrumentalaren eta Bandaren kalejira. **17:00etan** Bertsolariak zuzendutako sari banaketa. **18:00etan** Mutxikoak SEBASTIENen txarangarekin. **19:00etan** Erromeria.

Bezperan Lizuniagako igoera, Barazki Opil lehia, Erakusketa Labiagan eta Bera kantari.

